



Euskadiko Eskola Kontseilua

HEZKUNTZA EUSKADIN, 2010-2012



Sarrera

Euskadiko Eskola Kontseiluaren kideak

1. atala. Hezkuntza sistemaren plangintza

Sarrera

- 1.1. Jaiotza kopurua Euskadin
- 1.2. Eskola matrikula
 - 1.2.1. 0-2 tartea
 - 1.2.2. 2 urtekoen irakasmaita
 - 1.2.3. Ikasleen bilakaera etapen arabera eta haien banaketa hezkuntza sareetan
 - 1.2.4. Irakastereduen bilakaera
 - 1.2.5. Helduen hezkuntza iraunkorra (HHI)
- 1.3. Ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak
 - 1.3.1. Pobreziaren eta gizarte desberdintasunaren adierazleak Euskadin
 - 1.3.2. Dirulaguntzadun ikasleak
 - 1.3.3. Ikasle etorkinak
- 1.4. Berariazko eskola-laguntza behar duten ikasleak
 - 1.4.1. Esparruaren definizioa eta baliabideak
 - 1.4.2. Hezkuntza Bereziko gelak
 - 1.4.3. Curriculum anitzeko ikasleak
 - 1.4.4. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)
 - 1.4.5. Errefortzu, Orientabide eta Laguntzarako Programak (PROA)
 - 1.4.6. Eskolatze Osagarriko Programak (EOP).
- 1.5. Erlijio katolikoa hautatzen duten ikasleak
- 1.6. Araubide bereziko irakaskuntzak
 - 1.6.1. Arte-irakaskuntzak
 - 1.6.2. Kirol-irakaskuntzak
 - 1.6.3. Hizkuntzen irakaskuntzak
- 1.7. Ondorioak eta proposamenak

2. atala. Ikastetxeetako prozesuak: ebaluazioa, berrikuntza, antolamendua

- 2.1. 2011ko ebaluazio diagnostikoko emaitzak
 - 2.1.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak
 - 2.1.2. DBHko 2. mailako emaitzak
 - 2.1.3. Emaitzei loturiko faktoreak
 - 2.1.4. Ikastetxeek ekartzen duten balio erantsia
 - 2.1.5. Berritzeguneen parte hartzea hobekuntza planetan

2.2. Eskola-uzte goiztiarra

2.3. Ikastetxeen antolamendua

2.3.1. Ebaluazio probetan ikastetxeen antolamenduaren inguruan bildutako informazioa

2.3.2. Ikastetxeko zuzendaritza

2.3.2.1. Prestakuntza plana

2.3.2.2. Zuzendariaren postuaren ebaluazio-eredua

2.3.3. Proiektu global batean oinarritutako ikastetxe-sareak

2.4. Irakasleen prestakuntza eta berrikuntza ikastetxeetan

2.4.1. Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak

2.4.2. Berritzeguneez antolatutako prestakuntza jarduerak

2.4.3. Garatu planeko ikastaroak

2.4.4. Zenbait proiektu eta plan bereziren garapena

2.4.4.1. Hezkuntza Marko Hirueleduna

2.4.4.2. Eskola 2.0 proiektua

2.4.4.3. Bizikidetzeta Plana

2.5. Ondorioak eta proposamenak

3. atala. Hezkuntza-sistemaren finantzaketa eta baliabideak

3.1. Aldagai sozio-ekonomikoak eta hezkuntzaren finantzaketa

- BPGaren bilakaera
- Langabezia-tasa
- Zerga-bilketa eta BPGarekiko erlazioa
- Zor publikoa
- Gastu publikoa hezkuntzan
- Gastu publikoaren mozketak-neurri nagusiak estatu mailan

3.2. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren aurrekontuak.

- 3.2.1. Hasierako aurrekontua eta betearazitako aurrekontua.
- 3.2.2. Aurrekontuaren banaketa kontu-sailen arabera
- 3.2.3. Aurrekontuaren banaketa programen arabera
- 3.2.4. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako programak eta azpi-programak
- 3.2.5. Inbertsioak ikastetxe publikoetan (6. kontu-saila)
- 3.2.6. Ikastetxe pribatuekiko ituna

3.3. Hezkuntza-sareetako gastuen arteko konparazioa eta faktoreen analisia

- 3.3.1. Sailaren aurrekontuaren banaketa
- 3.3.2. EUSTATen gastuen estatistika
- 3.3.3. Hezkuntza-sareetako gastuen arteko aldea azaltzen duten faktoreak

3.4. Ondorioak eta proposamenak

ERANSKINAK

Kristau Eskola elkartearen boto particularra

Liburu honetan Euskadiko Eskola Kontseilua Euskadiko hezkuntzari buruz egindako txostena, 2010-2012 aldiari dagokiona, aurkezten dugu. Txostena egiteak ikerketa zabal eta konplexua eskatu du, eta prozesu horretatik nabarmendu nahi nuke Kontseilu osoak une guztietan izan duen parte hartze maila. Batzordeek aztergaien zerrenda erabakitzeke egindako hasierako bileretatik lan-batzordeek askotariko zirriborroak hobetzeko eta bukaeran onesteko egindako bileretara, parte hartze maila eta egindako ekarpenen maila oso garaia izan da, eta, beraz, ezer baino lehen, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide guztiei egindako lanagatik eskerrak eman nahi dizkiet.

Horrezaz gain, txostenaren izapidean zehar Euskadiko Eskola Kontseiluaren barruan izan diren akordioen adostasun eta zehaztasun maila ere azpimarratu nahi nuke.

Txostena hiru ataletan egituraturik dago; lehenaren izenburua hezkuntza sistemaren plangintza da; bigarrenarena, ikastetxeetako prozesuak: ebaluazioa, berrikuntza eta antolamendua; eta hirugarrenarena, hezkuntza sistemaren finantzaketa eta baliabideak.

Plangintzaren barruan, aurretik ere gauzatu ziren analisiak egiten jarraitu dugu, eskola-plazen eskaintzarena jaiotza-tasaren bilakaerarekiko, euskalduntzearen aurrerapenarena eta sistemaren plangintzarena. Horrez gain, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak sartzeko dira eta, baita ere, ikastetxeek hezkuntza-erantzun egokia emateko dituzten askotariko programak. Aparteko azpiatal batean Helduen Hezkuntza eta Araubide Bereziko Irakaskuntzak aztertzen dira.

Bigarren atalean ebaluazio diagnostikoaren eta azken edizioetan izan den hobekuntzaren analisi sakona egiten da, hurrengo ikasturteei begira ebaluazioaren plangintzan egin diren aldaketak aztertzen direlarik. Eskola-uzte goiztiarrari buruzko azken datuak ere aurkezten dira, 2020rako europar helburuaren ia barruan sartzen gaituztenak. 2012-13 ikasturtean ikastetxeetako zuzendaritza taldeen ebaluazioa abian jarri zen, eta horri esker ikastetxe publikoen ebaluazioak bigarren dimentsio bat hartu du. Bere ezaugarriak kontuan izanik, ikastetxeen antolamenduaren alderdi guztien ebaluazioa da, alde batetik, parte hartzeari, ikastetxeko giroari eta gainerako ikastetxeekiko lankidetzari garrantzi handia ematen baitie, eta baita, bestetik, plangintzaren eta kudeaketaren alderdiei ere, baina beste guztien gainetik lidergo pedagogikoari.

Hirugarren atalak gure hezkuntza sistemaren finantzaketa aztertzen du, eta hasieratik azpimarratzen du baliabideen murrizketara daraman gaur egungo krisialdi ekonomikoaren egoera, gero Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen eta itunaren esparruari buruzko zenbait gairen analisiarekin jarraitzeko. Ikastetxeetako gastuaren adierazleak Eustaten argitalpenetako datuen argitan aztertzen dira, eta gure hezkuntza sistema

osatzen duten bi hezkuntza-sareen gastuen arteko konparaziorako hurbilketa bat egiten da.

Atal guztien egitura berdina da beti: atal orokor batean erabilgarri dagoen informazioaren analisia egiten da –gehienetan, kuantitatiboa edo matematikoa; zenbaitetan, kualitatiboa-, eta analisitik eratoritzen diren ondorioak eta proposamenak bukaerako laburpen gisako azpiatal batean biltzen dira. Oraingo txosten honen kasuan, 14 proposamenak zenbakitu egin dira aiseago identifikatu ahal izateko.

Testuak Kontseiluko talde teknikoak idatzi ditu, eta Kontseiluaren barruko hiru instantzian aztertu dira hurrenkera honetan: atal bakoitzeko berariazko batzordeak, Batzorde Iraunkorra eta atala onesten duen instantzia, Osoko Bilkura.

Kontseiluak kideek egindako lana eta parte hartu duten bestelako pertsonen eta erakundeen laguntza eskuzabala eskertu nahi ditu, eta espero du 2010-2012 Txostena ikastetxeetan, hezkuntza sistemaren laguntza-zerbitzuetan, unibertsitatean, Administrazioan bertan eta komunikabideetan zabaldu eta ezaguna izan dadin, eta bere analisiak eta proposamenak kontuan hartuak izan daitezen.

M^a Luisa García Gurrutxaga

Euskadiko Eskola Kontseiluko Presidentea

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN KIDEAK

- **Txostenaren onarpen garaian (2013ko ekaina)**

M^a Luisa García Gurrutxaga (Presidente)
Cándido Hernández Garduño (Vicepresidente)
Eva Blanco Ochoa (Secretaria Técnica)
Asier Aloria Sánchez
Andoni Álvarez Gómez
Itxaso Anduela Fernández
Yoana Arambalza Zabildea
Ikoitz Arrese Otegi
Eduardo Arrieta Arrieta
Nile Arroita Astellarre
Iñaki Azpitarte Pujana
Julen Maren Bengoechea Urretavizcaya
Andoni Busquet Elorrieta (Comisión Permanente)
Eusebio Cadenas Cordero
Juan Carlos Castaño Moreno
Javier del Campo del Val (Comisión Permanente)
Asunción Eguren Cendoya
Ana Eizagirre Sagardia
Angela García Gómez
Xabier Irastorza Garmendia
M^a Angeles Jáuregui Irarreta (Comisión Permanente)
M^a Luisa Jaussi Nieva
Ane Landeta Fernández
Adrián Legasa Ríos
Francisco Luna Arcos (Comisión Permanente)
Agurtzane Llano Cuadrado
Javier Llantada Zabala
Carlos López Losada
Carmelo Martínez López
Ane Morales Mujika
Mikel Ormazabal Loinaz
Pablo Ortiz Urraca (Comisión Permanente)
Mikel Pagola Tolosa
Ascensión Pastor Parres
Iván Pérez Hernández
Ana Puente Martínez (Comisión Permanente)
Ismael Redondo Rojo (Comisión Permanente)
Raimundo Rubio Carcedo (Comisión Permanente)
Fernando San Martín Gubia
Mikel Sarriegi Etxeberria
Aitor Sorriketa Larrea

Alfonso Tejedor García de Vicuña
Hegoa Ugalde Villa
Nerea Undabarrena de la Coterá
Lorea Unzilla Gorriti
Ana Valenziaga Zugasti
Imanol Zubizarreta Alegría

- **Parte hartu duten Kontseiluaren kide ohiak**

Aitor Bilbao Petralanda
Cristina Diez Redondo

- **Aholkulari teknikoa**

Ricardo Ojembarrena Martínez

1. atala. HEZKUNTZA SISTEMAREN PLANGINTZA

Sarrera

Eskolatzeko beharrak etorkizunera proiektatzerakoan kontuan hartu beharreko aldagaririk garrantzitsuenak jaiotza kopurua da. Matrikularen eskaintzaren auziari dagokionez, garrantzi berezia hartzen dute bi eta hiru urteko ikasleen irakasmailek, eskolatzeko irakasmaita horietan orokortzen baita; aurreko txostenean eskolatzeko beharren analisi sakonagoa gauzatu zen, eta oraingo honetan datuak eguneratu egin dira.


Mota guztietako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako programak atal batean sartu dira, eta gauza bera egin da ikasleen adierazle sozio-ekonomikoekin.

Ondorioen aurreko bi ataletan ikastetxe publikoetan erlijio katolikoa ikasten duten ikasleen kasua eta araubide bereziko irakaskuntzak aztertzen dira.

1.1. Jaiotza kopurua Euskadin


Gure inguruko autonomia erkidegoetan ez bezala, jaiotza kopurua maila garaian mantendu da, urtean 21.000 jaiotza inguruan. Grafikoa aztertzen badugu, jaiotza kopururik urrieneko aldia (1993-1996, urtean 16.000 jaiotza baino gutxiago) jaiotza kopururik gaur egun derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan edo unibertsitateko hasierako irakasmaitetan daudela ikus daiteke, eta beraz jaiotza kopuruaren ondorengo igoera etapa ezberdinetan banatzen da, geroago ikusiko dugun bezala.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin 1993tik aurrera




Hiriburuetan, Vitoria-Gasteizek goranzko erritmoa jarraitu du 2.500 jaiotzaren gainetik, Donostia maila apal samarretan geratu da, eta Bilbo apur bat jaitsi da 3.000 jaiotzaren goiko tartearen barnean.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadiko hiru hiriburuetan 1993tik aurrera



Gainerako udalerrien artean, Barakaldo, Santurtzi eta Etxebarri azken epe ertainean izan duten igoeragatik nabarmentzen dira.

Jaiotza kopuruaren bilakaera 1993tik aurrera igoera izan duten beste zenbait udalerritan



1.2. Eskola matrikula

Jarraian etapa guztietako matrikulari buruzko datuak jasotzen dira, eta matrikula hezkuntza etapetan nola banatzen den aztertzen da. Aurreko txostenetan bezala, matrikularen eskola-guneetako banaketa ere aztertzen da.

1.2.1. 0-2 tartea

Bi urte baino gutxiagoko ikasleak mota ezberdinetako ikastetxeetan eskolaturik daude; ikastetxe publikoen artean Haurreskolak partzuergoa eta udal haurreskolak

aipatu beharko genituzke, eta ikastetxe pribatuen artean, itunpeko ikastetxeak eta haurreskola pribatuak.

Guztira, bi urtetik beherako biztanleriaren % 39,1i eman zaio erantzuna, azken bi ikasturteotan 3,6 puntuko igoera gertatu delarik. Igoera batez ere ikastetxe publikoetan gertatu da (3,0 puntu). 0-2 tartean gauzatu den plangintza bakarria Familiei laguntzeko plana 2001-2005 izan da. Plangintza hark tarte horretako biztanleriaren % 40ko estaldura zuen helburutzat duela zazpi urterako, eta helburua orain bete da.

0-2 tarteko matrikularen bilakaera Euskadin, hezkuntza-sareen arabera.

	2009-10		2011-12		azken 2 ikasturteak	
	Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Δ Matrikula	Δ estaldura
Publikoa	6.138	% 17,4	7.116	% 20,4	978	% 3,0
Pribatua	6.357	% 18,1	6.390	% 18,7	33	% 0,6
Guztira	12.495	% 35,5	13.506	% 39,1	1.011	% 3,6


0-2 tarteko haurren lurraldeetako banaketari dagokionez, bi hezkuntza-sareak batera harturik, estaldura nahiko handiagoa da Gipuzkoan (% 45) Araban (% 37,6) eta Bizkaian (%35) baino. Sare publikoan estalduraren igoera handiagoa da Bizkaian (3,9 puntu). Ezarpenik txikiena lurralde horretakoa da (% 14,3), gainerako bi lurraldeetan % 25 baino handiagoa baita.

0-2 tarteko matrikularen bilakaera hiru lurraldeetan, hezkuntza-sareen arabera.

		2009-10		2011-12		azken 2 ikasturteak	
		Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Δ Matrikula	Δ estaldura
Araba	Publikoa	1.343	% 25,0	1.536	% 27,2	193	% 2,2
	Pribatua	595	% 11,1	586	% 10,4	-9	% -0,7
	Guztira	1.938	% 36,1	2.122	% 37,6	184	% 1,5
Bizkaia	Publikoa	1.877	% 10,6	2.504	% 14,5	627	% 3,9
	Pribatua	3.659	% 20,6	3.517	% 20,5	-142	% -0,1
	Guztira	5.536	% 31,2	6.021	% 35,0	485	% 3,8
Gipuzkoa	Publikoa	2.918	% 24,3	3.076	% 25,8	158	% 1,5
	Pribatua	2.103	% 17,5	2.287	% 19,2	184	% 1,7
	Guztira	5.021	% 41,8	5.363	% 45,0	342	% 3,2

Analisia zehatzagoa eginez, eskola-guneetako banaketan (1. mapa eta 1.2. eranskina) matrikula publikoaren urritasunik handiena duten eskola-guneak Bilbokoak eta Ezkerraldekoak dira. Bilboren kasuan, haurreskola berriak abian jarri diren arren, zortzi barrutietako lautan estaldura % 10ekoa baino txikiagoa da. Barakaldo, Trapaga eta Santurtziko udalerrietan goera antzerakoa da.

1. mapa. 0-2 tartea (0 eta 1 urteko haurrak). Eskola-gunean jaiotakoen artean, ikastetxe publikoetan matrikulatutako haurrenehunekoa. 2011-12ikasturtea



1.2.2. Bi urtekoen irakasmaila

Guztira, bi urteko haurren % 93,7 matrikulaturik dago, aurreko bi ikasturteekiko 0,7 puntuko igoera izan delarik. 0-2 tartean izan den bilakaeran ez bezala, bi urtekoen irakasmailan sare pribatuaren ezarpena handitu egin da —472 ikasle gehiago— eta sare publikoaren ezarpena, berriz, murriztu egin da —21 ikasle gutxiago—.

Bi urtekoen irakasmailako matrikularen bilakaera Euskadin, hezkuntza-sareen arabera

		2009-10		2011-12		Azken 2 ikasturteak	
		Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Δ Matrikula	Δ estaldura
Euskadi	Publikoa	11.011	% 53,5	10.990	% 52,5	-21	% -1,0
	Pribatua	8.154	% 39,6	8.647	% 41,3	493	% 1,7
	Guztira	19.165	% 93,1	19.637	% 93,8	472	% 0,7

Lurraldeetako banaketan, ikastetxe guztiak kontuan izanik, Bizkaia (% 91,5) gainerako lurraldeen azpitik geratzen da. Hezkuntza-sareetako bilakaerari dagokionez, Bizkaian eta Gipuzkoan joera bera ikusten da —sare pribatuan igoera eta sare publikoan jaitsiera korrelatiboa, batez ere Bizkaian—, baina Araban igoera bat gertatu da bi sareetan, bereziki sare publikoan.


Bi urtekoen irakasmailako matrikularen bilakaera hiru lurraldeetan, hezkuntza-sareen arabera

		2009-10		2011-12		Azken 2 ikasturteak	
		Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Δ Matrikula	Δ estaldura
Araba	Publikoa	1.912	% 60,9	2.077	% 64,4	165	% 3,5
	Pribatua	926	% 29,5	986	% 30,6	60	% 1,1
	Guztira	2.838	% 90,4	3.063	% 95,0	225	% 4,6
Bizkaia	Publikoa	5.263	% 50,8	5.169	% 49,0	-94	% -1,8
	Pribatua	4.196	% 40,5	4.484	% 42,5	288	% 2,0
	Guztira	9.459	% 91,4	9.653	% 91,5	194	% 0,1
Gipuzkoa	Publikoa	3.836	% 53,5	3.744	% 52,3	-92	% -1,2
	Pribatua	3.032	% 42,3	3.177	% 44,3	145	% 2,0
	Guztira	6.868	% 95,8	6.921	% 96,6	53	% 0,8


Eskola-gune bakoitzean, bertan jaiotako haurren artean eskola-gune horretako ikastetxeetan ehuneko zenbat eskolaturik dauden aztertzen badugu, batez bestekoarekiko (% 93,8) (2. mapa eta 1.3. eranskina) gorabehera handiak daudela ikusiko dugu. Alde batetik, zenbait eskola-gunetan matrikula bertan jaiotako haurren kopurua baino handiagoa da (Txorierri, Amorebieta, Uribarri, Abando...), eta horrek eskola-gune horietan itunpeko ikastetxeen eskaintza handia dela adierazten du.

Beste aldetik, zenbait eskola-gune eta barrutitan (Uribe-Kosta, Donostia-ekialdea, Ibaiondo eta Erandio) bi urteko haurren eskolatze-indizea % 75 baino

2. mapa. Bi urtekoen irakasmaila. Eskolatzeko indizea: 2009an jaiotakoen artean, eskola-guneko ikastetxeetan eskolatutakohaurren ehunekoak. 2011-12 ikast.



3. mapa. Bi urtekoen ikasgelen okupazio-tasa, eskola-guneen arabera. Ikastetxe guztiak. 2011-12 ikasturtea (gehieneko kopurua: 18 plaza ikasgelako)



txikiagoa da, eta are % 50 baino txikiagoa ere, Basurtu-Zorrotzan eta Errekalden gertatzen den bezala.

Adierazle hori ikasgelen okupazio-tasaren adierazlearekin lotzen bada (3. mapa eta 1.4 eranskina), horietako eskola-gune batzuetan, Ibaiondo eta Erandio kasu, plaza librerik ez dagoela ikusten da, eskola-guneko ikasgeletan, guztira, ikasgelako legezko gehieneko ikasle kopurua (18 ikasle, % 100eko okupazio-tasa) gainditzen baita.

Egoera hori 11 eskola-gunetan gertatzen da (Bilbo Handiko 9 eskola-gune, Vitoria-Iparraldea eta Ermua).

- **Bi eta hiru urtekoen irakasmaitan onartu ez diren matrikula eskabideak**

Zenbait eskola-gunetako plazen urritasunaren zeharkako adierazle bezala, eragin-esparruan eginak izan arren, lehen tokian hautatutako ikastetxean plazarik ez egoteagatik onartu ez diren matrikula-eskabideak erabiltzen dira.

2011-12 ikasturtean bi urtekoen irakasmaitan egoera hori matrikula-eskabideen % 1,1ean gertatu zen, eta hiru urtekoen irakasmaitan, % 0,7an, aurreko ikasturtean baino hein txikiagoan (1.5 eranskina).

Lehen tokian hautatutako ikastetxerako onartu ez diren matrikula-eskabideen kopurua handiagoa da itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino, 3/2 proportzioan.

Eragin-esparruan eginak izan arren, lehen tokian hautatutako ikastetxerako onartu ez diren matrikula-eskabideen kopurua. Bi eta hiru urtekoen irakasmaitak. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.


Irakasmaita	Hezkuntza-sarea	2010-11		2011-12	
		Onartu ez diren eskabideak	%	Onartu ez diren eskabideak	%
2 urtekoak	Publikoa	108	% 0,6	82	% 0,4
	Pribatua	167	% 0,9	125	% 0,6
	Guztira	275	% 1,4	207	% 1,1
3 urtekoak	Publikoa	74	% 0,4	32	% 0,2
	Pribatua	140	% 0,7	105	% 0,5
	Guztira	214	% 1,0	137	% 0,7

1.2.3. Ikasle kopuruaren bilakaera etapetan eta banaketa hezkuntza-sareetan

- **Haur Hezkuntzako 2. zikloa**


Ziklo horretako matrikula % 3,5 igo da azken bi ikasturteotan.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Ehunekoetan, sare publikoa 1,5 puntu hazi da azken bi ikasturteotan, % 51,8ra heldu delarik. Igoerarik handiena Araban gertatu da.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan. Azken hamarkadako bilakaera



- **Lehen Hezkuntza**


Lehen Hezkuntzako matrikula % 6,1 hazi zen 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean.

Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-sareetako banaketa ez da aldatu.


Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako matrikularen ehunekoa. Azken hamarkadako bilakaera



- **DBH**


Matrikularen goranzko joera sendotu da, biurtekoan % 3,9 igo baita.

DBHko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Sare publikoak goranzko joera mantendu du, oraindik % 46 hartzen duen arren.

DBHko ikastetxe publikoetako matrikularen ehunekoa. Azken hamarkadako bilakaera



Oinarrizko Hezkuntzako etapetan (Lehen Hezkuntza eta DBH), guztira, ikasleen % 49 ikastetxe publikoetan matrikulaturik dago, eta lurraldeetako banaketa heterogeneoa da (4. mapa eta 1.9 eranskina).

Hartara, zenbait eskola-gunetan (Txorierrri, Andoain, Abando, Uribarri, Cruces edo Amorebieta kasu) itunpeko ikastetxeetako matrikula % 70 baino handiagoa da, baina beste zenbaitetan (Igorre, Basurtu-Zorrotza, Arabako mendiak...) eskaintza publikoa baino ez dago, edo eskaintza publikoa % 75 baino handiagoa da (Hernani, Arrigorriaga, Uribe-Kosta, Galdakao, Basauri...)


- **Batxilergoa**

Jaitsaldi luzea izan ondoren, matrikula bi urte lehenagoko mailan mantendu da.

Batxilergoko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak




4. mapa. Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, eskola-guneen arabera. 2011-12



Guztira sare publikoko matrikulak apurka beherantz jarraitu du % 52,2raino

Batxilergoko ikastetxe publikoetako matrikularen ehunekoa. Azken hamarkadako bilakaera




- Lanbide Heziketa**

Lanbide Heziketaren multzoan ikasle kopurua % 7,3 igo da azken bi ikasturteotan, 27.647tik 29.697ra hazi delarik.


Igoerarik handiena (% 8,7) Erdiko Mailan gertatu da, aztertutako hamarkadako kopururik handiena lortu delarik.

Lanbide Heziketako Erdiko Mailako Zikloetako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak




Goi Mailan, ikasle kopurua handiagoa bada ere, igoera kualitatibo garrantzitsua baina apur bat apalagoa izan da (% 6,7). Matrikula duela hamar urteko balioetara hurbildu da.

Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-sareetako banaketari dagokionez, igoera ia guztia ikastetxe publikoetan gertatu da, ikastetxe publikoek Lanbide Heziketa osoko matrikularen % 57,1 hartu baitute.

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako matrikularen ehunekoa. Azken hamarkadako bilakaera



• **Etapaz guztiak**


Unibertsitatez kanpoko etapetan, guztira, matrikularen etengabeko haziera gertatu da 2003-04 ikasturteetik hona, urteko, batez beste, 7.000 matrikula gehiago izan direlarik, edo % 2ko haziera urtean.

Unibertsitatez kanpoko etapa guztietako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak.



Etapaz guztiak batera harturik, hezkuntza-sareetako banaketa antzerakoa da, matrikula sare publikoan apur bat, % 50,7raino, igo den arren.

Ikastetxe publikoetako matrikularen ehunekoa etapen arabera eta guztira. Azken hamarkadako bilakaera




1.2.4. Irakastereduen bilakaera

Familiak irakastereduen artean egiten duten hautaketak etengabeko bilakaeran jarraitzen du, honako ezaugarri hauek dituen:

- Eskaria euskalduntze trinkoko irakastereduen aldekoa da gero eta gehiago, batez ere D ereduaren aldekoa.
- Aukera hori nabariagoa da sare publikoan sare pribatuaren multzoan baino. Ikastolak salbuespena dira sare pribatuan, ia D eredia soilik eskaintzen baitute.
- Familiak eskolatzearen hasieran egiten duen hautaketa iraunkorra izaten da ondorengo ibilbide osoan zehar.


Hartara, 2011-12 ikasturtean, *ikastetxe guztiak* kontuan izanik, ikasleak hiru irakastereduetan nola banatu diren aztertzen badugu, Haur Hezkuntzako 2. zikloan ikasleen % 72 D ereduan eskolaturik dagoela ikusiko dugu, Lehen Hezkuntzan % 65 eta DBHn % 58. Esperientzian oinarriturik esan dezakegu Haur Hezkuntzako 2. zikloko oraingo D ereduko ikasleak Lehen Hezkuntzara eta DBHra heltzen direnean % 72 izango direla, puntu bat gora edo behera. Era berean, A ereduaren aldeko hautaketa gero eta minoritarioagoa da, eta % 5era bakarrik heltzen da

Ikastetxe guztiak. Ikasleen banaketa hiru irakastereduetan hezkuntza-etapan arabera. 2011-12 ikasturtea




Ikastetxe publikoetan, Haur Hezkuntzan D ereduak % 89 hartzen du, eta A ereduak % 2 baino ez. Batxilergoan, hiru ikasletarik bik euskaraz ikasten dute. Lanbide heziketan ez dago aldaketarik, ikasleen % 69k gaztelaniaz ikasten baitu.

Ikastetxe publikoak. Ikasleen banaketa hiru irakastereduetan hezkuntza-etapen arabera. 2011-12 ikasturtea



Ikastetxe pribatuen multzoan, B eta D ereduak pisu handia dute derrigorrezko hezkuntza-etapetan, eta etengabeko joera ikusten da D ereduaren aldera, irakasteredu horrek Haur Hezkuntzako 2. zikloan matrikulen % 54 hartzen duelarik. Batxilergoan D ereduak matrikulen % 41 hartzen du.


Ikastetxe pribatuak. Ikasleen banaketa hiru irakastereduetan hezkuntza-etapen arabera. 2011-12 ikasturtea



Irakastereduek lurraldeetan duten ezarpena aztertzeke, aurreko txostenetan erabili den euskalduntze indize bat erabili da. Indize horretan hiru irakastereduak (A, B eta D) 0-100 eskala bateko balio batera laburtzen dira. Eskola-gune bateko ikastetxe guztiek A ereduak bakarrik aukeratuko balute, balioa 0 litzateke; ikastetxe guztiek D ereduak aukeratuko balute, balioa 100 izango litzateke.

Balio hori kalkulatzeko DBH etapa aukeratu da, ikasturte batetik besterako aldaketarik handienak etapa horretan gertatzen direlako, eta, beraz, aurreko ikasturteetako datuekin konparazioak egiteko aukera ematen duelako (5. mapa eta 1.11 eranskina). Euskalduntze indizearen batez besteko balioa etapa horretan 72 da, 84 ikastetxe publikoetan eta 61 ikastetxe pribatuetan.

5. mapa. Euskalduntze indizea eskola-guneetan irakastereduen banaketaren arabera. DBHko ikasleak. 2011-12 ikasturtea



Indizearen banaketa geografikoan aipatu beharrekoa da, oro har, euskararen mapa soziologikoarekin bat datorrela. Euskalduntze trinkoko irakastereduen ezarpena astiroago hazten da Vitoria-Gasteizen, Arabako hegoaldean, Bilbo Handi osoan, eta, kasu bakan bezala, Ermuan.

Azterketa sakonago bat eginez, ikastetxeen eskolatzee-erritmoan ezberdintasun handiak ikusten dira biztanle helduen artean euskararen ezagupena eta erabilera urriak direneko eskola-guneen artean. Hartara, Bilbo Handiaren ingurunekeo eskola-gune batzuetan euskalduntze indizea Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa da —Basauri (82), Trapagan (80), Portugalete (75) eta Bilboko hiru barruti: Basurtu-Zorrotxa (97), Ibaiondo (75) eta Begoña (73)—, eta beste batzuetan, berriz, euskalduntzearen aurrerapena ikastetxeetan askoz motelagoa da, adibidez, Bilboko hiru barruti: Errekalde (31), Abando (40) eta Uribarri (53), eta Barakaldo (52), Leioa eta Getxo (54) eta Santurtzi (56). Bigarren multzo horretako udalerrri gehienetan eskaintza pribatua da nagusi.

1.2.5. Helduen hezkuntza (HH)

Helduen hezkuntza LOEren 66. eta 67. artikuluetan arautzen da, eta autonomia erkidegoaren esparruan pertsona helduentzako berariazko curriculumak finkatzen duen Oinarrizko Hezkuntzaren Aginduan (EHAA, 2008/11/25) garatzen da. DBHko graduak titulua lortu ez duten 18 urtetik gorako pertsonentzat pentsatuta dago, kasu batzuetan salbuespen gisa sarrerako adina 16 urteetara jaitsi daitekeen arren.

Irakaskuntza horien helburuak askotarikoak dira, ikasleen ezaugarrien arabera; hasierako ebaluazio bat oinarritzat harturik, ikasle bakoitzaren ibilbidea finkatzen da. Bi modalitate daude: hezkuntza arautua eta ez-arautua.

a) Helduen hezkuntza arautua

Helduen hezkuntza arautua hiru gradutako moduluak antolatuz dago:

- I. gradua, alfabetatze funtzionalera bideratua.
- II. gradua, ezagupenak eta konpetentzia orokorrak sendotzera bideratua.
- III. gradua, Graduak titulua lortzera bideratua.

Graduek normalean bi ikasturteko iraupena izaten dute, baina moldagarriak dira. Curriculumak hiru arloren inguruan finkatzen da: komunikazio arloa, gizarte arloa eta zientzia-teknologia arloa.

Helduen hezkuntza arautua 42 ikastetxetan ematen da. Horien arteko 32 publikoak dira, eta 19.591 ikasleen % 93,6 hartzen dute. Sexuen arteko banaketa % 50ekoa da.

HH arautuko ikastetxe eta ikasle kopurua sarearen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Talde kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>
Publikoak	32	730	18.332
Itunpekoak	10	46	1.259
Guztira	42	776	19.591

Ikaslerik gehienak I. eta III. graduetan daude.

HH arautuko ikasle kopurua lurraldeen eta graduen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>I. gradua</i>	<i>II. gradua</i>	<i>III. gradua</i>	<i>Guztira HHI arautua</i>
Araba	1.401	570	1.605	3.576
Bizkaia	3.586	2.357	4.094	10.037
Gipuzkoa	2.133	1.481	2.364	5.978
Euskadi	7.120	4.408	8.063	19.591

b) Helduen hezkuntza ez-arautua

Helburu funtzionalak eta askotarikok ditu, hainbat ikastaro eskaintzen direlarik: gaztelaniazko ikastaroak atzerritarrentzat, unibertsitaterako sarrera-proba prestatzeko 25 eta 45 urtetik gorakoentzat, goi mailako prestakuntza zikloetara sartzeko proba prestatzeko, eta euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, kultura orokorra eta abar ikasteko. Mota horietako ikastaro guztiak *Bizialdi osoko ikaskuntza* Europako Batzordearen programaren helburuetan sartzen dira, *Europa 2020 Estrategiaren* helburuen barruan.

2011-12 ikasturtean modalitate ez-arautuan 10.960 ikasle egon ziren matrikulaturik, haien arteko bi heren emakumezkoak zirelarik. Ikastetxe publikoetan bakarrik ematen da.

Helduen hezkuntza ez-arautua. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Talde kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>	<i>% emakumeak</i>
Araba	1	73	1.589	% 64
Bizkaia	14	302	5.952	% 72
Gipuzkoa	13	126	3.365	% 65
Euskadi	28	501	10.906	% 68

1.3. Ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak

Konpetentzien garapenari buruzko nazioarteko ikerketaren arabera, ikasleek gauzatzen duten ikaskuntzaren emaitzek korrelazio estatistikoa izaten dute euren egoera sozial, ekonomiko eta kulturekin. Beraz, jatorrizko gabeziak gainditu ahal izateko ezinbestekoa da agintariek eta hezkuntza-agentek egoera horiek ezagutzea.


Hori lortu nahian, aurreko txostenetan adierazle horien analisisa egin izan da, hezkuntza-sareen arabera eta banaketa geografikoaren arabera banaturik. Oraingo txosten honetan bi adierazle eguneratu dira: dirulaguntzadunen kopurua —adierazle ekonomiko hutsa— eta ikasle etorkinen ehunekoa —eragin ekonomikoak dituen adierazle sozio-ekonomikoa—.

Lehenengo azpiatalean eskola-adierazle horiek Euskadiko ekitatearen adierazle sozio-ekonomikoen argitan aztertzen dira (Enplegu eta Gizarte gaietako sailak egindako *Pobrezia eta gizarte-desberdintasunari buruzko 2012ko inkesta*).

1.3.1. Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunaren adierazleak Euskadin

Euskadiko pobreziaren egoera Espainia osoko egoerarekin edo Europar Batasuneko egoerarekin konparatu ahal izateko, pobrezia erlatiboaren bi adierazle erabiltzen dira. Lehenak, "Pobrezia erlatiboa (% 60)" medianaren % 60 baino diru-sarrera txikiagoak dituzten biztanleen ehunekoa adierazten du¹. Euskadin biztanleen % 15,4 dago egoera horretan, Europako batez bestekoa (% 16,4) baino hein txikiagoa, eta Espainiako batez bestekotik (% 21,8) oso urrun. Euskadin pobreziaren egoerak okerrera egin duela ikusten da adierazle horretan (0,6 puntu igo da). EB-27an ez da horrelakorik gertatzen, baina bai Espainian hein handiagoan (2,2 puntu igo da).


Pobrezia erlatiboa (% 60) Euskadin, Europan eta Espainian. 2008-2012 bilakaera



¹ Mediana zenbakizko banaketa batean erdiko balioa da, eta printzipioz ez da batez bestekoarekin bat etorri behar. Bost baliotako banaketa honetan (10, 10, 10, 20, 100), mediana erdiko balioa da, 10 (bi balio ezkerretan eta beste bi eskuinetan uzten ditu), baina batez bestekoa 15 da. Soldata bidezko diru -sarreraren kasuan, mediana batez bestekoa baino apalagoa izaten da, soldata txikien kopurua soldata handien kopurua baino handiagoa delako.

Bigarren adierazlea murriztaileagoa da, eta medianaren % 40 baino irabazkin apalagoa duten biztanleen ehuneko adierazten du. Egoera larriago horretan dago Euskadiko biztanleriaren % 3,5, Europako biztanleriaren % 5,6 eta Espainiako biztanleriaren % 10,1. Espainiako adierazleak okerrera egin du nabarmenki azken lau urteotan zehar.

Pobrezia erlatiboa (% 40) Euskadin, Europan eta Espainian. 2008-2012 bilakaera



Oro har, bi adierazleek erakusten dute Euskadin ekitate handiagoa dagoela Europako herrialde gehienetan baino.

Antzerako ideia erakusten dute *Giniren Kofizientea* eta *S80/S20 ratioa* izeneko desberdintasunaren adierazleak. Bigarren adierazlea ratio hau da: diru-sarrerarik handienak dituztenen % 20ren batez besteko diru-sarrera zati diru-sarrerarik txikienen % 20ren batez besteko diru-sarrera. Adierazleak zenbat eta balio handiagoa izan, txikiagoa izango da herrialdeko ekitatea, neurtzen duena desberdintasuna delako.

Euskadi ekitate nabariko herrialdea da, Europako batez bestekotik urrun samar dagoena, eta Espainiako batez bestekotik are urrunago oraindik.

Indicadores de desigualdad en Euskadi, Europa y España. Evolución entre 2008 y 2012.

	<i>Giniren kofizientea</i> ²			<i>S80/S20 ratioa</i> ³		
	2008	2010/2012	<i>Bilakaera</i>	2008	2010/2012	<i>Bilakaera</i>
Euskadi	25,2	25,3	0,1	3,6	3,7	0,1
UE-27	30,8	30,5	-0,3	5,0	5,3	0,3
España	31,3	34,0	2,7	5,4	6,8	1,4

Euskadin gauzatzen diren ikerlanen barruan, bi adierazle nagusi erabiltzen dira: *Mantentze-pobrezia*⁴, biztanleriaren % 7,3k pairatzen duena, eta *Pobrezia erreala*, zorrotzagoa, biztanleriaren % 5,3k pairatzen duena.

² Irabazkinak biztanleriaren artean nola banatzen diren kalkulatzeko formula da. 0tik 1erako balio bat ematen du: 0 berdintasun osoko egoera litzateke, eta 1 desberdintasunik handieneko egoera litzateke.

³ S80/S20 ratioa: irabazkinik handienetakoen % 20ren batez besteko irabazkinak zati irabazkin txikienetakoen % 20ren batez besteko irabazkinak.

⁴ Mantentze-pobrezia, Eustaten definizioaren arabera, epe laburrean oinarritzko beharrak (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) asetzeko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio.

Aipatu beharrekoa da egoera horiek nola eragiten dieten gazteen kolektiboei, ikastetxeetako ikasleei. Hartara, 15 urtetik beherako biztanleen kasuan, arestian aipatutako adierazleen balioak % 11,7ra eta % 9,5era heltzen dira, hurrenez hurren.

Pobreziaren eragina Euskadiko biztanlerik gazteenen artean. 2008-2012 bilakaera.

	<i>Mantentze pobrezia</i>			<i>Pobrezia erreala</i>		
	2008	2012	<i>Bilakaera</i>	2008	2012	<i>Bilakaera</i>
15 urtetik beherako biztanleak	% 9,1	% 11,7	% 2,6	% 7,4	% 9,5	% 2,1
15-24 urte bitarteko biztanleak	% 6,9	% 8,4	% 1,5	% 6,9	% 7,2	% 0,3
Biztanleria osoa	% 5,7	% 7,3	% 1,6	% 4,2	% 5,3	% 1,1

Eustatek eskualdeka egindako banaketa geografikoan, pobreziaren eragina bereziki garrantzitsua da Bilbon, eta hein apalagoan Vitoria-Gasteizen eta Ezkerraldean. Eskualde horiek oso balio handiak dituzte bi adierazletan, eta Bilbon eta Vitoria-Gasteizen balioek batez bestekoak baino hein handiagoan jo dute okerrera. 2008. urtetik hona pobrezia Tolosa-Goierri hazi da gehien.

Pobreziaren eragina Euskadineskualdeen arabera. 2008-2012 bilakaera

	<i>Mantentze pobrezia</i>			<i>Pobrezia erreala</i>		
	2008	2012	<i>Bilakaera</i>	2008	2012	<i>Bilakaera</i>
Bilbo	% 10,1	% 10,6	% 0,5	% 7,6	% 9,5	% 1,9
Ezkerraldea	% 5,8	% 8,0	% 2,2	% 5,6	% 5,8	% 0,2
Vitoria-Gasteiz	% 6,1	% 7,4	% 1,3	% 4,4	% 6,2	% 1,8
Euskadi	% 5,7	% 7,3	% 1,6	% 4,2	% 5,3	% 1,1
Tolosa-Goierri	% 2,1	% 6,8	% 4,7	% 1,3	% 4,5	% 3,2
Donostialdea	% 4,7	% 6,9	% 2,2	% 3,1	% 4,1	% 1,0
Eskuinaldea	% 5,3	% 5,5	% 0,2	% 3,0	% 5,1	% 2,1
Aiala	% 4,3	% 6,4	% 2,1	% 2,3	% 2,2	% -0,1
Bizkaia-Kosta	% 3,2	% 6,9	% 3,7	% 2,0	% 2,9	% 0,9
Deba Behea	% 3,4	% 4,9	% 1,5	% 1,8	% 2,2	% 0,4
Duranguesado	% 5,3	% 3,8	% -1,5	% 2,8	% 2,4	% -0,4
Deba Garaia	% 1,2	% 2,5	% 1,3	% 0,4	% 2,0	% 1,6

1.3.2. Dirulaguntzadun ikasleak

Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoak adierazle ekonomiko hutsa da, irabazkinak familiako kide kopuruaren arabera kontuan hartzen dituena.

Material didaktikorako dirulaguntzen kasuan, lortzeko baldintzak erraztu egin dira azken urteotan. Kontseilu honen 2005-2006 Txostenean adierazle honen azterketa bat egin zen 2004-05 ikasturteko datuekin. Garai hartan horrelako dirulaguntzak (EHAA, 2004/09/01) 28.507⁵ € baino gutxiagoko diru-sarrerak zituzten lau kideko

⁵ 2011-12 ikasturtera eguneraturik, 34.009 € (zazpi urteetako KPIaren % 19,3ko igoera metatua)

familiek lor zitzaketen. 2011-12 ikasturteko deialdian (EHAA, 2011/08/31) diru-sarreraren gehieneko muga 40.796 €tara igo da, horrek onuradunen kopurua handitzea ekarri duelarik.

Izan ere, unibertsitatez kanpoko irakasmailetan⁶ onuradunak guztira ikasleen % 29,2 ziren, eta orain % 37,8ra heltzen dira. Ikastetxe publikoetan, ikasleen maila ekonomiko apalagoaren ondorioz, dirulaguntzadunak ikasleen % 44,4 dira. Itunpeko ikastetxeen bi elkarte Euskadiko batez bestekoan daude (Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak (BEI), % 37,7) edo oso hurbil (Kristau Eskola, % 36,1). Partaide (% 29,7) batez bestekotik behera geratzen da, eta gainerako elkarteak, beherago oraindik, % 20ra heltzen ez baitira.

Dirulaguntzadun ikasleen kopuruaren bilakaera 2004-05 eta 2011-12 ikasturteen artean, hezkuntza-sareen arabera eta elkarte nagusietan


Elkartea	2004-05			2011-12			Aldaketa 7 urtetan
	Ikasleak guztira (3-19)	Dirulaguntza- dunak guztira	Dirulaguntza- dunak %	Ikasleak guztira (2-19)	Dirulaguntza- dunak guztira	Dirulaguntza- dunak %	
Kristau Eskola	81.867	22.178	27,1	85.760	30.926	36,1	9,0
Partaide	30.905	6.349	20,5	38.766	11.498	29,7	9,1
Beste elkarte batzuk	34.782	5.318	15,3	40.059	8.766	21,9	6,6
Beste kooperatiba batzuk	13.476	1.755	13,0	13.943	2.711	19,4	6,4
Elizbarrutiko ikastetxeak Bizkaia	6.876	1.891	27,5	7.908	2.983	37,7	10,2
Gainerakoak	14.430	1.672	11,6	18.208	3.072	16,9	5,3
GUZTIRA PRIBATUA	147.554	33.845	22,9	164.585	51.190	31,1	8,2
SARE PUBLIKOA	135.295	48.654	36,0	169.312	75.180	44,4	8,4
2 SAREAK GUZTIRA	282.849	82.499	29,2	333.897	126.370	37,8	8,7

Eskola-maparen guneen araberako banaketa geografikoan (6. mapa eta 1.15 eranskina), Errekalde, Basurtu-Zorrotza, Arabako mendiak, Sestao, Trapaga, Begoña, Ermua eta Donostia-ekialdea eskola-guneetako ikastetxeetan ikasleen % 55ek baino gehiagok dirulaguntza dute, batez bestekoa % 38 delarik. Beste muturrean, Txorierrri, Arrasate eta Donostia-ekialdea eskola-guneetan dirulaguntzadun ikasleak ez dira heltzen % 25era.


Dirulaguntzadun ikasleak, diru-sarrera apalagoak, bi hezkuntza-sareetan nola banatzen diren aztertzen bada, Euskadi osoan hezkuntza-sareen artean 13 puntuko aldea dagoela ikus daiteke (ikastetxe publikoetako batez bestekoa % 44 da, eta ikastetxe pribatuetan, % 31). Aldagai geografikoa kontuan hartzen bada, banaketa horren ekitate maila ikus daiteke eskola-guneetan (7. mapa eta 1.16 eranskina).

⁶ 2011-12 ikasturteko datuetan bi urteko ikasleak sartzen dira, baina 2004-05 ikasturteko datuak hiru urteko ikasleekin hasten dira.

6. mapa. Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzako etapetan eskola-guneen eta barrutien arabera. 2011-12 ikasturtea.



7. mapa. Hezkuntza-sareen arteko aldea dirulaguntzadun ikasleen ehunekoaneskola-guneen eta barrutien arabera. 2011-12 ikasturtea.



Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoari dagokionez, bi hezkuntza-sareen arteko aldeak batez bestekoa baino bi aldiz handiagoak –edo gehiago– dira Txurdiragan, Txorierrin, Vitoria-hegoekialdean, Crucesen eta Galdakaon, eta beraz eskola-gune horietan ekitatea oso txikia da. Kontrako egoeran daude Errekalde, Erandio, Bermeo, Arrigorriaga, Urola Erdia eta Vitoria-mendebalde, eskola-gune horietan itunpeko ikastetxe publikoek baino dirulaguntzadun ikasleen ehuneko handiagoa hartzen dutelako.

Azken zazpi urteotako bilakaera eskola-guneen arabera aztertzen badugu, ikasleen egoera ekonomikoaren okerragotzea ikusten da zenbaitetan (Araba oro har, Errenteria, Tolosa eta Bilboko Errekalde barrutia), eskola-gune horietan dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa batez bestekoa baino hein handiagoan hazi baita.

Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoaren bilakaera 2004-05 eta 2011-12 ikasturteen artean, gehien eta gutxien hazi deneko eskola-guneetan.

	2004-05 %	2011-12 %	7 urtetako bilakaera
141 Ekialdeko lautada	% 30	% 50	% 20
125 Araba-mendeb..	% 28	% 47	% 19
131 Arabako Errioxa	% 31	% 49	% 18
124 Arabako mendiak	% 47	% 64	% 17
B-7 Errekalde	% 60	% 76	% 16
121 Vitoria-mendeb.	% 28	% 42	% 14
281 Errenteria	% 40	% 53	% 13
122 Vitoria-iparrald.	% 29	% 41	% 12
251 Tolosa	% 23	% 35	% 12
Euskadi	% 29	% 38	% 9
352 Basauri	% 48	% 53	% 5
422 Portugalete	% 37	% 42	% 5
423 Santurtzi	% 45	% 49	% 4
312 Urdaibai	% 29	% 33	% 4
333 Ermua	% 56	% 58	% 2

1.3.3. Ikasle etorkinak

Ikasle etorkinen ehunekoa apur bat jaitsi zen 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean, Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikasle guztien % 8,1etik % 7,6ra pasa zelarik. Ikastetxe publikoetan ikasle etorkinak % 10,3 dira, eta itunpeko ikastetxeen artean alde nabaria dago Kristau Eskola (% 6,7) eta Partaide (% 2,7) elkarteen artean. Gainerako ikastetxe pribatuetan (% 3) Bizkaiko Elizbarrutiko Eskoletako (BIE) ikasleen % 4 etorkinak dira.

Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikasle etorkinen ehunekoa hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 ikasturtea

	2009-10	2011-12			Bilakaera 2 urtetan
	<i>Ikasle etorkinak</i> %	<i>Ikasle etorkinak</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Ikasle etorkinak</i> %	
Publikoak	% 11,0	9.618	93.547	% 10,3	% -0,7
Kristau Eskola	% 7,6	3.680	54.890	% 6,7	% -0,9
Partaide	% 2,7	671	24.904	% 2,7	% 0,0
Gainerako pribatuak	% 2,7	566	19.091	% 3,0	% 0,3
Ikastetxe guztiak	% 8,1	14.535	192.432	% 7,6	% -0,5

Banaketa geografikoan (8. mapa eta 1.19 eranskina), bi sareak batera harturik, Errekalde, Arabako mendiak, Basurtu-Zorrotza, Vitoria-iparralde eta Ibaiondo eskola-guneetan ikasle etorkinak % 14 baino gehiago dira, baina beste muturrean, berriz, Txorierri, Trapaga, Galdakao, Kosta, Tolosa eta Astigarraga eskola-guneetan, % 4ra ez dira heltzen.

Eskola-gune bateko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan matrikulatutako ikasle etorkinen ehunekoen arteko erlazio aritmetikoari hezkuntza-sareen arteko Desoreka Indize deitu ohi zaio. Euskadi osoan 2011-12 ikasturtean zatiki hori 2,1 izan zen, ikastetxe publikoetako ehunekoa (% 10,3) ikastetxe pribatuetakoaz (% 5,0) zatitzearen emaitza. Aipatu beharrekoa da desoreka indizea apur bat igo dela duela bi ikasturtetatik (2,0) hona.


Herririk jendeztatuenen artean, Getxo eta Leioa (5,6) eta hein apalagoan Vitoria-Gasteiz (3,1), nabarmentzen dira banaketaren desoreka handiagatik, Donostiak (1,3), berriz, banaketa orekatuagoa duelarik.

Ikasle etorkinen ehunekoa Euskadiko 6 herririk handienetan, hezkuntza-sareen arabera eta banaketaren desoreka indizearen arabera. 2011-12 ikasturtea


	2009-10	2011-12			Desoreka indizea
	<i>Desoreka indizea</i>	<i>Ikastetxe publikoetan</i>	<i>Ikastetxe pribatuetan</i>	<i>Ikastetxe guztietan</i>	
Bilbo	1,9	% 16,2	% 8,3	% 10,6	2,0
Vitoria-Gasteiz	3,3	% 18,7	% 6,0	% 18,6	3,1
Donostia	1,5	% 6,9	% 5,0	% 5,7	1,4
Barakaldo	1,7	% 11,2	% 6,6	% 8,8	1,7
Getxo + Leioa	5,3	% 13,4	% 2,4	% 6,5	5,6
Euskadi	2,0	% 10,3	% 5,0	% 7,6	2,1

Eskola-guneak kontuan izanik (9. mapa eta 1.20 eranskina), batzuetan (Portugalete, Abando, mendebaldeko Araba, Leioa-Getxo, Andoain, Amorebieta, Vitoria-hegoekialdea eta Mungia) desoreka indizeak 4 baino handiagoak dira, eta beste batzuetan (Hernani, Arrigorriaga, Bermeo eta Urdaibai), berriz, 11 eskola-guneren multzo batean, ikasle etorkinen tasa handiagoa da itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino.

8. mapa. Ikasle etorkinen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eskola-guneen arabera. Ikastetxe guztiak. 2011-12 ikasturtea.



9. mapa. Desoreka indizea Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen hezkuntza-sareetako banaketan eskola-guneen arabera. 2011-12 ikasturtea



- **Ikasle etorkinen banaketa jatorrizko herrialdearen arabera**

Oinarrizko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eskolatutako ikasle etorkinen ia erdia (% 47) Hego Amerikako herrialdeetako da, eta guztira % 56 amerikar kontinentetik dator. Bigarren tokian Europa dago (% 22; % 17 Europar Batasuneko), eta gero Afrika (% 20; % 15 Ipar Afrikakoa).

Ikasle etorkinak hezkuntza-sareetako ikastetxeetan banatu ondoren, jatorrizko herrialdeetako ikasleen presentzia azter daiteke hezkuntza-sare bakoitzari dagokion ikasle etorkinen tasaren arabera.

Hartara, ikasle etorkinen % 66 ikastetxe publikoek eskolatuzen dute, Ipar Afrikako ikasleen % 82 eta Afrikako gainerako aldeetako ikasleen % 77 hartzen dutelarik.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinak, jatorrizko kontinenteen arabera eta hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikasle etorkinak</i>		<i>Publikoa</i>	<i>Kristau Eskola</i>	<i>Partaide</i>	<i>Gainerako pribatua</i>
Erdialdeko Amerika	860	% 6	% 60	% 31	% 7	% 2
Ipar Amerika	120	% 1	% 42	% 31	% 7	% 21
Hego Amerika	6.896	% 47	% 62	% 32	% 3	% 3
Asia	983	% 7	% 67	% 25	% 4	% 4
Ipar Afrika	2.166	% 15	% 82	% 9	% 6	% 2
Ozeania	5	% 0	% 20	% 40	% 0	% 40
Gainerako Afrika	662	% 5	% 77	% 17	% 4	% 3
Gainerako Europa	345	% 2	% 61	% 28	% 4	% 6
Europar Batasuna	2.497	% 17	% 66	% 20	% 7	% 7
Guztira (%)		% 100	% 66	% 25	% 5	% 4
Guztira (ikasle kopurua)	14.535		9.618	3.680	671	566

Kristau Eskola elkarteko ikastetxeek ikasle etorkin guztien % 25 eskolatuzen dute, batez ere Amerikatik datozen ikasleak (% 32), baina Ipar Afrikako ikasleen % 9 bakarrik.

Partaide elkarteak ikasle etorkin guztien % 5 eskolatuzen du, batez ere europar jatorrikoak (% 7). Gainerako ikastetxe pribatuek ikasle etorkin guztien % 4 eskolatuzen dute, batez ere Ipar Amerikakoak (% 21).

Europar Batasunetik datozen ikasleen kasuari gagozkiolarik, horien arteko ia bi heren (% 64) errumaniar jatorrikoak dira eta % 19 portugaldar jatorrikoak. Ikasle horiek hein handi batean ikastetxe publikoetan eskolaturik daude.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinak, Europar Batasuneko herrialdeen arabera eta hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikasle etorkinak (guztira)</i>		<i>Publikoa</i>	<i>Kristau Eskola</i>	<i>Partaide</i>	<i>Gainerako pribatua</i>
Errumania	1.588	% 64	% 70	% 20	% 8	% 2
Portugal	473	% 19	% 72	% 19	% 6	% 2
Bulgaria	83	% 3	% 60	% 31	% 7	% 1
Alemania	65	% 3	% 22	% 9	% 3	% 66
Frantzia	64	% 3	% 22	% 25	% 2	% 52
Erresuma Batua	54	% 2	% 33	% 26	% 7	% 33
Italia	46	% 2	% 59	% 28	% 2	% 11
EBko gainerako herriald.	124	% 5	% 55	% 17	% 6	% 23
Guztira (%)		% 100	% 66	% 20	% 7	% 7
Guztira (ikasle kopurua)	2.497		1.645	510	173	169

Banaketa geografikoari dagokionez, Ipar Afrikatik datozen ikasleak Arabako ikasle etorkinen % 29 dira, eta Euskadi osoko ikasle etorkinen % 15. Hego Amerikatik datozen ikasleak Bizkaiko ikasle etorkinen % 54 dira, eta Euskadi osoan ikasle etorkinen % 45. Gipuzkoan ikasle etorkinen multzorik handiena Europar Batasunetik datorrena da (% 20), Euskadi osoan multzo hori ikasle etorkin guztien % 17 delarik.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinak lurraldeen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikasle etorkinak (guztira)</i>		<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>
Erdialdeko Amerika	860	% 6	% 4	% 3	% 12
Ipar Amerika	120	% 1	% 0	% 1	% 2
Hego Amerika	6.896	% 47	% 42	% 54	% 40
Asia	983	% 7	% 6	% 7	% 8
Ipar Afrika	2.166	% 15	% 29	% 10	% 12
Ozeania	5	% 0	% 0	% 0	% 0
Gainerako Afrika	662	% 5	% 4	% 6	% 3
Gainerako Europa	345	% 2	% 3	% 1	% 4
Europar Batasuna	2.497	% 17	% 12	% 18	% 20
Ikasleak guztira (multzo bakoitzeko % 100)	14.535	% 100	3.228	7.283	4.024

- **Atzerriko ikasleak beste irakaskuntza batzuetan**

Beste irakaskuntza batzuetan ikasle etorkinen presentzia oso handia da. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programetan (HLPP) adibidez ikasle etorkinak % 37 dira, horien presentzia bi urte lehenagotik zazpi puntu hazi delarik.

HLPP programetako ikasle etorkinen kopuruaren bilakaera eta ehunekoa lurraldeen arabera 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean

	2009-10		2011-12	
Araba	242	% 34	239	% 37
Bizkaia	858	% 31	1.053	% 39
Gipuzkoa	246	% 24	357	% 34
Euskadi	1.346	% 30	1.649	% 37

Helduen hezkuntzan, irakaskuntza arautuetan, ikasle etorkinak ikasle guztien % 39 dira. Helburu nagusitzat alfabetatzea duen I. graduaren ikasle etorkinen ehunekoa askoz handiagoa da, % 78ra heltzen delarik.

Helduen Hezkuntza arautuko atzerritar ikasleen kopurua eta ehunekoa lurraldearen arabera eta graduaren arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>I. gradua</i>		<i>II. gradua</i>		<i>III. gradua</i>		<i>HHI arautua guztira</i>	
Araba	1.144	% 72	236	% 41	375	% 23	1.755	% 23
Bizkaia	2.704	% 75	338	% 14	618	% 15	3.710	% 48
Gipuzkoa	1.697	% 80	229	% 15	274	% 12	2.200	% 29
Euskadi	5.545	% 78	853	% 19	1.267	% 16	7.665	% 39


Helduen Hezkuntza ez-arautuan, berriz, ikasle etorkinen ehunekoa % 6 baino ez da.

1.4. Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak

LOEren garapenean, Hezkuntza Sailak abian jarri du *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016*, ohiz kanpoko hezkuntza-erantzuna behar duten ikasleak barne hartzen dituena.

1.4.1 Esparruaren definizioa eta baliabideak

Plan estrategikoa askotariko ikasleak barne hartzen ditu:



Berariazko hezkuntza-erantzunaren xedea ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik gehien garatu ahal izatea da, eta, edozein kasutan ere, ikasle guztientzako finkatutako helburu orokorrak betetzea.

Nahiz eta LOEk definitzen dituen ikasle-multzo horiek ahulenak izan eta gizarte eta hezkuntza-baztertzea pairatzeko arrisku handia eduki, hezkuntza inklusibo edo muintzaren kontzeptua zabalagoa da, eta bere helburua ikasle guztiei euren eskola-inguruan bertan ikasteko aukera errealak eskaintzea da.

Lehen bi multzoetako ikasleek, hots, hezkuntza premia bereziak (h.p.b.) dituztenek eta ikasteko zailtasunak dituztenek, banako laguntza jasotzen dute Pedagogia Terapeutikoko (PTE) eta Entzumena eta Hizkuntzako (ALE) espezialistengandik. Gainera, h.p.b.-ko ikasleek, behar dutenean, beste espezialista batzuen laguntza ere izan dezakete: Itsuen baliabidetegia (IBT), logopedak, berritzeguneetako talde multiprofesionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak eta osasun-hezkuntzako zentroak.

Gainera, beste lau multzoetako ikasleek askotariko baliabideak ere izaten dituzte: Hizkuntza indartzeko irakasleak (PRL), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloan curriculum ezberdinak eratzeko programak, errefortzu eta laguntza programak (PROA) eta hezkuntza-errefortzu proiektuak (PRE).

1.4.2. Hezkuntza Bereziko gelak

PTE eta ALEko espezialista kopurua administrazioan *Hezkuntza Bereziko gela irekiak* izeneko atalaren arabera kalkulatzen da. LOEk 73.2 artikuluan honela dio: "espezialista kopurua finkatzeko irizpideak berdinak izango dira ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan".

Gainerako ikaskideengandik aparte (*Hezkuntza Bereziko gela itxiak* deitutakoetan) eskolatzen diren ikasle bakarrak adimen urritasun larria dutenak dira.

- **Hezkuntza bereziko gela irekiak**

Lehen Hezkuntza eta DBH etapetan guztira gela irekiak 1.258 dira, ikasgela guztien % 13,5. Ikastetxe publikoetako gela irekiak ikasgela guztien % 16,2 dira, eta ikastetxe pribatuen multzoan, % 10,2, Kristau Eskola elkarteetan gela irekien ehunekoa apur bat handiagoa delarik (% 11,2).

Oinarrizko Hezkuntzako hezkuntza bereziko gela irekien ehunekoa, hezkuntza-sareen arabera eta hezkuntza-elkarteen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>h.p.b.-ko gela irekiak</i>	<i>Gela arruntak</i>	<i>h.p.b.-ko gela irekiak (%)</i>
Ikastetxe publikoak	817	5.017	% 16,3
Ikastetxe pribatuak guztira	441	4.309	% 10,2
Kristau Eskola	265	2.374	% 11,2
Partaide	113	1.154	% 9,8
Gainerako elkarteak	63	781	% 8,1
Guztira	1.258	9.326	% 13,5

- **Hezkuntza bereziko gela itxiak eta zereginen ikaskuntzarako gelak**

Beste alde batetik, adimen urritasun larria duten ikasleak daude, ohiz kanpoko hezkuntza-erantzuna behar dutenak. Erantzun horren barruan curriculumari dagozkion neurri bereziak edota laguntza pedagogiko jakinak sartzen dira, ikasle horiek adimenaren aldetik eta egokitze ahalmeneren aldetik muga nabariak dituztelako. Ondorioz, ikasle horiek ohiko ikastetxeetan eskolatu ahal izango dira gela iraunkorretan ("itxiak") edo hezkuntza bereziko ikastetxeetan.

Ildo berean, derrigorrezkoaren osteko hezkuntzan adimen-atzerapenari lotutako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Lanbide Heziketako

ikastetxeetako Zereginen Ikaskuntzarako Geletan (ATT) eskolatzen dira. Gela horien helburu nagusia lanerako eta bizitza aktiborako prestakuntza sustatzea da.

Horrelako gela bakoitzak zenbait espezialista eta hezkuntza-laguntzako teknikari dauka. Bi mota horietako geletan mila ikasleri baino apur bat gehiagori eman zaio erantzuna.

Hezkuntza Bereziko gela itxietako eta zereginen ikaskuntzarako geletako ikasle kopurua. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Ikastetxe pribatuak</i>	<i>Guztira</i>
HBko gela itxiak - Hasierako irakaskuntzak	119	330	449
HBko gela itxiak - DBH	128	93	221
Zereginen Ikaskuntzarako Gelak (ATT)	173	254	427
Guztira	420	677	1.097

1.4.3. Curriculum anitzeko ikasleak

Curriculum anitzeko ikasleak DBHko 3. eta batez ere 4. mailakoak dira, eta curriculumuma egokiturik dute. Ikastalde txikietan eskolatzen dira, eskola graduatu titulurako prestaketan aurreratu ahal izan dezaten.

Ziklo horretako ikasle guztien % 5,7 dira, gehiago ikastetxe publikoetan (% 8,7) Kristau Eskolan (% 4,6) eta gainerako ikastetxe pribatuetan baino, azken horietan % 2ra heltzen ez baitira.

Curriculum anitzeko ikasleak hezkuntza-sareen arabera eta hezkuntza-elkarteen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Curriculum anitzeko ikasleak</i>	<i>DBHko 2. zikloko ikasleak guztira</i>	<i>Curriculum anitzeko ikasleak (%)</i>
Ikastetxe publikoak	1.322	15.128	% 8,7
Ikastetxe pribatuak guztira	611	18.744	% 3,3
Kristau Eskola	502	10.879	% 4,6
Partaide	46	4.369	% 1,1
Gainerako elkarteak	63	3.496	% 1,8
Guztira	1.933	33.872	% 5,7

1.4.4. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)

Ikasle multzo honen bilakaerak ez du ia aldaketarik izan azken bi ikasturteotan, ikastalde kopurua % 10 murriztu bada ere.

HLPPko ikasle, ikastalde eta ikastetxe kopurua hezkuntza-sareen arabera. 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen arteko bilakaera

	<i>Ikastetxe kopurua</i>		<i>Talde kopurua</i>		<i>Ikasle kopurua</i>	
	2009-10	2011-12	2009-10	2011-12	2009-10	2011-12
Itunpekoak eta elkarteak	33	33	173	167	2.068	2.151
Udal ikastetxeak	30	27	194	174	2.204	2.155
Bestelako publikoak	6	7	18	11	187	98
Guztira	69	67	385	352	4.459	4.404

Adinari dagokionez, aurreko txostenak dokumentatu zuen HLPP programetan matrikulatutako ikasleak Euskadi osoko 16 eta 17 urte bitarteko biztanleen % 10 zirela.

Aztertzen ari garen 2011-12 ikasturtean adin horretako ikasleak jaio ziren urteak, 1994 eta 1995, aztertutako denbora tartean jaiotza tasarik txikiena izan duten urteak izan dira. Beraz, pentsa daiteke adin horietako ikasleak % 10 izatetik % 11 izatera pasa direla.

Lurraldeen araberako banaketan, Gipuzkoa batez bestekotik (% 8) behera geratzen da, bertako biztanleriaren maila sozio-ekonomiko altuagoarekin bat datorrelarik.

Udalerrri, ikastetxe, ikastalde eta ikasle kopurua HLPP programetan lurraldeen arabera. 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen arteko bilakaera eta eragina 16-17 urteko ikasleengan.

	<i>Udalerrri kopurua</i>		<i>Ikastetxe kopuruas</i>		<i>Talde kopuruas</i>		<i>Ikasle kopurua</i>		<i>Eragina 16-17 urteko biztanlerian</i>
	2009-10	2011-12	2009-10	2011-12	2009-10	2011-12	2009-10	2011-12	
Araba	6	6	15	14	57	50	712	643	% 11
Bizkaia	19	20	32	31	238	213	2.736	2.716	% 12
Gipuzkoa	13	14	22	24	90	89	1.011	1.045	% 8
Euskadi	38	40	69	69	385	352	4.459	4.404	% 11

Bilboren kasuan tasa altuagoa da (% 17), agian inguruko eskola-guneetako eskaintza urriaren eraginez.

HLPPko ikastetxeetan matrikulaturik 150 ikasle baino gehiago duten udalerrriak. 2011-12 ikasturtea

	2009-10	2011-12	16 urteko biztanleria (%)
Bilbao	1.250	1.314	% 17
Vitoria-Gasteiz	569	521	% 10
Donostia	395	421	% 11
Sopuerta	125	151	--
Barakaldo	129	145	--
Durango	135	144	--

1.4.5. Errefortzu, Orientabide eta Laguntzarako Programak (PROA)

Hezkuntza Ministerioak eta autonomia erkidegoek elkarlanean gauzatutako proiektua da, maila sozio-ekonomikoaren aldetik desabantaila-egoeran dauden ikasleei laguntzeko xedea duena.

Laguntza programak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailan gauzatzen dira, eta euren helburua ikasleen hezkuntza-aukerak hobetzea da. Eskolaz kanpoko orduetan antolatzen dira begiraleen edo ikastexeko irakasleen laguntzaz. 2011-12 ikasturtean 123 ikastetxek hartu zuten parte programa horietan.

Bigarren Hezkuntzako errefortzu eta laguntzarako programak ikastetxeentzat beraientzat dira, eta euren helburu bikoitza hezkuntza emaitzak hobetzea eta ikastetxearen antolamendua hobetzea da, horretarako aniztasunaren erantzunari, irakasleen koordinazioari eta familiekiko eta ingurunearekiko harremani zuzendutako estrategiak erabiltzen direlarik. 2011-12 ikasturtean 14 ikastetxek hartu zuten parte programa horietan.

Programa osoan, guztira, 92 ikastetxek parte hartetik 137 ikastetxek parte hartzera pasa da.

PROA programen bilakaera 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean. Ikastetxe eta ikastalde kopurua.

PROA modalitateak		2009-10		2010-2011		2011-2012	
		ikastetx.	taldeak	ikastetx.	taldeak	ikastetx.	taldeak
Laguntza	Lehen H.	50	107	68	144	77	167
	Bigarren H.	30	70	41	95	46	106
Errefortzua (Bigarren H.)		12	66	14	71	14	71
PROA guztira		92	243	123	310	137	344

1.4.6. Eskolatzeko Osagarriko Programak (EOP)

Eskolatzeko osagarriko programetan ohiko hezkuntza-errefortzuak jasotzeko egoeran ez dauden eta HLPP programetara sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak sartzen dira. Ikasle horiek, jatorrizko ikastetxearekiko harremanak apurtu gabe, beste ikastetxe batean —publikoa edo itunpekoa— eskolatzen dira.

Programa horietako ikasle kopurua aurreko programetako ikasle kopurua baino nahiko txikiagoa da, 457 ikasle 2009-10 ikasturtean.

1.5. Erlijio katolikoa hautatzen duten ikasleak

Erljio katolikoaren irakaskuntza LOEren bigarren xedapen osagarrian finkatzen da, bere lehen atalean honela dioelarik:

"Erljio katolikoaren irakaskuntza Vatikanok eta Espainiako estatuak Irakaskuntzaz eta Kultura-gaiez sinatutako akordioak finkatzen duenera egokituko da. Horretarako, akordio horrek xedatzen duenaren arabera, erlijio katolikoa dagokien irakasmaitako arlo edo irakasgai bezala irakatsiko da. Irakasgaia eskaini beharrekoa izango da ikastetxeentzat, eta borondatezkoa ikasleentzat".

Irakasgai hori aukeratu duten ikasleen kopurua jakiteko bi dokumentu erabili dira, eskariak azken bi urteotan izan duen bilakaerari buruzko informazio osagarria eskaintzen dutenak. Lehena Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari 2010/05/31n bidalitako dokumentua da, ikastetxe publikoetako 2009-10 ikasturteko datuak jasotzen dituena. Bigarrena, Hezkuntza Sailak txosten hau egiteko bereziki bidalitako dokumentua da, ikastetxe publikoetako 2011-12 ikasturteko datuak jasotzen dituena. Aiseago ulertu ahal izateko, bi ikasturte horietako datuak bereizirik aurkezten dira.

- **2009-10 ikasturtea**

Eta guztiak batera harturik, ikasleen % 23k eskatu zuen erlijio katolikoa; Lehen Hezkuntzan, % 33k.

Ikastetxe publikoetan erlijio katolikoa ikasten duten ikasleen kopurua, hezkuntza-etapen arabera. 2009-10 ikasturtea

	<i>Erljio katolikoa</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Erljio katolikoa (%)</i>
Ed. Infantil, 2º ciclo	5.399	30.742	% 18
Ed. Primaria	18.734	56.511	% 33
ESO	6.681	31.324	% 21
Bachillerato	386	15.182	% 3
Todas las etapas	31.200	133.759	% 23

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza batera harturik, guztira ikasleen % 28k eskatu zuen erlijio katolikoa 2009-10 ikasturtean, baina banaketa geografikoa oso gorabeheratsua izan zen, ehuneko altuena (% 38) Bizkaian eta baxuena (% 15) Gipuzkoan gertatu zirelarik.

Ikastetxe publikoetan erlijio katolikoa ikasten duten ikasleen kopurua, herrialdeen arabera. 2009-10 ikasturtea

	<i>Etapa guztiak</i>			<i>Haur eta Lehen Hezkuntza</i>
	<i>Erlijio katolikoa</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Erlijio katolikoa (%)</i>	<i>Erlijio katolikoa (%)</i>
Araba	4.575	21.308	% 21,5	% 23,8
Bizkaia	20.153	66.937	% 30,1	% 37,6
Gipuzkoa	6.472	45.514	% 14,2	% 14,8
Euskadi	31.200	133.759	% 23,3	% 27,7

Hezkuntza Sailak Eusko Legebiltzarrari bidalitako dokumentuan *beste erlijio batzuk* atalean, 47 ikasle ageri ziren erlijio islamikoan matrikulaturik eta 26 ikasle erlijio ebanjelikoan.

- **2011-12 ikasturtea**

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztien % 24,2k aukeratu zuen erlijio katolikoa. Oraingo txosten honetan Haur Hezkuntzan 2 urteko ikasleak sartzen dira, eta, beraz, etapa horretarako espero zen 3,3 puntuko jaitsiera desitxuraturik gera daiteke. Lehen Hezkuntzan jaitsiera 1,7 puntukoa izan da.


Ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erlijio katolikoa ikasten duten ikasleen kopurua. 2011-12 ikasturtea eta bilakaera.

<i>Etapa</i>	<i>2009-10</i>	<i>2011-12</i>			<i>Bilakaera 2 urtetan</i>
		<i>Erlijio katolikoa</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Erlijio katolikoa (%)</i>	
Haur Hezkuntza	% 17,6	6.220	43.684	% 14,2	% -3,3
Lehen Hezkuntza	% 33,2	18.985	60.345	% 31,5	% -1,7
Haur eta Lehen Hezkuntza guztira	% 27,7	25.205	104.029	% 24,2	% -3,4

Eskola-guneetako banaketan (10. mapa eta 1.23 eranskina) Gipuzkoako eskari urria baieztatzen da, zazpi eskola-gunetan (Donostia-eskuinaldea, Donostia-ezkerraldea, Arrasate, Lasartealde, Urola Garaia, Errenteria eta Andoain) eskaria % 10 baino txikiagoa izan baita. Eskari handiko muturrean, berriz, Bizkaiko hamar eskola-gune daude lehenengo hamar tokietan, Errekalde, Basurtu-Zorrotza eta Uribarri eskola-gunetan eskaria % 50 baino handiagoa izan delarik.

Erlijio islamikoari dagokionez, 2011-12 ikasturtean 618 ikaslek ikasten zuten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

10. mapa. Ikastetxe publikoetan Haur eta Lehen Hezkuntzan erlijio katolikoa hautatu duten ikasleen kopurua eskola-guneen arabera. 2011-12 ikasturtea



1.6. Arabide bereziko irakaskuntzak

LOEk arabide bereziko hiru motako irakaskuntzak finkatzen ditu: arte-irakaskuntza, kirol-irakaskuntza eta hizkuntzen irakaskuntza

1.6.1. Arte-irakaskuntza

Musika, dantza, arte plastikoa eta diseinua biltzen ditu.

- **Musika-irakaskuntza**

Musika irakaskuntza arautua eta ez-arautua izan daiteke.

- *Irakaskuntza arautua*

Profesionalentzat pentsatuta dago. 2.913 ikasle matrikulatu dira oinarrizko irakaskuntzan, irakaskuntza profesionalean eta goi mailako irakaskuntzan.

14 ikastetxetan irakasten da, haien arteko zortzi kontserbatorio publikoak —Eusko Jaurlaritzaren menpekoak (3) edo udalen menpekoak (5) —, eta beste sei ikastetxe pribatu baimendunak. Ikastetxe publikoak Vitoria-Gasteizen, Donostian, Irunen, Erreterian, Bilbon, Barakaldon, Durangon eta Leioan daude, eta ikastetxe pribatuak Bilbon (3), Getxon eta Gernikan.

Musika-irakaskuntzako oinarrizko mailako eta maila profesionaleko ikasle kopurua. 2011-12

	Publikoa			Pribatua			Ikastetxe guztiak		
	oinarrizkoa	profes.	guztira	oinarrizkoa	profes.	guztira	oinarrizkoa	profes.	guztira
Araba	244	214	458	44	0	44	288	214	502
Bizkaia	355	541	896	461	261	722	816	802	1.618
Gipuzkoa	159	309	468	0	0	0	159	309	468
Euskadi	758	1.064	1.822	505	261	766	1.263	1.325	2.588

Eusko Jaurlaritzaren menpeko hiru kontserbatorioetako maila profesionalean 679 ikasle matrikulaturik daude 25 musika-tresna (kantua barne) ikasteko. Horien arteko bostek bakarrik hartzen dute matrikulen % 5 baino gehiago: piano (% 19), biolina (% 14), kantua (% 7), alboko flauta (% 6) eta perkusioa (% 5). Honako hauek matrikularen % 3 baino gehiago hartzen dute: klarineta, saxofoia, biola, biolontxelo, gitarra, soinua eta tronpeteta.

Beste alde batetik, maila profesionaleko azken irakasmilan (6. maila) matrikulatutako hiru ikasletarik bik lortzen dute titulua, eta hiru ikasletarik bat goi mailako irakaskuntzan matrikulatzen da.

Goi mailako irakaskuntza Donostiako Musikene kontserbatorioan irakasten da. Ikasketa-plan berriak bost irakasmila ditu, eta 2011-12 ikasturtean 2. irakasmilara heldu da. 325 ikasleen % 30 Euskadikoak dira, % 7 Nafarroakoak, % 56 Espainiako estatuko gainerako tokietakoak eta % 7 atzerritarrak.

– **Irakaskuntza ez-arautua**

Irakaskuntza ez-arautua 89 musika-eskoletan ematen da. 43 eskola publikoak dira, udalen menpekoak, eta 46 eskola pribatuak dira, horietako batzuek diru publikoa jasotzen duten arren.

39.146 ikasle daude matrikulaturik, irakaskuntza arautuan baino hiru aldiz gehiago. Gipuzkoako lurraldea nabarmentzen da, ikastetxeen eta ikasleen erdia baino gehiago hartzen baitu.

Musika-irakaskuntza ez-arautuko ikasleen kopurua. 2011-12 ikasturtea

	Publikoa		Pribatua		Guztira	
	ikasleak	ikastetxeak	ikasleak	ikastetxeak	ikasleak	ikastetxeak
Araba	1.850	6	934	5	2.784	11
Bizkaia	9.974	18	3.712	12	13.689	30
Gipuzkoa	12.071	19	10.602	29	22.673	48
Euskadi	23.895	43	15.251	46	39.146	89

Matrikularen % 3 baino gehiago biltzen duten zortzi musika-tresnak edo espezialitateak honako hauek dira:

Tresna	Ikasleak	Matrikularen %
Pianoa	5.627	% 14
Kantu korala	4.940	% 13
Gitarra	2.811	% 7
Dantza	2.601	% 7
Biolina	1.750	% 4
Trikitixa	1.697	% 4
Alboko flauta	1.380	% 4
Klarinetea	1.150	% 3

- **Dantza-irakaskuntza**

Dantza-irakaskuntza arautua ikastetxe bakar batean irakasten da, Vitoria-Gasteizeko José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa alegia. 2011-12 ikasturtean erdiko mailako ikasketetan (lau irakasmila) 431 ikasle matrikulaturik zeuden eta goi mailako ikasketetan (6 irakasmila) 432 ikasle.

- **Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza**

Arte plastikoen eta diseinuaren barnean arte aplikatuak, artisautza, mota eta maila askotariko diseinua eta kultura-ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sartzen dira. Kultura-ondarearen kontserbazio eta zaharberritze ikasketak eta Diseinu ikasketak unibertsitate mailakoak dira.

LOEn irakaskuntza horiek Lanbide Heziketaren antzera antolaturik daude, bi kasuetan hezkuntza sistema eta lan-mundua integratzen baitira.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikari titulua erdiko gradua gainditzen denean lortzen da, eta Batxilergoko arte-modalitatera zuzeneko sarbidea ematen du. Beste alde batetik, goi mailako gradua gainditzean Goi Mailako Teknikari titulua lortzen da.

Goi Mailako Heziketa Zikloetan honako espezialitate hauek irakasten dira: Argazkilaritza artistikoa, Publizitateko grafika, Ilustrazioa, Lorezaintza, Apaintze-lanen proiektuak eta zuzendaritza. Goi mailako ikasketen artean Barnealdean diseinua eta Diseinu grafikoa sartzen dira.

2011-12 ikasturtean 400etik gora ikaslek ikasi zuten goi mailako Arte plastikoak eta Diseinua, hiru ikastetxe publikotan eta hiru ikastetxe pribatutan banaturik. Gainera, Araban goi mailako ikasketetako ikastetxe batean 229 ikasle matrikulatu ziren.

Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzako ikasle kopurua. 2011-12 ikasturtea

	<i>Goi Mailako Heziketa Zikloak</i>		<i>Goi mailako irakaskuntzak</i>		<i>Arte plastikoak eta Diseinua</i>	
	<i>Publikoa</i>	<i>Pribatua</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Pribatua</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Pribatua</i>
Araba	93	0	229	0	322	0
Bizkaia	41	126	0	0	41	126
Gipuzkoa	41	106	0	0	41	106
Euskadi	175	232	229	0	404	232

1.6.2. Kirol-irakaskuntzak

Kirol-irakaskuntzak 2/2006 Lege Organikoak (LOE), VIII. atalean, arautu zituen lehenengoz , eta gero 1363/2007 Errege Dekretuak garatu zituen.

Bi mailatan antolaturik daude, erdiko maila eta goi maila, Kirol Teknikari eta Goi Mailako Kirol Teknikari titulua dagozkienak, hurrenez hurren. Goi mailako tituluak unibertsitateko ikasketetara sarbidea ematen du.

Erdiko mailan sartzeko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskatzen da, eta goi mailara sartzeko Batxilergo titulua eta dagokion kirol modalitateko Kirol Teknikari titulua eskatzen dira. Salbuespen gisa, adin jakin batetik aurrera proba baten bidez sar daiteke.

Euskadin lau ikastetxetan, bakar bat publikoa, kirol irakaskuntzetako bost espezialitate irakasten dira: Futbola eta areto futbola (129/2004 Dekretua), Atletismoa (169/2010 Dekretua), Saskibaloia (170/2010 Dekretua), Eskubaloia (171/2010 Dekretua) eta Mendi kirolak eta eskalada (172/2010 Dekretua)

Kirol-irakaskuntzetako ikasle kopurua. 2011-12 ikasturtea

	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Guztira</i>
Erdiko Maila	215	228	443
Goi Maila	49	23	72
Guztira	251	264	515

18 emakume bakarrik matrikulatu ziren kirol-irakaskuntzetan.

1.6.3. Hizkuntzen irakaskuntzak

Hizkuntzen irakaskuntza 46/2009 Dekretuak arautzen ditu, curriculumak hizkuntzen Europako erreferentzia markoko mailalara egokitzen dituena. Maila hauek irakasten dira: Oinarrizkoa (A1 eta A2), Erdikoa (B1, B1.1 eta B1.2 azpi-mailetan banatua), Aurreratua (B2) eta Gaitasun maila (C1).

Atzerriko hizkuntzen ikasketa arautuekiko baliozkotze sistema bat finkatu da, eta horren bitartez Graduatu tituluarekin A2 Oinarrizko mailara sar daiteke, eta Batxiler tituluarekin Erdiko mailara (B1.1) sar daiteke.

Hizkuntza eskola ofizialetako hizkuntzak, ikasle kopurua eta talde kopurua. 2009-10 eta 2011-12 ikasturteak

	Frants.	Ingl.	Euskera	Alem.	Gazt. A	Ital.	Portug.	Errus.	2009-10		2011-12	
									<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>
Vitoria-Gasteiz	x	x	x	x	x				3.627	140	4.161	155
Donostia	x	x	x	x	x				2.454	104	3.114	122
Eibar	x	x	x	x					966	53	1162	50
Irun	x	x	x	x					1.420	74	1769	73
Ordizia	x	x							297	17	443	22
Tolosa	x	x							527	24	696	30
Bilbao	x	x	x	x	x	x	x	x	5.844	248	6.481	241
Getxo	x	x	x	x					2.430	106	2.888	107
Barakaldo	x	x	x	x					2.167	96	2.567	100
Durango	x	x	x	x					1.458	81	1.691	77
Bermeo	x	x	x						621	33	655	27
Basauri	x	x	x						683	29	847	35
Santurtzi	x	x							421	18	718	27
Zalla	x	x	x						326	14	633	23
Guztira	14	14	11	8	3	1	1	1	23.241	1.037	27.825	1.089

Euskadin 14 hizkuntza eskola daude, guztiak publikoak. Haien arteko hiruk bi hizkuntza bakarrik irakasten dituzte, eta beste batek, Bilbokoak, zortzi hizkuntza. Azken bi ikasturteotan matrikula % 20 hazi da, 2009-10 ikasturtean 23.241 izatetik 2011-12 ikasturtean 27.825 izatera pasa delarik. Ikasle guztien bi heren emakumeak dira (% 67).

Hizkuntza-maila bakoitzeko ikasle kopurua aztertzen badugu, B2 hizkuntza-maila aurreratuko matrikula handiagoa dela ikusten da, eta kontzentrazio hori promozio indize txikiagoaren ondorio izan daiteke. Kontuan izan behar da oinarrizko maila ikasten duten ikasle askok, batez ere ingelesa ikasten dutenek, hizkuntza hori ikasketa arautuetan ikasi dutela eta, beraz, zailtasuna txikiagoa izaten dela. Berdin gertatzen da erdiko hizkuntza-mailan (B1), bi irakasmaitan irakasten baita. B2 hizkuntza-mailan zailtasuna handiagoa da, irakasmaita bakarrekoa delako. Gaitasun mailan (C1) matrikula jaitxi egiten da.

Hizkuntza eskola ofizialetako ikasle kopurua, ikastetxeen eta irakasmaiten edo hizkuntza-mailen arabera. 2011-12 ikasturtea

<i>Irakasmaita</i> →	1	2	3	4	5	6	<i>Guztira</i>
<i>Markoko hizkuntza-maila</i> →	A1	A2	B1.1	B1.2	B2	C1	
Vitoria-Gasteiz	703	648	652	766	856	536	4.161
Donostia	680	476	449	416	667	426	3.114
Eibar	197	191	205	208	239	122	1.162
Irun	417	280	279	248	320	225	1.769
Ordizia	111	120	129	83	0	0	443
Tolosa	146	131	126	118	123	52	696
Bilbao	1.055	973	962	1.035	1.305	1.151	6.481
Getxo	452	429	452	430	672	453	2.888
Barakaldo	450	425	400	377	597	318	2.567
Durango	256	289	280	289	315	262	1.691
Bermeo	83	80	93	89	186	124	655
Basauri	117	165	195	214	156	0	847
Santurtzi	180	179	166	135	58	0	718
Zalla	93	119	112	114	128	67	633
Guztira	4.940	4.505	4.500	4.522	5.622	3.736	27.825

1.7. Ondorioak eta proposamenak

Hezkuntzaren plangintza legeriaren aldaketen menpe dago; txosten honek hartzen duen denbora-tartean ez da aldaketa garrantzitsurik egon, baina aspaldi honetan iragartzen ari den hurrengo lege organikoak (LOMCE) analisi bat izango du, nahitaez, hurrengo txostenean.

Ekonomiaren ikuspuntutik, aurreko hamarkadaren bukaeran hasi zen krisialdiak eragin handia izan du ikastetxeetarako baliabide-hornikuntzan, 3. atalean aztertzen den bezala. Bestalde, pobreziaren fenomenoaren areagotu egin da aldi horretan, eta bereziki haur-biztanleriari eragiten dio, hezkuntza sistemaren premiarik handiena duen biztanleriari alegia.

Atal honetan aztertutako aldagaiei dagokienez, aurreko joeren ildo beretik jarraitzen dute. Etorkizuneko beharren isla bezala, Euskadiko jaiotza tasa mantendu egin da eta migrazioaren balantzak balio positiboetan jarraitu du, eta, beraz, matrikula hazten jarraituko duela pentsa dezakegu.

Hasierako irakasmaitan, 2 urtetik beherako haurren % 39ri eman zaio erantzuna —ahalegin handia gaur egungo egoera kontuan izanik—, lurraldeen artean alde handiak izan direlarik. Bi urtekoen irakasmaitan, estaldura % 94ra hurbildu da, baina eskolatzetasa eta ikasgelen okupazio-tasa kontuan hartzen baditugu, batez ere Bilbon eta bere eskualdeko zenbait barruti eta eskola-gunetan eta Vitoria-Gasteizen eskaintza-urritasuna dagoela esan dezakegu.

(p1) Horri dagokionez, Kontseiluak, Haur Hezkuntzako hasierako zikloan eskolatzetasa altuak erdietsi direla aitortzeaz batera, Sailari eskatzen dio antzemandako eskaintza-urritasunaren arazoari irtenbidea eman diezaion.

Unibertsitatez kanpoko etapen multzoan, Hasierako Hezkuntzatik derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzara, 2011-12 ikasturtean 347.000tik gora ikasle matrikulatu dira. Matrikula urtean % 2 hazi da, eta hazkondeak ikasle/gela ratioa igotzea ekarri du. Hurrengo hamar urteko epeari begira, hezkuntza sisteman ikasle kopuruak guztira hazteko joera izango duela bermatzen du azken urteotako jaiotzatasak, eta hezkuntzaren planifikazioaren arduradunek oso kontuan izan beharko lukete datu hori.

Hezkuntza-sareen arteko banaketan, azken hamarkadan sare publikoak etengabeko igoera leuna izan du, 2011-12 ikasturtean unibertsitatez kanpoko hezkuntzako matrikularen % 50,7ra heldu arte.

Beste alde batetik, Euskadiko 100.000 biztanlek ikasten dute unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuetan eta ez-arautuetan, besteak beste Helduen Hezkuntza (30.000), Musika-irakaskuntza (42.000) eta Hizkuntzen irakaskuntza (28.000). Ikasketa horiek oso lagungarriak dira biztanleriaren oinarritzko hezkuntza-kompetentziak handitzeko, eta hezkuntza sistemak historikoki izan dituen hutsuneak eta gaur egungo prestakuntzaren zenbait gabezia zuzentzen dituzte. Irakaskuntza horien eskaria gero eta handiagoa da, eta ezin zaio bere osotasunean erantzunik eman.

(p2) Kontseiluak irizten du Helduen Hezkuntza —hezkuntza-premiarik handiena duen biztanleriari bideratua—, arte eta hizkuntzen irakaskuntza, eta bizialdi osoko ikaskuntzarako Europako programen barruan sartzen diren gainerako irakaskuntzak indartu egin behar direla, hezkuntza sistemaren emaitzen hobekuntza iraunkorrerako oinarri gisa harturik, Euskadiko biztanleriaren kultura-gaitasuna hobetu dadin.

Ekitateari dagokionez, Euskadi herrialde bezala nabarmentzen da, gure hezkuntza sistema nabarmentzen den bezalaxe, baina bi arlo horietan badago hobekuntzarako aukerarik gero eta gizarte-ezberdintasun handiagoak iragartzen dituen egoera sozio-ekonomiko batean.

Euskadiko biztanleriaren pobrezia maila, eta baita gizarte-ezberdintasun maila ere, Europako batez bestekoaren azpitik daude eta Espainiako batez bestekotik oso urrun, eta horri esker hezkuntza-politikan berdintasuna sustatzeko beste sistema batzuek ez dituzten neurri bereziak sar daitezke.

Jatorrizko gabeziak zuzentzeari begira eta ikasle guztiek ikasketetan aurrera egin ahal izan dezaten, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleei erantzuna emateko askotariko baliabideak daude, eta horri esker graduatu-tasa altua da eta eskola-uzte goiztiarra, txikia.

Ekitatearen beste muturrari goazelarik, zenbait eskola-gunetan ikastetxeen arteko bereizketa bat egiten da, hots, premiarik handienak dituzten ikasleak batez ere ikastetxe publikoetan biltzen dira, arestian beste eskola-gune batzuetan alderantzizko egoera gertatzen dela aipatu dugun arren.

Bestalde, ikasle etorkinen banaketaren ekitateak ez du hobera egin azken biurtekoan zehar, hezkuntza-sareen artean alde handiak baitaude, eta baita itunpeko ikastetxe-elkarteen artean ere.

(p3) Ondorioz, Kontseiluak Sailari ikastetxe horietako ikasleen artean dauden gizarte-jatorriaren aldetiko ezberdintasunak orekatzeko behar diren baliabideak sor ditzan eskatzen dio, ikasle horiek guztiek emaitza hobeak lortu ahal izateko.

Bereziki, Kontseiluak eskatzen du ikasle atzerritarrak modu orekatuagoan banatzeko adierazle batzuk finka daitezen.

Erljio katolikoa ikastetxeetan irakasteak eztabaida gero eta handiagoa sortu du azken urteotan. Horrekin batera, beste erlijio batzuk (islamikoa, ebanjelikoa...) hasi dira heltzen Euskadira. Indarrean dagoen legeak ez du baimentzen, erlijioa hautatu duten ikasleak erlijio eskolan dauden bitartean, erlijioa hautatu ez duten ikasleek curriculum-arlo edo irakasgairik ikas dezaten.

Denbora aurrera joan ahala, erlijio eskolen eskaria murriztuz joan da, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan lau ikasletarik batek bakarrik ikasten du erlijioa. Horrek esan nahi du gaurko egoeran hiru ikaslek, ikaskide bakar baten hautaketaren ondorioz, curriculum ofizialean ez dagoen aukerako arlo edo irakasgai bat ikasi behar dutela.

Kontseiluaren ititziz, gure hezkuntza sistemak hobetu behar duen esparru zabala kontuan hartzen bada, eskola-denbora urria da, bereziki hasierako irakasmaitan. Egiaztapen horren ondorioz, Kontseiluak ikastetxeen antolamendurako eta curriculumerako autonomian oinarritutako proposamena egin nahi du, guztien ongizatea eta guztien interesak eta aukerak kontuan hartzen dituen.

(p4) Hori dela eta, Kontseiluak proposamen bat egin nahi dio Sailari ikastetxeetako eskola kontseiluei erlijio arloa edo irakasgaia ikasleen derrigorrezko eskola-ordutegitik kanpo —ordutegi aukera bat baino gehiagorekin, eguerdian edo arratsaldean— programatzeko baimena eman diezaien.

2. atala. IKASTETXEETAKO PROZESUAK: EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA, ANTOLAMENDUA

Sarrera

Ebaluazioari dagokionez, 2011ko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak aurkezten dira⁷; hurrengo urtean ez zen horrelako ebaluaziorik egin. Ondoren, hezkuntza sistemaren emaitzen adierazle gisa eskola-uzte goiztiarraren bi kuantifikazio aurkezten dira.

Antolamenduari dagozkion alderdietan, ikastetxeko zuzendaritzaren auzia ikuspegi bikoitzetik aztertzen da, hots, prestakuntzaren ikuspegitik eta ebaluazioaren ikuspegitik. Horrez gainera, antolamenduari dagozkion bi aldagai aztertzen dira, ikastetxeetako irakasleen egonkortasuna alde batetik, eta ikastetxeko giroa bestetik, eta ikastetxeko proiektu orokorreatatik nabarmentzen diren ikastetxe publikoen hiru sareen deskribapena egiten da.

Prestakuntzari eta berrikuntzari dagokienez, modalitate ezberdinen azterketa bat egiten da eta, baita ere, azken hiru urteotan garrantzirik handiena izan duten hiru plan eta proiektuena.

2.1. 2011ko ebaluazio diagnostikoko emaitzak

Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak eta DBHko 2. mailakoak bereizirik jaso dira.

2.1.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak

2009ko hasierako ebaluazioarekin konparaturik, 250 puntuko batez bestekoa duen eskalan 5 edo 6 puntuko igoera izan da sistematikoki ebaluatu diren hiru konpetetzietan: euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak eta matamatikarako konpetentzia. .

a) Emaitzak geruzen ezaugarrien arabera

Emaitzek eta ISEK indizeak badute elkarren arteko erlazioa geruza guztietan. Irregularitasunik handienak A ereduko bi geruzetan gertatzen dira. A-Publiko geruzan (oso geruza minoritarioa, irakasmila horretako ikasle guztien % 2 hartzen duena) puntuazioetako batzuk ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino

⁷ Lehen Hezkuntzako 4. mailako txostena: http://www.ediagnostikoak.net/edweb/cas/materiales-informativos/ED11/informe%20variables/ED11_LH4_Informe_variables.pdf

DBHko 2. mailako txostena: http://www.ediagnostikoak.net/edweb/cas/materiales-informativos/ED11/informe%20variables/ED11_2ESO_%20Informe_variables.pdf

apalagoak dira⁸. A-Pribatua geruzan (geruza minoritarioa hori ere, % 6), ebaluatutako hiru kompetentziatako puntuazioak (gaztelania, matematika eta ingelesa) ISEK indizea –geruza guztietako altuena– kontuan izanik espero zitekeen mailakoak dira –edo altuagoak ingelesaren kasuan bezala–, baina euskaran betez bestekoak baino askoz apalagoak dira (218).

Hirugarren geruza minoritarioa B-Publikoa geruza da, eta ikasle guztien % 7 hartzen du. Emaitzak ezaugarriak kontuan izanik estatistikoki espero zitezkeenetik hurbilago daude; edozein modutan ere, euskarako eta ingeleseko puntuazioak apalak dira.

ED, Lehen Hezkuntzako 4. maila. 2011ko ebaluazio diagnostikoan neurtutako kompetentzietako emaitzak, ikasleei dagozkien aldagaien arabera⁹.

Geruza	Ikasleak (%)	Ikasleei dagozkien aldagaiak			Kompetentzietako emaitzak			
		ISEK indizea	Ikasle etorkinak	euskara etxean	Euskara	Gaztelania	Matematika	Ingelesa
A-Publikoa	% 2	% -1,45	% 36	% 0	187	226	218	203
B-Publikoa	% 7	% -0,52	% 17	% 2	234	251	243	235
D-Publikoa	% 42	% -0,15	% 6	% 29	260	251	251	241
A-Pribatua	% 5	% 0,59	% 6	% 1	218	269	263	278
B-Pribatua	% 22	% 0,19	% 5	% 6	252	267	260	259
D-Pribatua	% 22	% 0,27	% 3	% 42	274	256	263	261
Euskadi	% 100	% 0,00	% 7	% 23	256	256	255	250

D-Publikoa geruza hedatuena da, irakasmila horretako ikasleen % 42 hartzen baitu. ISEK indizea baxu samarra du eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa (% 29) batez bestekoa baino handiagoa da. Puntuazio altuak ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian (260), baina apalak ingelesean (241).

Tamaina ertaineko bi geruzetan, B-Pribatua eta D-Pribatua, ikasleen zenbait ezaugarri soziologiko antzerakoak dira. Horietako bigarrenak ezaugarri nabarmenagoak ditu: ISEK indizea apur bat altuagoa, ikasle etorkinen ehuneko txikigoa eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehuneko handiagoa. Geruza horiek puntuaziorik orekatuenak lortu dituzte, espero zitekeen mailakoak edo apur bat handiagoak; D-Pribatua geruza matematikan, ingelesean eta euskaran nabarmendu da, eta B-Pribatua, berriz, gaztelanian eta ingelesean.


⁸ ISEI-IVEIk (2011) Lehen Hezkuntzako 4. mailako Ebaluazio Diagnostikoari buruzko txosten orokorraren 74. grafikoa, ikastetxeko batez besteko ISEK indizean puntu bateko aldea matematikako emaitzetako 22 puntuko aldeari dagokio. Espero daitekeen puntuazioa zenbakizko erloazio horrek definitzen du. DBHko 2. mailaren kasuan, ISEK indizeko puntu bakoitzeko matematikako emaitzetan 32 puntuko aldea dago.

⁹ Koloretako markak hiru aldagietan egin den sei tarteko sektORIZAZIOARI dagozkio; aldagaiak 2008-2010 Txostenean eta oraingo honetako lehen atalean ere jasotzen dira, zenbait mapatan tarteen ebaketa-puntuak adierazten direlarik.

b) Emaitzen bilakaera

Ikasleen puntuazio-eskalan finkatutako hiru mailen arteko baxuena aztertzen badugu, ebaluazio guztietan neurtzen diren hiru kompetentzietako batez besteko puntuazioetan izan den bost edo sei puntuko igoera errendimendu-maila baxu horretan gertatu dela ikustiko dugu. Hartara, 2009 eta 2011. urteen artean errendimendu-maila baxuko ikasle kopurua jaitsi egin da, batez ere gaztelanian (6,6 puntu), eta baita euskarari eta matematikari (bi eta hiru puntu artean).


Errendimendu-maila baxuko ikasleen ehunekoaren bilakaera 2009tik 2011ra sistematikoki ebaluatzen diren kompetentzietan.



Termino absolutuetan, errendimendu-maila baxuan ikasleen ehunekorik handienak euskarari (% 30) eta ingelesean (% 23) gertatu dira, emaitzetan aniztasun handiena duten kompetentziak baitira.

Ikastetxeetako emaitzak kontuan hartzen baditugu, emaitzakestatistikoki hobetu dituzten ikastetxeak askoz gehiago dira okerragotu dituztenak baino. Konparatzen diren hiru kompetentzietako puntuazioen igoera ikastetxeen % 15-18an gertatu da, baina jaitsiera askoz ehuneko txikiagoan gertatu da.

ED, Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ikastetxeetako emaitzen bilakaera 2009tik 2011ra. Puntuazioetan aldaketa nabarmena izan duten ikastetxeen ehunekoa.



2009tik 2011rako bilakaera, DBHko 2. mailan izan den hobekuntza Lehen Hezkuntzako 4. mailan izandakoa baino txikiagoa izan da matematikari (251) eta gaztelanari (254).

a) Emaitzak geruzen ezaugarriekiko

A-Publikoa geruzak etapa honetan hedapen handiagoa du (% 5), baina emaitza apalagoak, batez bestekoa ez baita 200 puntutara heltzen; adierazgarria da geruza horretako ikasleen % 48 atzerritar jatorrikoa izatea.

ED, DBHko 2. maila. 2011ko ebaluazio dignostikoan neurtutako kompetentzietako emaitzak, ikasleei dagozkien aldagaien arabera


Geruza	Ikasleak (%)	Ikasleei dagozkien aldagaiak			Kompetentzietako emaitzak			
		ISEK indizea	Ikasle etorkinak	euskara etxean	Euskara	Gaztelania	Matematika	Ingelesa
A-Publikoa	% 5	% -1,33	% 48	0	174	220	200	198
B-Publikoa	% 5	% -0,50	% 15	2	237	246	235	226
D-Publikoa	% 36	% -0,07	% 4	27	265	250	248	244
A-Pribatua	% 9	% 0,25	% 14	0	203	264	254	260
B-Pribatua	% 23	% 0,11	% 7	5	252	262	254	256
D-Pribatua	% 22	% 0,24	% 3	36	276	257	262	264
Euskadi	% 100	% 0,00	% 8	20	256	254	251	250

Beste muturrean, era konparatiboan emaitzarik onenak lortu dituen geruza D-Pribatua izan da.

b) Emaitzen bilakaera


Errendimendu-maila baxuko ikasleen ehunekoan lau puntuko jaitsiera izan da gaztelanian eta bi puntukoa euskarari; matematikan, hala ere, ikasleen ehunekoa puntu batez handitu da. Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzekin konparaturik, DBHko 2. mailan errendimendu-maila baxuko ikasleen ehunekoa handiagoa da euskarari eta matematikan, baina txikiagoa ingelesean.

ED.DBHko 2. maila. Errendimendu-maila baxuko ikasleen ehunekoaren bilakaera 2009tik 2011ra sistematikoki ebaluatzen diren kompetentzietan.



Etapa honetan ere, emaitzetan hobekuntza nabarmena izan duten ikastetxeen ehunekoa jaitsiera izan dutenen ehunekoa baino handiagoa da, baina matematikarako kompetentziaren kasuan jaitsiera izan duten ikastetxeen kopurua kontuan hartzeko modukoa da (% 9).

ED.DBHko 2. maila. Ikastetxeetako emaitzen bilakaera 2009tik 2011ra. Puntuazioetan aldaketa nabarmena izan duten ikastetxeen ehunekoak.




2.1.3. Emaitzei loturiko faktoreak

Ikasleei dagozkien –eta aurretiaz kuantifikatutako– hiru faktorek emaitzetan duten eragina aztertu da: ISEK indizea, etxeko hizkuntza euskara izatea eta ikasle etorkinak.

a) ISEK indizea

Maila sozio-ekonomikoan lau multzo finkatzen badira¹⁰, multzorik baxuenean, ebaluatutako bi irakasmailetan hurrenez hurren ikastetxe publikoetako ikasleen % 20 eta % 30 dago, baina ikastetxe pribatuetako ikasleen % 5 eta % 13. Multzorik altuenean ikastetxe publikoetako ikasleen %13 eta % 10 dago, eta ikastetxe pribatuetako ikasleen % 54 eta % 47 hurrenez hurren.

ED-2011. Ikasleen banaketa maila sozio-ekonomikoetan hezkuntza-sareen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila.




ISEK indizeak geruzetan izan duen bilakaera aztertzen bada, gero eta polarizazio handiagoa antzematen da hezkuntza-sareen artean, aurreko txostenetan PISA ebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoa aztertzerakoan epe luzeagoan antzeman

¹⁰ Lehen Hezkuntzako 4. mailan maila sozio-ekonomikoetako batez besteko balioak hauek dira: baxua (-0,87), ertain-baxua (-0,26), ertain-altua (-0,02), altua (0,58). DBHko 2. mailan: baxua (-0,84), ertain-baxua (-0,24), ertain-altua (-0,06), altua (0,57).


zena. ISEK indizeak apur bat jaitsi dira hezkuntza-sare publikoko hiru geruzetan eta hezkuntza-sare pribatuko hiru geruzetan, berriz, igo egin dira.

ED, Lehen Hezkuntzako 4. maila. ISEK indizearen bilakaera sare-irakasteredu geruzetan 2009tik 2011ra.



DBHko 2. mailan daturik aipagarriena A-Publikoa geruzako ISEK indizearen jaitsiera da, eta hein txikiagoan D-Pribatua geruzako indizearen igoera.


ED.DBHko 2. maila. ISEK indizearen bilakaera sare-irakasteredu geruzetan 2009tik 2011ra.



b) Euskara etxeko hizkuntza

ISEI-IVEIk egindako txostenean azpimarratzen da familiako hizkuntzaeuskara izateak zer nolako eragina duen hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako emaitzetan, matematika adibidez, batez ere D ereduko ikasleen artean, irakasteredu hori konparazioak egiteko egokia baita. D ereduko ikasleen artean euskara etxeko hizkuntza bezala duten ikasleak % 34 dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta % 30 DBHko 2. mailan, eta euren batez besteko puntuazioak etxeko hizkuntza bezala gaztelania edo beste hirugarren hizkuntza bat duten ikasleek baino 22 eta 20 puntu handiagoak dira hurrenez hurren.

ED-2011. Matematikarako konpetenziako emaitzak D ereduko ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan.




c) Ikasle etorkinak

Etorkina izatea emaitza apalen iragarpena izaten da, ISEK adierazleari, bestek beste, loturikdagoena. DBHko 2. mailako ikasleek 212 eta 229 arteko puntuazioak izaten ditu, arloen arabera; Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek puntuazio altuagoak izaten dituzte, 223 eta 240 artekoak.

Edozein modutan, aipatu beharrekoa da azken bi urteotan izandako aurrerakada, batez ere hizkuntzako konpetentzietan. Matematikan, berriz, DBHko 2. mailan jaitsiera txiki bat izan da.


ED-2011. Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera 2009tik 2011ra. Puntuazio absolutuak. Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila.



d) Faktoreak ingelesaren kasuan


Ingelesaren kasuan, emaitzekin erlazioa duen faktore bat eskola pribatuetara joatea da. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 30 eta DBHko 2. mailako % 44 joaten da ingelesezko eskola pribatuetara.

ED-11. Ingelesezko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako emaitzak eta ingelesezko eskola pribatuetara joatea.




Ikastetxez kanpoko ingelesezko eskolak hartzea gehiago gertatzen da gainerako kompetentzietan emaitza onak dituzten ikasleen artean.

ED-11. Konpetentzietako emaitzak ingelesezko eskola pribatuetara joatearen edo ez joatearen arabera.



Ingelesezko eskola pribatuetara joatea ala ez joatea maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren (ISEK) ondorio zuzena da.

ED-11. Ingelesezko kompetentziako emaitzak ISEK indizearen arabera



2.1.4. Ikastetxeek ekartzen duten balio erantsiaz

ISEI-IVEIren txostenean ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza nabarmenki hobetoak edo apalagoak lortzen dituzten ikastetxeen ezaugarriak aztertu dira, eta egiaztatu da geruza bakoitzaren barnean bi mota horietako ikastetxeak egoten direla.

Egiaztatu da, baita ere, ikastetxe kopuru adierazgarri batek emaitza nabarmenki altuak edo nabarmenki baxuak lortzen dituela behin eta berriro, 2009, 2010 eta 2011ko ebaluazioetan edo haietako bitan. Horrek adierazten du, ikasturte bakoitzean

ebaluatutako ikastaldearen arteko ezberdintasunaren gainetik, badagoela jarraiketasun bat emaitzetan.

Ildo horretatik, ISEI-IVEI eta EHU-UPVko ikertalde bat balio erantsi handia ekartzen duten ikastetxeen ezaugarriei buruzko ikerlan bat egiten ari dira, emaitza onak lortu dituzten ikastetxeen egoeren eta jardunbideen analisisian oinarriturik, baina txosten hau idazteko garaian ikerlana oraindik argitaratu gabe dago.

2.1.5. Berritzeguneen esku hartzea hobekuntza-planetan

Txosten hau dokumentatzeko asmoz, hezkuntza administrazioko instantzia batzuei informazioa eskatu zitzaizkien ebaluazio diagnostikoan eta ikastetxeetako hobekuntza planetan zernolako parte hartzea izan duten jakiteko. Berritzetzeko Zuzendaritzatik Berritzeguneen aulkularitza-lanari buruzko gogoetan oinarriturik egindako txosten baten laburpena helarazi zitzaizgun.

Informazio horretan oinarriturik, Kontseiluak 2013ko martxoan galdera-sorta bat bidali zien 18 Berritzeguneetako zuzendariari, haiek egindako analisia eta proposamenak sakonkiago ezagutzeko asmotan, eta 12 erantzun jaso ziren.

Erantzunen sintesitik honako ondorio hauek atera daitezke:

1. Aulkularitza-prozesuak oso eragin onuragarria izan du bai ikastetxeetan baita Berritzeguneetan ere.
2. Berritzeguneari aholkularitza eskatu dioten ikastetxeei dagokienez –ikastetxe publikoen % 81ek eta ikastetxe pribatuaren % 58k eskatu dute– ez da erlaziorik antzematen aholkularitza ez eskatzearen eta ebaluazioan emaitza apalak lortzearen artean.
3. Batzuetan aholkatutako ikastetxeetako emaitzei buruzko datuak ez edukitzeak mugaturik bagaude ere, errendimendu, eraginkortasun edo balio erantsi handiko ikastetxeen zenbait ezaugarri azpimarra daitezke, eta baita errendimendu apaleko ikastetxeenak ere.

Hartara, balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

- Berrikuntza metodologikoa, proiektuen garapena eta ikaslearen banako jarraipena.
- Barne kohesioa, koordinazioa, eta bizikidetzarekiko ardura.
- Irakaslearen eraginkortasuna eta lidergo pedagogikoa.
- Prestakuntzaren aldeko jarrera eta eginbidea; Berritzeguneko jardueretan parte hartzea.
- Ikaslearen ezaugarri bezala, komunikaziorako konpetentzia handia bihurtzeko.

Balio erantsi apaleko ikastetxeek honako ezaugarri hauek izaten dituzte:

- Berrikuntzaren aurkako jarrera edo berrikuntza ikuspuntu okerretik planteatzea, proiektu sakabanatuekin.
 - Talde-inplikazio falta, koordinazio urria eta zuzendaritzaren gaitasun falta.
 - Irakasleen egonkortasun falta.
 - Behar handiagoko ikasleen kopuru handia.
4. Ikastetxeen lanari dagokionez, honako hobekuntza hauek planteatzen dira:
- Ebaluazio diagnostikorako (ED) Batzordea Pedagogia Batzordean integratzea. Lehen Hezkuntzako 4. mailako tutoreek parte hartuko lukete Pedagogia Batzordean ebaluazio diagnostikoari lotutako gaietan.
 - ED ebaluaziotik ateratako ondorioekin batera, barne ebaluazioko beste prozesu batzuk ere hobekuntza-planetan sartzea, adibidez, ikasleen ikas-emaizak, familien asebetetze-maila edo beste batzuk.
5. ED ebaluazioaren plangintza orokorrari dagokionez, honako hau iradokitzen da:
- Ikuskaritzak eta Berritzeguneak emaitzarik apalenak lortzen dituzten ikastetxeetan elkarrekin esku hartzeko berariazko prozedura bat finkatzea.
 - Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean errendimendu-maila baxuko eta altuko ikasleen ehunekoa kontuan izanik, hezkuntza-sistema osorako hobekuntza-helburuak finkatzea.
 - Ebaluatzen diren hizkuntza-trebetasunetan ahozko hizkuntzari dagozkionak ere sartzea, hobekuntza trebetasun horietara ere zabaltzeko.
6. Ikastetxeetan esku hartzen duten kanpoko instantzien arteko informazio eta koordinazio prozesuetan:
- Beharrezkoa da, edo gutxienez komenigarria, Berritzeguneak emaitzen txostena edukitzea, aholkularitza eraginkoragoa egin ahal izateko.
 - Komenigarria da Ikuskaritzak eta Berritzeguneak ikastetxeko koordinazio-taldearekin hasierako bilera bat egitea, Aginduan xedatzen den bezala.
 - Komenigarria da Berritzeguneak Ikuskaritzak ikastetxeari hobekuntza plana egiteko emandako aholkuen berri izatea.
7. Azkenik, Berritzeguneen heziketa-estrategia bezala, honako hauek proposantzen dira:
- Eskarien aniztsunari erantzun ahal izateko mintegiak antolatzea.
 - ED ebaluazioko emaitzetatik ondorioztatzen diren jardunbide egokiak partekatzea.
 - Garatu planaren barruan ikastetxeentzako ikastaroak eskatzea.

2.2. Eskola-uzte goiztiarra

Eskola-uzte goiztiarraren adierazleak gehienez Bigarren Hezkuntzako lehen etapa (gure kasuan, DBH) bukatu duten eta ondorengo ikasketarik edo prestakuntzarik jasotzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa neurtzen du.


Europar Batasunak 2020rako finkatu dituen zortzi helburuetako bat eskola-uzte goiztiarra % 10 baino handiagoa ez izatea da. Aurretik, helburu bera finkatu zen 2010erako, baina % 14ra bakarrik heltzea lortu zen.

2.2.1. Europako herrialdeen arteko konparazioa eta autonomia erkidegoen artekoa.

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) adierazle horri buruzko bere datuak eskaintzen ditu, Eurostatek eta INEk eskainitakoekin bat ez datozenak. Metodologia bera erabili arren, Eustatek egindako laginketa zabalagoa da, eta ondorioz eskola-uzte goiztiarraren tasa INEk eskainitakoa baino txikiagoa da. Lehen kasuan, tasa % 7,7koa da 2012rako, tasa horrekin 2020rako finkatutako gehieneko % 10 aise gainditurik egongo litzatekeelarik (2.1 eranskina). INEK 2011rako % 11,5eko tasa eskaini du.

Europako banaketan ikus daiteke % 10eko helburua lortu duten herrialdeak iparraldeko herrialdeak (Finlandia, Suedia) direla eta, batez ere, Ekialdeko eta Jugoslavia zeneko errepublikak (Eslovenia, Eslovakia, Polonia, Txekiar Errepublika). Erdialden, helburutik hurbil, ekonomia garatuagoko herrialdeak daude (Alemania, Frantzia eta Britainia Handia), eta tasarik altuenak Hegoaldeko herrialdeek dituzte, hala nola Espainiak (% 24,9), Portugalek (% 21,3) eta Italiak (% 17,7).


Eskola-uzte goiztiarra Europar Batasuneko zenbait herrialdetan. 2012. urtea¹¹



Estatuari gagozkiorik, autonomia erkidegoen arteko aldeak oso handiak dira. Euskadiz gain, Nafarroak eta Kantabriak bakarrik dute % 15etik beherako tasa. Europan bezala, iparralde-hegoalde banaketa gertatzen da, tasarik handienak, % 25etik gorakoak, pairatzen dituzten erkidegoak hegoaldekoak direlarik.

¹¹ Euskadiri buruzko INEren datua 2011koa da.


Eskola-uzte goiztiarra autonomia erkidegoetan. 2009-2012 bilakaera



Eskola-uzte goiztiarra sarriago gertatzen da gizonezkoen artean, eta sexuen arteko aldea oso txikia da Euskadiren kasuan (% 1), Gaztela-Mantxan % 18ra heltzen delarik. Espainiako batez bestekoa % 9koa da eta Europakoa, % 3,5ekoa, 2011ko balioetan.

2.2.2. Azken hamarkadan zeharko bilakaera


Euskadiren kasuan erabilitako bi tasetan (INE eta Eustat), eskola-uzte goiztiarrak baliorik garaienak 2008an edo 2009an izan zituen, ondoren behera egiteko. Eustatentask 2008tik 2012ra oso jaitsiera garrantzitsua eta jarraitua adierazten du.



Europako herrialdeetako batez bestekoa etengabe jaitsi da hamarkada osoan zehar, 2002ko % 17tik 2012ko % 12,8ra. Progresio bera jarraituko balu, % 10eko helburua finkatutako data, 2020, baino lehenago beteko litzateke.

Espainiaren kasua berezia da, autonomia erkidegoen aniztasuna berebizikoa izanik, tasa 2009. urtera arte % 30etik gora mantendu baitzen, eta hiru urtetan bakarrik lortu baitzuen tasa 6,3 puntu jaitea, finkatutako helburua betetzeko bide luzea ibili behar duen arren, arestian esan dugun bezala.

Euskadiko lurraldeei dagokienez, Eustaten estatistikaren arabera, Arabako tasa (% 10,1) Gipuzkoakoa (% 7,8), eta batez ere Bizkaikoa (% 7,0), baino apur bat txarragoa da.



2.3. Ikastetxeen antolamendua

Atal honetan zuzendaritza eta ikaste-irakaste sistema bera duten ikastexe-elkarteak aztertzen dira. Lehen azpiatalean zenbait datu bildu dira ikastetxeen barne-antolamenduari dagozkion bi aldagai zehatzi buruz.

2.3.1. Ebaluazio probetan ikastetxeen antolamenduaren alderdiei buruz bildutako informazioa

ISEI-IVEIk 2011ko ebaluazio diagnostikoaz egindako txosten orokorretan ikastetxeetako zuzendariak antolamenduaren inguruko bi alderdiri emandako erantzunak biltzen dira: plantilen egonkortasuna eta ikasleen arteko gatazkak, ikastetxeko giroaren adierazle bezala.

Azpiatala bukatzeko, aipatutako erakundeak 2012an ikaskideen arteko tratu txarrei buruz egindako txostenaren emaitzetako bat aurkezten da.

- **Plantilen egonkortasuna**

2010-11 ikasturtean, ikastetxeko zuzendaritzen esanetan, ikastetxe publikoetan irakasleen mugikortasun handia oso kezagarria zen, ikastetxeen % 30ean baino gehiagotan plantilaren % 25 aldatu baitzen aurreko ikasturtetik. Arazoak askoz txikiagoa da itunpeko ikastetxeetan.

Azken ikasturtean aldatu diren irakasleen proportzioa (2009-10 ikasturtetik 2010-11 ikasturtera) (ISEI-IVEI, ED-2011)

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Itunpeko ikastetxeak</i>	
	<i>LH</i>	<i>DBH</i>	<i>LH</i>	<i>DBH</i>
Aldaketarik ez	% 7	% 3	% 52	% 55
% 25 baino gutxiago	% 55	% 60	% 45	% 39
% 25 - % 50	% 26	% 30	% 0	% 0
% 50 - % 75	% 5	% 2	% 1	% 1

Hala ere, bitarteko irakasleen kopurua jaitsi egin da aztertutako azken bi ikasturteetan, eta jaitsierak jarraituko duela aurreikusten da. Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren datuen arabera, ikasturte osoan lanean jardun duten bitarteko irakasleen kopurua 2009-10 ikasturteko 6.425tik 2011-12 ikasturteko 5.225ra jaitsi da. Banaketa hezkuntza-etapetan honako hau da:

	2009-10	2010-11	2011-12
Haur eta Lehen Hezkuntza	2.586	2.793	153
Irakaskuntza Ertainak	2.953	2.764	1.992
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	95	77	2.680
Bestelakoak	791	636	400
Guztira	6.425	6.270	5.225

- **Ikastetxeetako giroa**

Bizikidetzarako hezkuntza programen helburuetako bat ikastetxeen ingurunean ikasleen arteko harremanak hobetzea da. Hori dela eta, bizikidetzaren egoera ikastetxeetan 2010-11 ikasturtean hiru urte lehenagoko egoera baino nabarmenki hobea zen ikastetxeetako zuzendarien iritziz.

Hartara, gatazkak Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 38an eta DBHko ikastetxeen % 45ean murriztu ziren, eta hurrenez hurren % 12an eta % 8an bakarrik areagotu ziren. Aldaketarik handienak aztertzerakoan, jaitsiera drastikoa ikastetxeen % 12an gertatu da, eta goera drastikoa ikastetxeen % 1ean bakarrik gertatu da.

Ikasleen arteko gatazka kopuruaren bilakaera 2008tik 2011ra, ikastetxeen ehunekoen arabera

	<i>LH</i>	<i>DBH</i>
Jaitsiera drastikoa	% 12	% 12
Jaitsiera arina	% 26	% 33
Mantendu dira	% 44	% 40
Igoera arina	% 11	% 8
Igoera drastikoa	% 1	% 1

Bizikidetzaren hobekuntza lortzeko mekanismorik garrantzitsuenak honako hauek dira: totoretza ikasleekin, ikastetxeen % 90ean, AJA arautegien eguneratzea (% 67

66), irakasleen prestakuntza (% 60) eta irakasleen parte hartzea antolamendu-lanetan (% 60), antzerako proportzioan Lehen Hezkuntzan eta DBHn.


Ikastetxeek gatazkak ekiditzeko eta bizikidetzak hobetzeko gauzatutako jarduerak. 2010-11 ikasturtea.

	LH	DBH
Irakasleen prestakuntza eta koordinazioa bizikidetzak gaitan	% 59	% 61
Bizikidetzak gaitako programetan parte hartzea	% 49	% 51
Tutoretzako lana: bizikidetzak, elkar ezagutzea...	% 89	% 90
Antolakuntza eta Jarduera Arautzea (AJA) eguneratzea	% 65	% 67
Metodologia parte-hartzaileagoa bultzatzea	% 51	% 51
Irakasleek antolamendu-lanetan parte hartzea bultzatzea	% 61	% 59
Bestelakoak	% 17	% 18

Oraintsuago, ISEI-IVEIk berak argitaratu du *Ikaskideen arteko tratua txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn (2012)* ikerlana, eta hirugarren edizio horretan –aurrekoak 2008an eta 2009an argitaratu ziren– jasotzen dira zuzendaritza taldeek ikastetxeetako bizikidetzaren egoeraz, eta batez ere ikasleen arteko gatazkez, duten pertzepzioa.


Hiru urte horietan hobekuntzaren pertzepzioa mantendu egiten da, 2012an 2009an baino txikiagoa den arren, eta gatazkak urritzen ari direla dioten ikastetxeen kopurua hiru aldiz handiagoa da gatazkak ugaritzen ari direla dioten ikastetxeen kopurua baino.

Ikasleen arteko gatazken kopuruaren bilakaera 2008tik 2012ra, ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziz. ISEI-IVEI .



Ikasleek, berriz, aurreko edizioetan baino tratua txarretako egoera gehiago ikusten dute ikastetxean.


Tratu txarren indize orokorraren bilakaera Lehen Hezkuntzako 3. zikloan eta DBHn, ikasleen iritziz. ISEI-IVEI



Kontzeptu horren barruan mota askotako jokaerak sartzen dira, baina sarrienak ahozko erasoak dira (% 15 Lehen Hezkuntzako 3. zikloan eta % 11 DBHko 1. zikloan). Gizarte bazterketako jokaerak ugaritu egin dira, batez ere Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (% 8).

Inoiz ikastetxera joateko beldurra sentitu dutela dioten ikasleen kopurua apur bat handitu da, baina Lehen Hezkuntzaren kasuan beldur hori sarritan sentitzen dutela diotenen kopurua jaitsi egin da.

Ikasleek ikastetxera joateko sentitzen duten beldurraren maiztasunaren bilakaera 2005etik 2012ra. ISEI-IVEI



2.3.2. Ikastetxeko zuzendaritza

Txosten honetan ikastetxeko zuzendaritza ikuspuntu bikotzetik aztertzen da, prestakuntzaren ikuspuntutik eta ebaluazioaren ikuspuntutik. Lehen kasuan, ikastetxeetako zuzendaritza taldeentzako prestakuntza-plana deskribatzen da, eta bigarreanean, lau urteko aldia 2012-13 ikasturtearen bukaeran edo geroago amaitzen duten zuzendaritza taldeak ebaluatzeko prozedura; ebaluazioak ikastetxearen planteamendu globala du, eta zuzendaritzaren aldetiko bost konpetentzia orokorren inguruan artikulatzen da.

2.3.2.1. Prestakuntza-plana

2010-11 ikasturtetik aurrera, Lidergoa eta ikastetxe-sareak gaiaren inguruan prestakuntza instituzionala antolatu da ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeentzat; prestakuntzak, hezkuntza-administrazioako beste zenbait organorekin batera, zuzendaritza lanaren hobekuntza-prozesuak errazten ditu prestakuntza jardueren bidez, jardunbideak trukatzearen bidez eta kudeaketa hobetzeko materialak sortzearen bidez.

- **Sailak ikastetxeetako zuzendaritza taldeei emandako baliabideak**

Ikuskaritzako kideekin eta Berritzeguneetako zuzendariekin elkarlanean, aldi horretan hiru laguntza-dokumentu idatzi ziren:

- *Plangintza eskola eremuangida, 2010-11 ikasturtean*
- *Ikastetxearen urteko plana eta urteko memoria egiteko gida, 2010-11 ikasturtean,*
- *Zuzendaritza proiektua egiteko gida, zuzendari berriak hautatzeko prozesua errazteko eta laguntzeko. Gidak ikastetxearen ikuspegi globala planteatzen du, eta ikuspegi hori garatzeko behar diren baliabideak eskaintzen ditu.*

Tokiko Berritzeguneekin elkarlanean, bi motatako materialak prestatu dira zuzendaritza taldeentzako mintegiak dinamizatzeko:

- Zuzendaritza proiektuan proposatutako helburuak berrikusteko protokoloa, eta, hala balegokio, ikastetxearen urteko planera moldatzekoa.
- Zuzendaritza lanaren ebaluazioan aipatzen diren bost dimentsioen garapena.

- **Zuzendari kargurako prestakuntza**

Ikastaroen helburu orokorra zuzendari bezala edo zuzendaritza taldeko kide bezala konpetentzia profesionala handitzea eta zuzendaritza lana egoki egiteko segurtasuna handitzea.

Oinarrizko ikastaroa zuzendariaren kargua aurretiazko esperientziarik gabe hartzen duten pertsonentzat da. Pertsona horiek izendapenerako ez dute nahitaez zuzendaritza proiekturik aukeztu behar izan. Guztira, oinarrizko zortzi ikastaro eman dira 25 eta 30 ordu bitarteko iraupenekoak, 207 zuzendarik parte hartu dutelarik.

Horrez gain, bost orduko hiru ikastaro eman ziren zuzendaritzarako erabilgarriak diren alderdi juridikoei buruz. 240 pertsonak parte hartu zuten.

Ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko ikastaroak. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak

<i>Ikastaroa</i>	<i>Mota</i>	<i>Izenburua</i>	<i>Ikastaro kopurua</i>	<i>Iraupena</i>	<i>Partaideak guztira</i>
2010-11	oinarrizkoa	Ikastetxeko zuzendaritzan jarduteko hasierako prestakuntza ikastaroa	4	30	112
2011-12	oinarrizkoa	Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua	4	25	95
2010-11	berariazkoa	Ikastetxeko zuzendaritzarako prestakuntza: alderdi juridikoak	3	5	240

Ikastaroen ebaluazioa positiboa edo oso positiboa izan zen, ebaluatutako alderdien artean ikastaroen antolamendua eta kalitatea nabarmendu zirelarik. Partaideen balorazioa ona izan zen, lana erraztenzietelako eta ikastetxeen arteko koordinaziorako bideak zabaltzen dituztelako.

Gainera, 2012ko apirilean ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako hezkuntza-jardunbide egokiei buruzko jardunaldiak izan ziren, bertan zuzendaritza taldeetako ehun kidek parte hartu zutelarik.

Ikastaro eta jardunaldi haietan finkatu ziren helburuen zerernda 2.2 eranskinean azaltzen da.

Bukatzeko, hedakuntza jarduera gisa, udako ikastaroak eman ziren. Azken bi urteotako gaiak zuzendaritza taldeen prestakuntza eta ikastetxeek sare moduan lan egitea izan ziren.

2.3.2.2. Zuzendari kargua ebaluatzeko eredu

Zuzendaritza proiektua aurkeztu ondoren lau urtetarako izendatutako zuzendarien ebaluazioa Agindu batek arautzen du (EHAA, 2012/06/15). Aginduak bi helburu ditu: zuzendaritzaren kompetentzia hobetzea eta lau urtetarako izendapen berrirako gaitzea, betiere ebaluazioa positiboa baldin bada.

Ebaluazioaren eduki orokorrak zuzendaritza proiektuaren helburuak eta ikastetxearen jardueraren plangintzarako eta antolamendurako gainerako tresnak urtero zehaztea. Edukiak bost multzotan banatzen dira:

1. Xede eta esku hartze estrategikoen definizioa
2. Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua
3. Lidergo pedagogikoa
4. Barneko zein kanpoko agenteen parte hartzea eta lankidetzak
5. Ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa

Ebaluazioa zenbait irizpideren arabera egiten da (2.3 eranskina). Ebaluazio irizpide bakoitzerako lau maila finkatzen dira, eta ebaluazio positiboa lortzeko 2. mailara heldu behar da lehentasunezko hartzen diren hamar irizpideetan.

Ebaluazioak osagai hezitzaile bat du, zuzendaritza-aldian zehar gauzatzen diren zenbait jarduerak osatzen dutena. Jarduerak bi ikuskarik gauzatzen dituzte: galdera-sorten bidez informazioa eskatzen diete, gutxienez, aginte organoetara, eta ikastetxeko jardueren plangintzarako eta antolamendurako baliabideak aztertzen dituzte.

Ebaluazioaren bigarren partea zuzendariak lau urteko zuzendaritza-aldia bukatzean idatzi behar duten txostena da. Txostenean lau urteetan izandako lorpenen ebaluazioa sartu behar da, eta, baita ere, zuzendaritza proiektuaren betetze-mailaren ebaluazioa eta aurkitutako oztopoen eta izandako laguntzaren deskribapena. Horrez gain, zuzendariak karguan lau urteko beste aldi batean jardutea aukeratzen badu, aurreko zuzendaritza proiektuaren eguneratzea sartu behar du txostenean.

2.3.3. Proiektu global batean oinarritutako ikastetxe-sareak

Gure hezkuntza-sistemako sare publikoan hiru ikastetxe-sare daude aitorturik, Amara Berri, Ikaskuntza Komunitateak eta Kalitatea Hezkuntzan, bakoitzak bere antolamendua eta ikaste-irakaste eredia dituelarik.

Sailak, ikastetxe-sare horien garapenaren aldeko jarrerarekin, lau helburu lortu nahi ditu:

- Etengabeko ikaskuntzaren ideia gauzatzea, ikaskuntza eraginkor bezala ulerturik.
- Elkarlanerako aukera eskaintzea, profesionalek euren sinismenak eta jardunbideak argi eta garbi erakus ditzaten, berrikuntzak sortzen diren lekutik harantzago zabaldu ahal izateko.
- Ikastetxe osorako proiektu globalak sustatzea, ikasleen emaitzak hobetzeko.
- Irakasleen profesionalizazioa, esperientzien elkartrukea, prestakuntza jardunaldiak eta abar bultzatzea.

Ikastetxe horien ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- **Amara Berri**

Amara Berri ikastetxe-sarea Haur eta Lehen Hezkuntzako 18 ikastetxe publikok eta itunpeko batek osatzen dute. Honako ezaugarri hauek ditu:

- Ikastetxeen arteko elkarlanean oinarritutako proiektuak ikastetxe bakoitzeko proiektua finkatzen eta sendotzen laguntzen du.
- Ikastetxeak hobeto egituraturik eta antolaturik daudenez, ikuspuntu sistemikotik kide berriak sar daitezke ikastetxeko proiektu globalak ondorio larririk sufritu gabe.
- Ikastetxeak Amara Berri sistemako kideak izateaz gain eta sistema partekatzeaz gain, sare bidezko elkarlana sortzen da.

- Ikastetxe bakoitzaren izakera eta nortasuna kontuan izanik, eremu komun bat planteatzen da, ardatz partekatuak dituen:
 - Planteamendu metodologikoa eta ikastetxearen kontzepzioa.
 - Ikasleen kontzepzioa. Ikasleengan oinarritutako pedagogia.
 - Partaidetza, inplikazio eta erantzunkidetasun printzipioak. Egituraren antolamendua esku hartzeko oinarritzko tresna da.
- Prestakuntza estilo bat:
 - Ikastetxekoa eta ikastetxearentzat
 - Ikastetxeak etengabeko hobekuntza, aldaketa eta berrikuntza garatzen ditu, "eskola sortzen duen" talde-lanean.

Sarearen koordinazioa hiru mailatan gauzatzen da:

1. Zuzendaritza taldeen koordinazioa. Hilean bilera bat egiten da. Bileren helburua ikastetxeei orientabideak ematea da, hezkuntza-proiektuari eta curriculumari lotutako alderdi guztiez eta baita ikastetxearen antolamenduaz eta funtzionamenduaz ere.

2. Amara Berri ikastetxeko topaketak. Hiruhilabete behin ikastetxe-sareko irakasleak biltzen dira eguneroko lanerako materialak eta estrategiak garatzeko, zehazteko eta sortzeko.

3. Aholkularien bisitak ikastetxeetara, arreta eta laguntza banan-banakoagoa eskaini ahal izateko.

- **Ikaskuntza Komunitateak**

Ikaskuntza Komunitateak sarea 33 ikastetxek osatzen dute, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, baina baita DBHkoak eta HHIkoak. Bere ezaugarri nagusia komunitate osoaren elkarlana da ikasle guztiek eskola-arrakasta eta bizikidetzaren egokia lortzeko. Kalitateko ikaskuntza guztiontzat ikurritzaren pean, ikaskuntza dialogikoan oinarritutako zenbait jardunbide garatzen dute:

- Lehentasuneko Batzordeak

Komunitate osoaren "eskola idealaren" ametsetik eta ingurunearen analititik aukeratu dira lehentasunak. Lehentasunak gauzatzeko, irakasleak, familiak, ikasleak eta beste agente batzuk biltzen dituzten batzorde mistoak antolatzen dira. Ikastetxea batzorde horietan oinarriturik antolatzen da.

- Talde interaktiboak

Irakasleak prestatzen dituen jarduerak ikasleek talde heterogeneoetan gauzatzen dituzte, elkarrekin eta elkarlaguntza dinamizatzen eta bultzatzen duten borondatezko pertsonen laguntzaz. Horrela, ezagupenak eskuratzeko gain, gauzak azaltzen, argudiatzen, eztabaidatzen, entzuten eta elkarri laguntzen ikasten dute.

- Literaturari buruzko solas-taldeak

Ikasleek literatura unibertsaleko lanik onenak irakurtzen eta komentatzen dute. Solas-taldeak familientzat, irakasleentzat eta beslako agenteentzat ere antolatzen dira. Solas-taldeetako metodologia elkarreraginean eta solasaldian onarritzen da.

– Orduetgia luzatzea

Ikastetxea denbora luzeagoan egoten da irekita, eskolaz kanpoko orduetgian, komunitatearen laguntzari esker. Askotariko pertsonak jarduten dute lanean: ikasleei etxerako lanekin laguntzen, irakurketa, hizkuntzen ezagupena, teknologia berriak eta abar indartzen. Modu horretan ikasleek eskola-orduegian ez dute ikasgelatik irten behar indarketa edo errekupeazio saioak egiteko, eta saio horietarako baliabideak ikasgela arruntean erabiltzen dira ikasle guztien mesedetan.

– Senitartekoen prestakuntza

Irakasleen prestakuntzak, senitartekoen prestakuntzak eta ikasleekin bizi diren pertsona guztien prestakuntzak eragin handia dute ikasleen ikaskuntzan. Horretarako, prestakuntza saioak antolatzen dira kolektibo edo talde bakoitzarentzako, bere eskarien eta beharren arabera. Komunitate osoarentzako prestakuntza saio orokorrak ere antolatzen dira.

Ikastetxe-sarearen koordinazioa zonaldeka egiten da: Lasarte, Bilbo eta Durango. Bilerak hilabeteko maiztasunez egiten dira goiz oso batean zehar. Bileren hasierako partean solas-talde bat antolatzen da (sarearen bereizgarriak partekatzeo eta sakontzeo), eta bigarren partean didaktika, metodologia eta antolamenduaren inguruko alderdiak lantzen dira taldeka.

Urtean behin ikastetxe guztien bilera egiten da jardunbide egokiak partekatzeo.

• **Kalitatea Hezkuntzan**

Kalitatea Hezkuntzansarea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 56 ikastetxek osatzen dute, eta euren ezaugarriak honako hauek dira:

- Xedea, ikuspegia eta plan estrategikoa gauzatzea eta urteko plangintzan eta txostenetan sartzea, eskola-komunitate osoaren parte hartzea bultzatuz.
- Irakaslearen koadernoak. Irakasleak bertan gauzatzen ditu curriculum plangintza, metodologia, ebaluazioa eta tutoretzari dagozkion alderdi guztiak, hezkuntza proiektuan oinarrituak.
- Harrera plana ikastetxera datozen ikasle, irakasle eta familia berrientzat, hezkuntza proiektua ezagutu ahal izan dezaten eta partaidetza eta ikastetxeko giroa hobetzeko.
- Etengabeko ebaluazioaren sistema, hobekuntza-planak finkatzen laguntzen duten adierazleen bidez.

- Lan txukuna, adostua, eraginkorra eta atsegin-emailea sustatzen duen kultura, talde lana ahalbidetzen duena.
- Ezagupen partekatua bultzatzen duen sare bidezko lanaren aberastasuna, gogoetarako eta ikastetxeetan egin beharreko lanerako laguntza, adorea, konfiantza eta lan partekatuak ematen duen segurtasuna.

Ikastetxe-sarearen koordinazioa bost taldetan egiten da, proiektua abian jarri zeneko ikasturtearen arabera. Talde batzuetan bi orduko koordinazio-saio bat egiten da hilean behin; beste talde batzuetan lau orduko saioa bat egiten da hiruhilean behin. Taldeek hiru arlotan lan egiten dute: irakaslanari dagozkion prozesuen diseinua (programazioa, ebaluzioa, tutoretza...), jardunbide egokiak identifikatzea eta abian jartzea, eta irakaslanaren autoebaluazioa.

Horrez gain, prestakuntza orokorreko saio bat egiten da urtean behin sareko ikastetxe guztientzat.

Aholkulariak ikastetxeetara joaten dira arreta eta laguntza banan banakoagoa emateko, bai prozesuen diseinuaren arloan baita ikastetxearen antolamenduaren arloan ere.

2.4. Irakasleen prestakuntza eta berrikuntza ikastetxeetan

Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak –azken deialdia 2010-11 ikasturtean izan zen– aztertzen dira, eta, baita ere, Berritzeguneetako ikastaroak eta mintegiak, Garatu planeko ikastaroak eta hiru plan edo proiekturen garapena: Hezkuntza Hirueledunaren Markoa, Eskola 2.0 eta Bizikidetzeta Plana.

Aipatu behar da aldi honetan *Eskola muinbakarraren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016* onartu dela, ikasle moten aabera ataletan banatua (ikus txosten honen 1.4 azpiatala).

2.4.1. Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak

ISEI-IVEIk ebaluazio diagnostikoari buruz egindako txostenek ikastetxeen antolamenduaren inguruko informazioa eskaintzen dute, ikastetxeetako zuzendaritzek bete zuten berriazko galdera-sortatik ateratakoa. Izan ere, 2011ko ebaluazioko emaitzen tostenak eta aldagaien analisiaren txostenak informazioadute 2010-11 ikasturteko irakasleen prestakuntza planei buruz, besteak beste, landutako gaien ingurukoa eta ikastetxeei aholkularitza zenbitzia ematen dieten erakundeen ingurukoa.

Ikastetxeen bi herenek, prestakuntza planetarako, Eskola 2.0 planari eta IKT teknologiei buruzko gaiak aukeratzen dituztela egiaztatu daiteke, metodologia

alderdiei buruzko gaiekin batera. Ikastexeen erdian baino gehiagotan hizkuntzaren, curriculumaren eta bizikidetzaren inguruko gaiak lantzen dira, etapen artean ia ezberdintasunik ez dagoelarik. Bizikidetzaren planak ikastetxe guztietan landu ziren aurreko ikasturteetan.

Prestakuntza planetarako ikastetxeen erdiak baino gehiagok aukeratutako gaiak, ikastetxe guztien ehunekoetan. 2010-11 ikasturtea. ED-2011 txostena (ISEI-IVEI)

	LH	DBH
Eskola 2.0, Inform. eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	77	71
Metodologiari buruzko gaiak	73	68
Hizkuntzari buruzko gaiak	61	60
Curriculumari buruzko gaiak	60	59
Bizikidetzaren plana	51	54

Prestakuntza ematen duten erakundeei dagokienez, Berritzeguneak dira nagusi, ia % 90eko proportzioan, etapen artean eta hezkuntza-sareen artean ezberdintasun handirik egon gabe. Agian proportzioa apur bat handiagoa litzateke Haur eta Lehe hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

Itunpeko ikastetxeek prestakuntza ematen duten erakunde pribatuetara ere jotzen dute kasu askotan (% 79), eta ikastetxe-sareen bidezko prestakuntza gehiago erabiltzen dute (% 43) ikastetxe publikoek baino (% 18). Ikastexeen erdiak gutxi gora behera era autonomoan gauzatzen dituzte zenbait proiektu, kanpoko aholkularitza erabili gabe, batez ere Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek (% 65).

Ikastetxeen % 20 inguruk unibertsitatera jotzen dute prestakuntza planak egiteko, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek hein txikiagoan (% 6).

Ikastetxeei prestakuntza planak egiteko aholkua ematen dieten erakundeak, ikastetxe guztien ehunekoetan. 2010-11 ikasturtea. ED-2011 txostena (ISEI-IVEI)

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Itunpeko ikastetxeak</i>	
	LH	DBH	LH	DBH
Berritzeguneak	94	88	86	86
Prestakuntza erakunde pribatuak	24	9	79	79
Modu autonomoan	47	65	49	51
Ikastetxeen arteko prestakuntza	21	14	43	43
Unibertsitatea	6	20	19	23
Bestelakoak	9	10	20	22

Sailaren *Hezkuntzako prestakuntza eta berrikuntza proiektuei* dagokienez, ohiko bertsioan, azken deialdia, 1,23 milioi euroko aurrekontuarekin (EHAA, 2010/08/25), eta ondorengo ebazpena (EHAA, 2011/03/07) 2010-11 ikasturtean egin ziren.

2011-12 ikasturteko deialdia Agindu bidez egin zen (EHAA, 2011/05/17) itunpeko ikastetxeentzat mugaturik. Ikastetxe publikoentzako deialdia Hezkuntza Sailordetzaren ebazpen baten bidez egin zen. Aurreko ikasturteetako arautegiari

dagokionez, oinarrizko aldaketa bat egin zen: ikastetxe bakoitzak "prestakuntza/berrikuntza" proiektu global bakar bat gauzatu zezakeen, eta horretarako hiru baldintza eskatzen ziren:

- Oinarrizko erreferentzia bezala ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntza-plana hartzea.
- Arreta bereziki ikaste-irakaste prozesuetan eta oinarrizko konpetentzien garapenean jartzea.
- Ikastetxearen planteamendu globala kontuan hartzea, eta baita abian jarritako ekimenak: Eskola 2.0, hizkuntza proiektuak, aniztasunaren trataera, ikastetxeko elkarbizitza, zientzia hezkuntza eta sexuen arteko berdintasuna.

Baldintza berriekin proiektu kopurua ikaragarri jaitsi zen, 2.161etik 644ra, taulan azaltzen den bezala; kontuan izan behar da lehen kasuan prestakuntza-ekintzak direla, eta bigarren kasuan 644 ikastetxeren proiektu globalak.

a) Proiektu kopuruaren bilakaera prestakuntza-ekintzaren arabera 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean

	2009-10	2010-11	2011-12
Berrikuntza proiektu globalak	30	18	--
Berrikuntza ekintzak edo proiektuak	1.050	1.215	487
Prestakuntza proiektuak	782	709	
Trukeak	--	95	--
Hizkuntza proiektuak*	--	94	157
Guztira	1.862	2.161	644

(*) 2011. urtean, MET (39), Comenius (40) eta eleaniztasun (15) proiektuak sartzen dira. 2011-12 ikasturteko datuetan atzerriko hizkuntzak ikasteko ikastetxeetan antolatutako 40 prestakuntza ikastaro sartzen dira.

Parte hartzea apur bat handiagoa izan zen en ikastetxe publikoetan.

b) Proiektu kopuruaren bilakaera ikastetxe motaren arabera (hezkuntza-sarea eta etapa) 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen artean

	2009-10	2010-11	2011-12
Publikoak. Haur eta Lehen Hezkuntza	851	827	312
Publikoak. Bigarren Hezkuntza	483	531	122
Itunpekoak	528	803	210
Guztira	1.862	2.161	644

2011-12 ikasturteko proiektuek ikastetxe bakoitzak ebaluzio diagnostikoaren hobekuntza-planetarako aukeratutako gaiak biltzen zituzten, eta hezkuntza-sistema osoaren lehentasunak adierazten zituzten, haien artean lehentasun-lerro nagusiak hizkuntzak (249 ikastetxek aukeratua) eta curriculum berria eta giltza-konpetenziak (122) izan zirelarik, eta hein txikiagoan, IKT teknologiak (64) eta bizikidetzak (47).

c) Ikastetxeetako prestakuntza/berrikuntza-proiektuetan gehien aukeratutako lehentasun-lerroak. 2011-12 ikasturtea

Lehentasun-lerroa	2011-12
Hizkuntzak	249
Curriculum berria eta giltza-konpetentziak	122
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	64
Bizikidetzeta eta hezkuntza-komunitatea	47
Giizarte eta kultura aniztasuna	17
Ikaskuntzaren kalitatea. Arrakasta guztientzat	13

Ikastetxeek proiektuak gauzatzeko erabili zuten *hizkuntzari* dagokionez, ia erdiak (% 46) euskara hutsa erabili zuten, hein handixeagoan sare publikoan (% 49) sare pribatuan (% 40) baino. Proiektuen % 41 gaztelaniaz edo bi hizkuntza ofizialetan gauzatu ziren, eta proiektuen % 13 atzerriko hizkuntza batean gauzatu ziren, batez ere ingelesean, bi urte lehenago horrelako proiektuak % 4ra heltzen ez zirelarik (2.4 eranskina).

Berritzeguneen 18 zonaldeen arabeko banaketan, Ordizia, Zarautz, Lasarte, Gernika eta Eibarrekoetan berrikuntza-proiektuen % 60 baino gehiago euskaraz gauzatu ziren.

Abando, Sestao, Leioa, Txurdirnaga, Ortuella eta Barakaldoko proiektuen % 50 baino gehiago gatelaniaz gauzatu ziren.

Ingelesa gehien erabili zeneko zonaldeak Leioa, Gasteiz-1, Txurdirnaga eta Gernika izan ziren, proiektuen % 15ean baino gehiagotan (2.5 eranskina).

2.4.2. Berritzeguneen prestakuntza-jarduerak

Berritzeguneek ikastetxeei prestakuntza ematen edo antolatzen dietebai ikastetxean bertan edo Berritzegunean, ikastaroen edo mintegien bidez. Ikastaroak gehienetan laburrak izaten dira -10 orduetik gorakoak kontabilizatzen dira.

Azken lau ikasturteotako joera ikusita, Berritzeguneei egindako eskaria gero eta handiagoa da mintegien modalitatean eta mantendu egiten da ikastaroen modalitatean.

Berritzeguneen prestakuntza-eskaintzaren bilakaera. Ikastaroak eta mintegiak 2011-12 ikasturtera arte.

	2008-09	2009-10	2010-11	2011-12
Ikastaroak	341	483	435	386
Mintegiak	240	291	257	321

Bai ikastaroetan bai mintegietan, gehien eskatzen diren gaiak Eskola 2.0 programaren eta IKT teknologien ingurukoak dira. Honako gai hauek ere eskari handia izaten dute: hezkuntza premia bereziak, batez ere ikastaroetan; gizarte eta

kultura aniztasuna, azken ikasturtean asko hazi dena; aurreko atalean azaldutako eskola-lidergoa eta zuzendaritza; hizkuntza normalkuntza eta bizikidetzatza (2.6 eranskina).

Berritzeguneez antolatutako ikastaroen eta mintegien artean eskari handienekoak. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak

<i>Gaia</i>	<i>Ikastaroak</i>		<i>Mintegiak</i>	
	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12
IKT eta Eskola 2.0	92	96	40	76
Hezkuntza premia bereziak	50	48	29	29
Gizarte eta kultura aniztasuna	22	21	20	38
Eskola-lidergo eta zuzendaritza prozesuak	17	18	37	35
Hizkuntza normalkuntza	7	19	24	26
Bizikidetzatza	29	32	8	12

2.4.3. Garatu planeko ikastaroak

Garatu ikastaroetarako 2010-11 eta 2011-12 ikasturteetako deialdiak aginduen bidez egin ziren (EHAA, 2010/05/13 eta EHAA, 2011/05/09).

Bi ikasturte lehenagoko deialdiarekin konparatuz, ikastaro kopurua 287 tik 357ra hazi zen, bertan 9.502 irakaslek partu hartu zutelarik.

Garatu planeko ikastaroak 2009-2010 eta 2011-2012 ikasturteen artean

	2009-10	2010-11	2011-12
Eskainitako ikastaroak	332	374	435
Egindako ikastaroak	287	332	357
Parte hartu zuten irakasleen kopurua	--	8.247	9.502
Orduak guztira	--	10.720	12.786

Irakasle guztientzako ikastaro irekiak nagusi izan ziren.

Garatu planean egindako ikastaroak, etapen arabera. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak

<i>Etapia</i>	2010-11	2011-12
Orokorrak	162	234
Haur eta Lehen Hezkuntza	86	59
Bigarren Hezkuntza	74	53
Musika Irakaskuntza	6	2
Hizkuntza Eskola Ofizialak	4	7
Helduen Hezkuntza	0	2
Guztira	332	357

Ikastaroak emateko erabilitako hizkuntzari dagokonez, euskara eta gaztelania nagusi dira (% 31 bi kasuetan). Bi hizkuntza ofizialetan ikastaroen % 16 eman dira, eta ingelesak igoera ikusgarria izan du Garatu planeko ikastaro guztien % 20ra heldu arte.

Garatu planeko ikastaroak emateko erabilitako hizkuntza. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak

	2010-11	2011-12	Ikastaro guztien %
Euskara	113	101	% 31
Gaztelania	102	115	% 31
Euskara eta gaztelania	65	44	% 16
Ingelesa	50	91	%20
Frantsesa	1	4	% 1
Alemana	1	2	% 0

2.4.4. Zenbait plan eta proiektu garrantzitsuren garapena

Hezkuntza Marko Hirueleduna (MET), Eskola 2.0 programaeta Bizikidetza Plana dira, aurreko txostenean deskribatu genituenak. Hemen hasierako gauzapean jasotzen dira.

2.4.4.1. Hezkuntza Marko Hirueleduna

Hezkuntza Marko Hirueledunak¹²partaide kopuruan igoera handia izan zuen 2010-11 ikasturteko hasierako deialditik aurrera. Hasierako deialdian 40 ikastetxek parte hartu zuten, baina 2011-12 ikasturtean partaide kopurua hirukoiztu egin zen, 118 ikastetxek parte hartu baitzuten. Ikasle kopuruari dagokionez, bikoiztu egin zen, 3.457tik 7.324ra pasa zelarik.

Ikastetxe publikoak gehiengo badira ere (62 publiko, 56 itunpeko), ikasle kopurua bi aldiz handiagoa da itunpeko ikastetxeetan (4.644) ikastetxe publikoetan (2.680) baino.

Hezkuntza Marko Hirueledunean parte hartu duten ikastetxe, ikastalde eta ikasleen kopurua hasierako ikasturtearen arabera

		Jarraitu dutenak (2010-11)			Berriak (2011-12)			Guztira		
		Ikastetx.	Taldeak	Ikasleak	Ikastetx.	Taldeak	Ikasleak	Ikastetx.	Taldeak	Ikasleak
Publikoa	Lehen H.	9	31	620	31	62	1.240	40	93	1.860
	Bigarren H	7	19	380	15	22	440	22	41	820
Itunpekoa		24	91	2.457	32	81	2.187	56	172	4.644
Guztira		40	141	3.457	78	165	3.867	118	306	7.324

¹² http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dig3/es_2085/g3_c.html

Lurraldeen araberako banaketan, nolabaiteko proportzioa dago lurralde bakoitzeko eskola-biztanleriarekiko; Gipuzkoako lurraldean apur bat jaisten da, bertako ikastetxe publikoak bigarren deialdira arte ez baitziren sartu. .

Hezkuntza Marko Hirueleduean parte hartu duten ikastetxeen kopurua, hasierako ikasturtearen arabera eta lurraldearen arabera

		Jarraitu dutenak (2010-11)			Berriak (2011-12)			Guztira			
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi
Publikoa	Lehen H.	2	7	0	6	15	10	8	22	40	40
	Bigarren H	1	6	0	2	10	3	3	16	22	22
Itunpekoa		4	12	8	8	18	6	12	30	14	56
Guztira		7	25	8	16	43	19	23	68	27	118

- **Hezkuntza Marko Hirueleduean parte hartu duten ikastetxeetako irakasleen prestakuntza**

Hezkuntza Marko Hirueleduean parte hartu duten ikastetxeetako irakasleen prestakuntza bi motatakoa izan da:

- Prestakuntza teorikoa, oinarrizkoa eta orokorra, irakasle guztientzako. Prestakuntzaren hasierako modulua da.
- Berriazko prestakuntza, mintegien bidezkoa, hizkuntza bateko irakasleentzako alde batetik (euskara, gaztelania edo atzerriko hizkuntza), eta atzerriko hizkuntzako irakasleentzako besteetik.

Jarraian, bi mota horietako prestakuntzen curriculumaren alderdirik garrantzitsuenak aztertzen dira. Bukaeran aipatzen diren jardunaldiak ere erantsi behar dira prestakuntzan.

a) Prestakuntzaren hasierako modulua

4 eta 6 ordu arteko bi saiotan banatzen da, eta Berritzeguneetako teknikariek ematen dute ikastetxeetan bertan honako helburu hauekin:

- METmarkoaren eraginari buruzko gogoeta sustatzea.
- Marko berriak dakartzan aldaketei buruzko zalantzak argitzea.
- Metodologiak hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan duen garrantzia azpimarratzea

Edukinik garrantzitsuenak elebitasuna eta eleaniztasuna izan dira, hizkuntza-komunikazioariko konpetentzia, hizkuntzak ezagutza-arloekin duen erlazioa eta ikaskuntza eraginkorra.

b) Berariazko mintegiak

Mintegiak laguntza handikoak dira erabakiak hartzeko eta lana planifikatzeko, eta prestakuntza partekatua eta erabilera komuneko materialak sortzea asko errazten dute talde-lanari esker.

2010-11 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera pate hartu nahi zuten irakasleen kopurua handitu egin zen eta zenbait egokitzapen egin behar izan ziren, batez ere prestakuntzaren emailen artean. Hasieran Berritzegune Nagusiko aholulariak izan ziren, baina bigarren ikasturtean zonaldeko Berritzeguneko hizkuntza aholkulariek gauzatu zuten prestakuntza.

Horrez gain, lan-karga handitu egin zen, urtean bi orduko 5 saiotik 8 saiora pasa baitzen.

Hizkuntzetako irakasleentzako mintegiaren ezaugarriak

	2010-11	2011-12
Iraupena	ikasturtean zehar, bi orduko bost bilera	ikasturtean zehar, zortzi bilera
Partaideak	euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzetako irakasleak	
Emaileak	Berritzegune Nagusiko hizkuntza aholkulariak	Berritzeguneko aholkulariak (LH eta BH gizarte eta hizkuntza eremukoak)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- Hizkuntzen ikas-irakaskuntzen inguruko orientabide didaktikoak partekatzea- Hezkuntza praktikak hobetzea- Hizkuntzen ikas-irakaskuntza bateratuan aurrerapausoak ematea	<ul style="list-style-type: none">- Praktika didaktikoak aztertzea eta hobetzea- Hizkuntzen Trataera Bateratuaren planteamenduetatik lan egitea- Material didaktikoa aztertzea eta partekatzea- Web 2.0ren klabeen bidez lan egitea
Edukiak	<ul style="list-style-type: none">- Ikasleengan Hizkuntza eta komunikazio-trebetasunak garatzeko orientabide didaktikoak- Komunikazio-proiektuak- IKTak eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzen erabilera	<ul style="list-style-type: none">- Irakurmenerako ebaluazio irizpideak eta adierazleak- Irakurmena lantzeko estrategiak- Testu idatziak ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak- Komunikazio-proiektuak- Web 2.0ren baliabideak
Partaide kopurua	65	90

Era berean, atzerriko hizkuntzako irakasleentzako mintegian (gehienetan, ingelesa), azken ikastaroko jardura material didaktiko berrien elkartrukera bideratu zen.

Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako mintegiaren ezaugarriak

	2010-11	2011-12
Iraupena	Ikasturtean zehar, bi orduko bost bilera	zortzi bilera
Hartzaileak	atzerriko hizkuntzatan curriculum arloak irakasten dituzten irakasleak	
Emaileak	Berritzegune Nagusiko hizkuntza aholkulariak	Berritzeguneko aholkulariak (LH eta BH gizarte eta hizkuntza eremukoak)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzetan irakasteko orientabide didaktikoak partekatzea - Hezkuntza praktikak hobetzea - Hizkuntzen eta curriculum edukien irakaskuntzan aurrerapausoak ematea - Material didaktikoa partekatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko beharrazane erantzuteko baliabideak eskaintzea - Irakasleen arteko elkarreragina eta elkarlana bultzatzea - Arloak ingelesez emateko metodologia egokienak lantzea - Praktika didaktikoak aztertzea eta hobetzea - Material didaktikoa aztertzea eta partekatzea - Web 2.0ren klabeen bidez lan egitea
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - CLIL - Komunikazio-proiektuak - IKTak eta ikas-irakaskuntza prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> - SIOP protokoloa - Koordinazioa - Web 2.0ren baliabideak
Partaide kopurua	45	66

c) Bestelako prestakuntza-jarduerak

Ikasturte guztietan, irailean eta martxoan, bi jardunaldi antolatu dira; lehenengoan adituek hartu dute parte, eta bigarrenean proiektuan parte hartu duten ikastetxeetako esperientziak aurkeztu dira.

Proiektuan parte hartu duten irakasleek lehentasuna izan dute Garatu planeko zenbait ikastarotan, eta 22 ikastaro berezi antolatu dira haientzako.

2.4.4.2. Eskola 2.0 proiektua

Programa 2009-10 ikasturtean hasi zen Lehen Hezkuntzako 5. mailan, eta 6. mailara hedatu zen 2010-11 ikasturtean, eta DBHko 1. mailara 2011-12 ikasturtean, ikastetxe guztietan eta ikasle guztientzako.

Ikastalde eta ikasle kopurua Eskola 2.0 programan. 2009-10 eta 2011-12 ikasturteen arteko bilakaera

<i>Irakasmaila</i>	2009-10		2011-12	
	<i>Ikastaldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikastaldeak</i>	<i>Ikasleak</i>
LHko 5. maila	915	17.863	957	18.833
LHko 6. maila	--	--	916	19.315
DBHko 1. maila	--	--	909	19.662
Guztira	915	17.863	2.782	57.810

Eskola 2.0 proiektuak helburu hauek ditu:

- Ohiko ikasgelak ikasgela digital bihurtzea
- Irakasleak IKT teknologietan gaitzea
- Ikasgeletako metodologia aldaketa bultzatzea
- Amildegi digitala murriztea
- Lan dinamikoa, partehartzailea, sare bidezkoa sustatzea, baste ikastetxe batzuekin elkarlanean
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea

Proiektuan parte hartu duten irakasleen iritzia hasierako bi ikasturteetan egindako inkesten emaitzetan adierazten da; erantzun kopurua (233) adierazgarria ez bada ere, orientagarri samarra izan daiteke¹³. Ondoriorik behinenak jasotzen dira.

- ***Ikaste-irakaste prozesua gauzatzeko emandako teknologia-tresneriaren erabilera***
Irakasleen % 87k ordenagailuak erabiltzen ditu oso sarri; % 30ek nolabaiteko zailtasunez erabiltzen ditu; % 15ek eskola-saio gehienetan erabiltzen ditu.
- ***PDI (pantaila digital interaktiboa) pantailaren integrazio mailaikasgelako ohiko lan-jardueretan, kasuan kasuko metodologia erabiliz.***
Irakasleen % 52k eskuarki erabiltzen du; % 9k ohiko arbela baino gehiagotan erabiltzen du; % 12k pantaila hori baino ez du ia erabiltzen.
- ***Heziketa-programen eta tresnen erabilera***
Irakasleen % 63k 2.0 eb gunea erabiltzen du; % 6k bakarrik ez du horrelako tresnarik ezagutzen.
- ***IKT teknologien erabilera irakasleen aldetik***
Inkesta erantzun zuten irakasleen % 75ek baino gehiagok honako honetarako erabiltzen ditu IKT teknologiak:
 - Ikasleei Interneten informazioa bila dezaten eskatzeko
 - Ikasleentzako material edo jarduera didaktikoak prestatzeko edo aukeratzeko.
 - Sarean eduki eta material digitalak bilatzeko eta aukeratzeko
 - Ikasleek lanak testu-prozesagailuen bidez egin ditzaten eskatzeko
 - Ikasleei lanak aurkezpen digitalen bidez egin ditzaten eskatzeko

¹³ Beste inkesta bat egin zitzaizen zuzendaritza taldeei, IKT dinamizatzaileei eta 2011-12 ikasturtean programan parte hartu zuten irakasleei, baina une honetan ondorioak ez daude eskuragarri.

– **Ikasleen motibazioa areagotzea**

IKT teknologiako prestakuntza parte hartu duten irakasleen iritziz, ikasleen motibazioa, informazioa aurkitzeko gaitasuna eta gaitasun digitak orokorra hobetu egiten da. Hein txikiagoan hobetzen diren gaitasunak talde-lanerako eta adierazpenerako gaitasuna dira.

	Asko edo nahiko	Gutxi edo bat ere ez
Gelako lanetan motibaturik eta inplikaturik daude	% 96	% 4
Errendimendua hobetu dute	% 52	% 48
Gaitasun digitala eta informaziorako gaitasuna garatu dituzte	% 83	% 17
Taldean eta elkarlanean lan egiten dute	% 46	% 54
Badakite informazioa iturri eta baliabide ezberdinetan bilatzen	% 82	% 18
Badakite euren burua hobeto adierazten eta komunikatzen	% 43	% 57
Irakasgaiko ezagupenak hobeto eskuratu dituzte	% 69	% 31
Badakite zenbait hizkuntza (testuala, ikonikoa, ikus-entzunezkoa) erabilten euren burua adierazteko	% 60	% 40

– **Bestelako adierazleak**

Irakasleen % 54k uste du IKT teknologiek eragin handia dutela ikasgelako aniztasunari erantzutean. Beste alde batetik, ikasleen % 79 gai da Eskola 2.0 programako tresnen bidez bere eduki propioak sortzeko, bai testu formatoan (% 41), multimedia formatoan (% 28) edo web 2.0 aplikazioak erabiliz (% 10).

2.4.4.3. Bizikidetzaren Plana

Eusko Legebiltzarrak 2010eko maiatzean Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea izeneko plana onartu zuen, eta haren ondorioz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2010-11 eta 2011-12 ikasturteetan zehar planaren 9.3 puntuan aurreikusten ziren zenbait ekintza gauzatu zituen.

- **2010-11 ikasturtean** bi ekimen nagusi abiarazi ziren:
 - Eskola Bakegune proiektua abian jartzea. Proiektuak baliabidetegi bat du, askotariko ikusentzunezko eta idatzizko dokumentazioa duena (www.eskolabakegune.euskadi.net), eta bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza-jarduerak garatzeko gomendioak eta biktimen lekukotasunak ematen ditu.
 - Mintegi bat, bi orduko zortzi saiotan gauzatu zena. Bertan 54 ikastetxek hartu zuten parte, honako banaketa honekin:

<i>Lurraldea</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Itunpeko ikastetxeak</i>	<i>Ikastetxeak guztira</i>
Araba	7	6	13
Bizkaia	15	11	26
Gipuzkoa	13	2	15
Euskadi	35	19	54

Mintegiaren helburuetako bat hala eskatzen zuten ikastetxeak indarkeriaren biktimen lekukotasun zuzenaren harrera prestatzea zen, eta baita hezkuntza-jarduera hori ikastetxeko Bizikidetzaren Planean eta Hezkuntza Proiektuan sartzea ere.

Haien esperientzia ikasleei kontatzen zieten pertsonak, euren aldetik, egokitze-saio batzuetan prestakuntza bat jasotzen zuten, eta Xabier Etxeberria adituaren iritziz, hezkuntza-jarduera gauzatzeko baldintza batzuk bete behar zituzten:

- Hezkuntza-dinamika batean sartzearen aldeko jarrera
 - Komunikaziorako konpetentzia
 - Aldez aurretik dolu prozesu pertsonala gauzatzea
 - Kontakizuna ikuspegi ez-alderdikari batetik onartzea
- **2011-2012 ikasturtean** Berritzeguneek eta Sailak, Garatu planaren bidez, 26 ikastaro eta mintegi bat antolatu zituzten. Parte hartzea honako hau izan zen:

	<i>Emaileak</i>	<i>Jarduera kopurua</i>	<i>Partaide kopurua</i>
Ikastaroak	Berritzeguneak	11	129
	Garatu	15	205
Jardunaldiak		1	196

Berritzeguneek antolatutako ikastaroen izanburuak hauek izan ziren:

- Gatazkan eta gatazkarako hezi
- Baketik-en IZAN proposamena
- Ikasketa eta zerbitzu solidarioa
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Garatu planaren barruan antolatutako ikastaroen izenburuak:

- Baloreetan oinarritzen den hezkuntza: giza eskubideak eskola demokratikoan (3)
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: Garapen praktikoa eta gako metodologikoak (3)
- Antzerkia, gatazka eraldatzeko tresna bezala (2)
- Dolua eta galerak (3)
- Jazarpen jokaerak eskolan: gaiari heltzeko hezkuntza-estrategiak (3)

- Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarterako eta herritartasunerako gitasuna lantzeko proposamena (1)
- Berdintasunerako eta sexu-indarkeriaren prebentziorako heziketa (1)

Bizikidetza planen koordinatzaileentzako eta planak abiarazteko ardura zuten irakasleentzako **jardunaldiei** dagokienez, landutako gaia "Bizikidetza sarean" izan zen, eta 196 irakaslek parte hartu zuten.

Bestalde, Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapena eta mota guztietako indarkeriaren biktimen lekukotasunak izeneko mintegian zortzi irakaslek parte hartu zuten.

Bukatzeko, aipatu beharrekoa da 2011ko abenduan hezkuntza eta gizarte agente gehienek *Bizikidetzarako hezkuntzaren aldeko konpromisoa* sinatu zutela, haien artean Euskadiko hiru unibertsitateak, itunpeko sareko patronalak, ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteak, bi hezkuntza-sareetako familien konfederazioak, CCOO eta UGT sindikatu etako irakaskuntza-federazioak eta Euskadiko Eskola Kontseilua bere ere.

2.5. Ondorioa eta proposamenak

2011ko ebaluazio diagnostikoak hurrenez hurreneko hiru urteko ziklo bat ixten du, 2012an etenaldi bat egon delarik. ISEI-IVEI Irakas-Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundearen plangintzaren arabera, ebaluazio diagnostikoa hurrenez hurreneko bi ikasturtetan egingo da, hurrengo kasuan 2013an eta 2014an, eta hirugarren urtean ez da ebaluaziorik egingo.

Ebaluazio diagnostikoaren sendotzeak hainbat aldaketa ekarri ditu, ez bakarrik ikastetxeetako plangintzan eta ebaluazioaren kontzeptuaren hedaduran, baizik eta sistemaren beste estamentu batzuetan, Berritzeguneetan bereziki. Berritzeguneetan aholkularitza eskariak handitu egin dira eta lana ikastetxeetan ebaluazioan antzemandako eta hobekuntza-planetan adierazitako berariazko beharrei erantzuteko egokitu behar izan dute.

Hori dela eta, ebaluazioa egin deneko hurrenez hurreneko hiru urteetan zehar hezkuntza-sistemako ikastetxeetan oro har hobekuntzak egon direla ikusten da, adierazgarriagoak Lehen Hezkuntzako etapan. Era berean, errendimendu-maila baxuan dauden ikasleen ehunekoa jaitsi egin dela egiaztatu da, jaitsieraren intentsitatea etapa batetik bestera eta urte bakoitzean ebaluatutako kompetentzia batetik bestera aldatu egiten delarik. Ebalualdietan zehar gorabehera bat egon da emaitzetan, 2009tik 2010rako hobekuntza handiagoa izan zen 2010etik 2011rako baino.

(p5) Ondorioz Kontseiluak hezkuntza-sistema osorako hobekuntza-helburu kuantitatiboak finkatzearen komenigarritasuna planteatu nahi du, eta, baita ere, urte bakoitzean ebaluatzen diren konpetentzietako errendimendu-maila baxurako eta errendimendu-maila garaierako, ikastetxeetako hobekuntza iraunkorra eta jarraitua egiteko bide bezala.

Beste alde batetik, ebaluazio diagnostikorako deialdiaren aginduan jasotzen den bezala, hobekuntza-prozesuen ardurak ikastetxeena da, aholkularitza, laguntza eta prestakuntza Berritzeguneen eta Ikuskaritzaren eginbeharrak dira, eta ebaluazioaren diseinua, gauzapena eta analisisa ISEI-IVEIren eginbeharrak dira.

Egoera horretan, ikastetxe batzuek behin eta berriro ikasleei balio erantsi handia ekartzen dietela egiaztatu da, ikasleek euren gizarte, ekonomia, kultura eta hizkuntza-egoera kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza nabarmenki hobegoak lortzen baitituzte. Aldi berean, kontrakoa gertatzen da beste zenbait ikastetxetan, ikasleek behin eta berriro espero baino emaitza apalagoak lortzen baitituzte eta, beraz, balio erantsi txikia ekartzen baitiete ikasleei.

Balio erantsi handia ekartzen duten ikastetxeei dagokienez, Sailak aldi honetan zehar ikerlan bat egin du, oraindik argitaratu gabea, ikastetxe horietako jardunbide egoki bereizgarriak identifikatzeko eta, ahal den neurrian, gainerako ikastetxeetara zabaltzeko eta jardunbideak hobetu ditzaten.

Hori dela eta, ikasleek kalitate handiko hezkuntza jasotzeko duten eskubidearen ikuspuntutik eta errendimendu-maila baxuko emaitzen hobekuntzaren ikuspuntutik, Kontseiluak irizten du arreta berezia jarri behar dela emaitzarik apalenak lortzen dituzten ikastetxeetan eta, baita ere, emaitza absolutuak gorabehera, ikasleei balio erantsi txikiagoa ekartzen dieten ikastetxeetan.

(p6) Horretarako Kontseiluak Sailari eskatzen dio emaitzarik apalenak lortzen dituzten ikastetxeetarako eta balio erantsirik txikiena ekartzen duten ikastetxeetarako hobekuntza-plan bat abian jar dezan, sistemako antolamendu-baliabideak esleitzerakoan lehentasuna eman diezaien, eta ikastetxe horiek eta Administrazioa inplikatu ditzan hobekuntza-maila ebaluagarriak lortzeko.

Ebaluazio horien baldintzetako bat emaitzen isilpekotasuna da. Kontseiluak irizten du baldintza hori ez dela oztopoa izan behar ikastetxearen, Berritzegunearen eta Ikuskaritzaren arteko elkarlanerako. Berritzeguneetako zuzendarien ustetan, hiru hezkuntza-agenteen elkarlana oso garrantzitsua da aholkularitza onuragarria izan dadin.

(p7) Kontseiluak, ikastetxeei zerbitzu eraginkorragoa eskaini ahal izateko, proposatzen du prozesuan parte hartzen duten kanpoko bi instantzien artean (Ikuskaritza eta Berritzeguneak) koordinazio hobegoa eta informazio truke arinagoa izateko ahaleginak egin daitezzen. Horrekin batera, Aginduan aurreikusten den hasierako bilera –Ikuskaritza eta Berritzegunea ikastetxeko koordinazio taldearekin– sistematikoki egitea bidezkoa dela irizten du.

Ebaluazioak ikastetxe publikoetan bigarren dimentsio bat hartzen du 2011-12 ikasturtetik aurrera abian jarriko den zuzendaritzaren ebaluazioarekin. Ezaugarriak kontuan izanik, ikastetxearen antolamenduaren alderdi guztien ebaluazioa da; garrantzi handia ematen dio parte hartzeari, eskolako giroari eta beste ikastetxeekiko elkarlanari, eta beste alde batetik, plangintzaren eta kudeaketaren alderdi guztiei, baina beste guztien gainetik, lidergo pedagogikoari.

(p8) Horri dagokionez, Kontseiluak bere adostasuna adierazi nahi du Sailak bultzatutako zuzendaritza ereduarekiko, abian jarriko den zuzendaritza lanaren ebaluazio prozesuarekiko eta ebaluazioaren edukiekiko hain zuzen ere.

Ildo beretik, Kontseiluak komenigarritzat jotzen du ebaluazioaren kultura hori progresiboki irakaskuntza osora hedatu dadin, eta bere esker ona eman nahi die era autonomoan edo ikastetxe-sare baten barruan kultura hori gauzatzeko hasiak dauden ikastetxeei.

Ebaluazio diagnostikoaren prozesuak eta ondorengo hobekuntza-planek eragin nabarmena izan dute ikastetxeen berrikuntzan eta irakasleen prestakuntzan, eta ikastetxeetan, planek hobekuntza erreala ekarri duteneko ikastetxeetan behintzat, aldaketaren motorra bilakatu dira. Beste alde batetik, hobekuntza-planak modu naturalean uztartzen dira lehentasunezko hiru lerroekin –hizkuntzak, teknologia berriak eta bizikidetzak–, hirurak ikaskuntzen objektua, tresna edo testuingurua direlarik.

Hizkuntzetarako kompetentziek berebiziko garrantzia hartu dute gure hezkuntza-sisteman, eta euskara ikas-hizkuntzarik erabiliena izanik eta ikastetxeetako hobekuntza-plan askoren ardatza. Aukera metodologiko eraginkorra eta egiaztatua, eta batez ere ikastetxe bakoitzeko errealitatera egokitua, ezinbesteko tresnatzat har daiteke.

Atzerriko lehen hizkuntzari dagokionez, ingelesa gehienetan, adostasun handia dago hirugarren ikas-hizkuntza bezala eransteko, funtzsean horrela ikasten baitira hizkuntzak ikastetxeetan. Une honetan irakasgaiak ingelesez irakasteko gai diren irakasleen kopurua handitu behar dela pentsatu behar da, eta atzerriko hizkuntzek –ingelesak bereziki– gizarte bizitzan eta komunikabideetan duten presentzia urria azpimarratu nahi dugu.

(p9) Horren ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluak hizkuntzak egoki ikasteak kompetentzia guztietako emaitzak hobetzeko duen garrantzia azpimarratu nahi du, eta Sailari eskatzen dio orain arte lortutako giza baliabideak, baliabide materialak eta antolamendu baliabideak sendotu ditzan. Halaber, ikastetxeei gomendatzen die hiru hizkuntzen trataera bateraturako ereduak garatu ditzaaten.

Ikastetxeetako irakasleen egonkortasuna antolamenduaren elementu garrantzitsua da eta antolamenduan –eta azken batean ikasleen emaitzetan– eragin handia duen aldagaia da. Ikasleei balio erantsi txikiagoa ekartzen dieten ikastetxe askotan egonkortasun falta edo txandakatze handia ikusten da irakasleen artean

urtero. Behin-behinekotasun horrek bi motatako irakasleei eragiten die: behin betiko lanpostua lortu ez duten karrerako funtzionarioei eta aldi baterako irakasleei.

(p10) Horri dagokionez, Kontseiluak, azken boladan izen den hobekuntza aitortzeaz gain, irakasleen plantilen egonkortasunak ikastetxeetako hezkuntza-proiektuak sendotzeko duen garrantzia azpimarratu nahi du, eta horretarako Sailari eskatzen dio plantilen behin-behinekotasuna murrizteko neurriak har ditzan, bereziki egonkortasun faltarik handiena duten ikastetxeetan.

Azkenik, Kontseiluak atsegin handiz ikusten du gure hezkuntza-sistemaren osasun ona, eta dei egiten die agente guztiei orain arte izandako lorpenak defendatzeko, horrela sendotu eta hobetu ahal izan ditzagun.

3. atala: HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

3.1. Aldagai sozio-ekonomikoak eta hezkuntzaren finantzaketa

Hezkuntzaren finantzaketan eragin zuzena izaten du ekonomiaren bilakaerak eta baita diru-sarrera publikoen maila nahikoa bermatzeko hartzen diren neurriek ere.

Bost aldagai ekonomikorik Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean izan duten bilakaera aztertuko dugu: Barne Produktu Gordina (BPG), langabezia-tasa, zerga-bilketa eta BPGarekin duen erlazioa, zor publikoa eta hezkuntzako gastu publikoa.


Atala bukatzeko estatu mailan administrazio publikoen gastuak mugatzeari begira hartu diren lege-neurrien zerrenda aurkezten da.

- **BPGaren bilakaera**

Europako ekonomiaren krisi-egoerak eragin zuzena du Euskadiko eta gainerako estatu espainiarreko ekonomiaren martxan.

2009ko jaitsaldiaren ondoren, 2010ean eta 2011n hazkunde positibo txiki bat izan da aipatutako hiru esparruetan – Euskadi, Espainia eta EB (27)–, baina 2012an balio negatiboak izan dira berriro. Euskadiko ekonomiaren bilakaera gehiago hurbiltzen da Espainiakora Europako batez bestekora baino.

BPGaren bilakaera Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean (27) 2003 eta 2012. urtean




	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Europar Bat. (27)	% 1,5	% 2,7	% 2,2	% 3,5	% 3,2	% 0,7	%-4,1	% 2,0	% 1,5	%-0,4
Espainia	% 3,1	% 3,3	% 3,6	% 4,0	% 3,6	% 0,9	%-3,7	%-0,1	% 0,7	%-1,8
Euskadi	% 3,1	% 3,6	% 4,0	% 4,4	% 4,2	% 1,3	%-3,8	% 0,3	% 0,6	%-1,3

- **Langabezia-tasa**

BPGaren bilakaeraren eraginez, langabezia Euskadin Europan baino arinago hazi da, 2010eko % 9,7tik 2012ko % 12,1era¹⁴, Europako batez bestekoa (% 10,5) gainditu duelarik.

Espanian lan-merkatuaren jaitsiera askoz handiagoa izan da, langabezia 2012an biztanleria aktiboaren % 25era heldu baita.

Langabezia-tasaren bilakaera Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean (27) 2005 eta 2012. urteen artean




1. eta 2. ataletan beste aldagai sozio-ekonomiko batzuen portaera aztertu da, besteak beste pobrezia-tasa, hezkuntza munduan duen isla, dirulaguntzadunen ehunekoa eta ISEK indizea.

- **Zerga-bilketa eta BPGarekiko erlazioa**

Euskadin azken bi urteotan *zerga-bilketak* jaitsiera txiki bat izan du 2010ekoarekiko, 2007ko gehieneko zenbatekotik urrun.


Zerga-bilketa osoa Euskadin. 2002-2012 bilakaera



¹⁴ Euskadirako Eustaten datuak erabili dira: http://www.eustat.es/elementos/ele0000200/tbl0000209_c.html#axzz2PP1ruBQI INEren Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera (EPA), Euskadin 2012an langabezia-tasa % 15,9koa izan zen: <http://www.datosmacro.com/paro-epa/ccaa/pais-vasco>

Orain *presio fiskala*aztertzen badugu, hots, erakundeek kudeaketa publikorako zergak biltzearen bidez lortzen duten BPGaren ehunekoa, Euskadi (% 30) Espainiako batez bestekoaren (% 32) azpitik dagoela ikus dezakegu, eta Europar Batasuneko batez bestekotik hamar puntu beherago.

Presio fiskala, BPGaren ehunekoetan, Europar Batasuneko herrialdeetan 2011n.




Izan ere, krisialdi ekonomikoaren hasieratik zergen bidezko diru-sarrerak ekonomia baino askoz gehiago murriztu dira. 2007tik 2012rako tartea aztertzen badugu, BPGa %1 inguru bakarrik murriztu dela ikusten da, baina zerga-bilketa % 17 murriztu da.

- **Zor publikoa**

Zerga-bilketaren jaitsierak ekarri duen diru-sarreraren murrizketa orekatzeko, zor publikoaren baliabidea autonomia erkidegoetako batez bestekoa baino apur bat arinago hazi da. Azken bi urteotan 2,7 puntu igo da, BPGaren % 10,2ra heldu delarik; autonomia erkidegoetako batez bestekoa % 13,5ean dago, igoera txikiagoa (2,4 puntu) izan duelarik.

Zorra BPGaren ehunekoetan Euskadin eta autonomia erkidegoetako batez bestekoa. 2007-2012 bilakaera.



Autonomia erkidegoen artean 2012an zor metaturik txikiena zutenak Madril (% 8,7), Kanariar uharteak (% 9,1), Asturias eta Gaztela eta Leon (% 9,7) eta Kantabria (% 9,8) ziren. Egoera larriagoan daude Katalunia (% 21) eta Valentziako erkidegoa (% 20,2), eta ondoren Balear uharteak (% 16,7) eta Gaztela-Mantxa (% 16,6).

Autonomia erkidegoen zorrak 2012an (milioi €tan) eta BPGaren ehunekoa


Comunidades autónomas	Deuda miliones de euros	Deuda sobre el PIB regional porcentaje
Andalucía	15.373	10,6 %
Aragón	3.731	10,9%
Asturias	2.242	9,7%
Baleares	4.479	16,7%
Canarias	3.779	9,1%
Cantabria	1.301	9,8%
Castilla La Mancha	6.287	16,6%
Castilla y León	5.557	9,7%
Cataluña	42.000	21,0%
Extremadura	2.045	11,7%
Galicia	7.381	12,8%
La Rioja	960	11,7%
Madrid	16.572	8,7%
Murcia	3.055	10,8%
Navarra	2.725	14,5%
País Vasco	6.798	10,2%
Comunidad Valenciana	20.832	20,2%
Total	145.118	13,5%

- **Gastu publikoa hezkuntzan**

Europar Batasunak Hezkuntzako gastu publikorako erabiltzen dituen bi adierazleak izaera kualitatibokoak dira, hau da, hezkuntzan inbertitutako diru kopurua herrialdeko aberastasunarekin lotzen dute. Bi adierazle horietako erabiliena hezkuntzako gastu publikorako erabiltzen den BPGaren ehunekoa da.

Europako batez bestekoa 2009an % 5,5ean zegoen, 2006tik bost hamarren igo baitzen. Espainian igoera zazpi hamarretakoa izan zen, % 5era heldu zelarik. Euskadin % 4,5era heldu zen 2007ko % 3,7tik¹⁵. 2009. urtez geroztik jaitsi egin zen, eta 2012an % 4,2an dagoela esan daiteke.

Hezkuntzako gastu publikoa BPGaren ehunekoetan Europar Batasuneko herrialdeetan. 2009.



¹⁵ Aztertutako adierazleak zenbakitzaile bat du (gastu publikoa hezkuntzan) eta izendatzaile bat (Euskadiko BPGa). Sailaren aurrekontua da, alde handiarekin, gastu publikoaren osagai nagusia. 2007tik 2009ra % 19 hazi zen, 2.403 milioi eurotik 2.860 milioira pasa zelarik. Bestalde, Euskadiko BPGa jaitsi egin zen aldi hartan. Horren eraginez, adierazlea, 2007ko % 3,715tik abiatutik, % 21 igo zen, hots, % 4,5eraino.

Adierazle erlatibo horren balio apala, hala ere, oso bestelakoa izan daiteke adierazlea termino kuantitatiboetan kalkulatzenean, hau da, eskola-plaza baten kostean, eurotan adierazirik.

Eta horren arrazoia, lehen aipatu den bezala, Euskadiko biztanleko BPGa Europako eta Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoa izatea da (2010ko datuetan, % 37 handiagoa), inbertsio erlatiboen arteko aldea (Euskadiko % 4,5etik Espainiako % 5,0ra eta Europako % 5,5era) askoz txikiagoa delarik (% 10 eta % 18 txikiagoa hurrenez hurren, arestian aipatutako % 37 baino askoz txikiagoak).

Kostearen adierazlearen kalkulua eskola-plazako atal honen 3.3. puntuan jasotzen da.

- **Estatuan gastu publikoa murrizteko hartutako neurri nagusiak**

Aurreko txostenean aipatu zen bezala, Espainiako gobernuak *8/2010 Errege Dekretuaren bidez funtzionarioen soldata-masa* murrizteko neurriak arautu zituen. Neurri haiek Euskadiren kasuan 2010eko aurrekontuak aldatzen zituen *3/2010 Legean* arautu ziren.

Neurrien eragina Sailaren 2011n betearazitako aurrekontuetako 1. kontu-sailaren murrizketan antzematen da (ikus 2.1 azpiatala), ikastetxe publikoetako pertsonal-gastuak biltzen baititu, eta baita ere kontzertu ekonomikoaren moduluaren murrizketan.

Itunpeko ikastetxeen kasuan, epaiek langileei aurrez hitzartutako diru-kopurua oso-osorik kobratzeko eskubidea aitortu diete, eta horrek diru-sarreraren eta gastuen arteko desoreka dakar. Txosten hau idazteko unean, gatazka bat dago auzibidean.

Geroago, 2011ko irailean, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldatu zen, defizit estrukturala eta Estatuaren eta autonomia erkidegoen zor publikoaren bolumena mugatzeko asmoz. Ondorioz, Aurrekontuen egonkortasunerako eta finantzen jasangarritasunerako *2/2012 Lege Organikoa* aldarrikatu zen. Lege hartan autonomia erkidego bakoitzeko zor metatuen muga % 13an finkatu zen (arestian ikusi dugun bezala, Euskadin 2012an muga % 10,2an geratu da).

2011ko aurrekontuetako zorraren gehieneko mugari dagokionez, Estatuko aurrekontuen legeak % 1,5ean finkatu zuen. Azkenik, Euskadin betearazitako aurrekontuan zorra ez da muga horretara heldu.

Bukatzeko, *20/2012 Errege Dekretuak, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurria finkatzen dituenak*, 2. artikuluan sektore publikoko pertsonalaren 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu zuen. Eusko Jaurlaritzako pertsonalaren kasuan, Eusko Legebiltzarraren erabakiaren ondorioz, 2013ko uztaileko ordainsaria urte horretako urtarrilera aurreratu da. Azken aldaketa hori gorabehera, 2012ko abenduko ordainsaria ordaindu ez izanak bere isla izango du 2012an betearazitako aurrekontuan.

3.2. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak

Sailak 2011. urtean betearazitako aurrekontua aurkezten dugu, eta 2010. urtekoarekiko izan duen bilakaera. Kontu-sailatuko programa bakoitzean izandako aldaketak ere aztertzen dira.

Hasierako aurrekontuei dagokienez, 2012ko kopuru orokorrak aurkezten dira. Aurrekontuen banaketa urte naturalen arabera egin beharrean ikasturteen arabera egiten denean, 2011-12 ikasturteko datuak ere sartu dira.

3.2.1. Hasierako aurrekontua eta betearazitako aurrekontua

Aztertutako aldian, Eusko Jaurlaritzaren hasierako aurrekontua 2011n hazi (% 2,3) eta 2012an murriztu (% -0,9) egin zen. Hala ere, 2011ko betearazpenak % -1,3ko jaitsiera izan zuen.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua (milioi €tan) eta 2010-2011. urtetik urterako igoera

	2010	2011	2012	Δ 11/10	Δ 12/11
Hasierako aurrekontua	10.315	10.549	10.449	% 2,3	% -0,9
Betearazitako aurrekontua	10.327	10.173		% -1,3	
Betearazpena (%)	% 100,1	% 97,4			

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2011n benetan betearazitako aurrekontuari dagokionez, 2010ekoarekiko % 2,4 murriztu da, eta murrizpena aurreko urteko murrizpenari (% -2,7) eransten zaio.


Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontua (milioi €tan) eta 2008-2010 urtetik urterako igoera

	2010	2011	2012	Δ 10/09	Δ 11/10	Δ 12/11
Hasierako aurrekontua	2.751	2.670	2.645	% 4,4	% -2,9	% -0,9
Betearazitako aurrekontua	2.784	2.716	--	% -2,7	% -2,4	--
Betearazpena (%)	% 101,2	% 101,7				

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Eusko Jaurlaritzak benetan betearazitako aurrekontuetan izan duen partaidetza aipatzen badugu, murrizketa bat ikusten da argitaratutako azken bi ekitaldietan, 2009. urte osoko % 27,8tik 2011. urte osoko % 26,7ra jaitsi baita.

Sailak betearazitako aurrekontua Eusko Jaurlaritzak betearazitako aurrekontu osoarekiko (milioi €tan)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Hezkuntza Saila	1.701	1.820	1.890	2.022	2.140	2.403	2.589	2.860	2.784	2.716
Eusko Jaurlaritza	6.026	6.392	6.725	7.312	7.770	8.584	9.317	10.304	10.327	10.173



3.2.2. Aurrekontuaren banaketa kontu-sailen arabera

Informazio gisa, gastuak azken hiru ekitaldion hasierako aurrekontuan —EHAAn argitaratzen den aurrekontuan— izan duen bilakaera aurkezten da kontu-sailen arabera.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontuaren bilakaera kontu-sailen arabera, 2010etik 2012ra (mila €tan)

<i>Kontu-saila</i>		2010	2011	2012	Δ 11/10	Δ 12/11
1	Langile-gastuak	1.230.867	1.188.808	1.204.816	% -3,4	% 1,3
2	Funtzionamendu-gastuak	163.420	166.920	151.384	% 2,1	% -9,3
3	Finantza-gastuak	100	100	57	% 0,0	% -43,0
4	Diru-laguntza arruntak	1.156.241	1.146.597	1.126.585	% -0,8	% -1,7
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioa	112.131	81.957	76.727	% -26,9	% -6,4
7	Kapitaleko diru-laguntzak	85.588	82.462	83.617	% -3,7	% 1,4
8	Finantza-aktiboaren igoera	3.000	3.000	2.000	% 0,0	% -33,3
	Guztira	2.751.347	2.669.844	2.645.186	% -3,0	% -0,9

Benetako gastuaren analisisan, konparazio gisa, aurreko txostenean argitaratutako 2009. eta 2010. urteen arteko bilakaera sartu da. Kontu-sailik garrantzitsuenak kontuan hartzen baditugu, sare publikoari 1., 2. eta 6.a egokitu dakizkioke. Itunpeko ikastetxeei eta bestelako erakunde pribatuei 4. eta 7. kontu-sailletako kontu nagusiak egokitu dakizkieke, 4. kontu-sailean udalantzako laguntzak eta beste laguntza batzuk ere sartzen diren arren. Hezkuntza-sare kontzeptu horren arabera Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako programen azterketa sakonago bat egiten da, geroago ikusiko den bezala.

Bost kontu-sail horien artean, Ikastetxe publikoetako inbertsioa (6. kontu-saila) nabarmen jaitsi da bi ekitaldion zehar, 111 milioi eurotik 80 milioira pasa baita. Zenbatekoari dagokionez, jaitsierarik handienak Diru-laguntza arruntak eta Langile-gastuak kontu-sailetan gertatu dira (67 eta 32 milioi hurrenez hurren, 2009tik 2011ra).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak betearazitako aurrekontuaren bilakaera kontu-sailen arabera, 2009tik 2011ra (mila €tan)

<i>Kontu-saila</i>		2009	2010	2011	$\Delta 10/09$	$\Delta 11/10$
1	Langile-gastuak	1.217.696	1.203.205	1.185.833	% -1,2	% -1,4
2	Funtzionamendu-gastuak	237.515	228.383	231.751	% -3,8	% 1,5
3	Finantza-gastuak	371	141	201	% -62,0	% 42,6
4	Diru-laguntza arruntak	1.175.606	1.140.801	1.108.805	% -3,0	% -2,8
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioa	111.184	95.463	80.501	% -14,1	% -15,7
7	Kapitaleko diru-laguntzak	97.689	111.345	102.682	% 14,0	% -7,8
8	Finantza-aktiboen igoera	20.429	4.302	5.865	% -78,9	% 36,3
	Guztira	2.860.491	2.783.639	2.715.639	% -2,7	% -2,4

3.2.3. Aurrekontuaren banaketa programen arabera

Biurteko osoan jaitsierarik garrantzitsuenak honako programa hauetan gertatu dira: Sistemaren euskalduntzea (% -27,3), Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza (% -15,5), Ikerketa (% 14,2) eta Egitura eta laguntza (% -10,3). Azken urtean, 2011n, murrizketarik handiena Ikerketan (% -21,1) gertatu da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak betearazitako aurrekontuaren bilakaera programen arabera, 2009tik 2011ra (mila €tan).

<i>Programa</i>	2009	2010	2011	$\Delta 10/09$	$\Delta 11/10$
Egitura eta laguntza	41.598	38.181	37.320	% -8,2	% -2,3
Haur eta Lehen Hezkuntza	1.100.557	1.066.889	1.036.250	% -3,1	% -2,9
Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	995.091	957.801	958.440	% -3,7	% 0,1
Unibertsitate Hezkuntza	368.662	356.518	348.458	% -3,3	% -2,3
Araubide Bereziko Hezkuntza	64.664	60.658	60.750	% -6,2	% 0,2
Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Prestakuntza	41.613	38.479	39.333	% -7,5	% 2,2
Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	49.438	42.609	41.755	% -13,8	% -2,0
Hezkuntza sustapena	110.478	127.496	117.220	% 15,4	% -8,1
Sistemaren euskalduntzea	33.181	27.369	24.122	% -17,5	% -11,9
Ikerketa	43.354	47.162	37.209	% 8,8	% -21,1
Euskadi 2003/Euskadi Informazioaren gizartea	--	1.570		--	--
Berriztatzerako fondoa (2009)	11.855	18.908	14.781	% 59,5	% -21,8
Guztira	2.860.491	2.783.639	2.715.639	% -2,7	% -2,4

3.2.4. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako programak eta azpi-programak

Jarraian, Sailaren zortzi programa nagusietan 2010ean eta 2011n izan den gastuaren bilakaera aurkezten da.

- **Egitura eta laguntza programa**

Bere helburua Hezkuntza Administrazioaren egitura eta funtzionamendu arrunta finantzatzea da.

Egitura eta laguntza programaren betearazpena, kontu-sailen arabera (mila €tan).

	2010	2011	$\Delta 11/10$
1. Langile-gastuak	30.139	29.471	% -2,2
2. Funtzionamendu-gastuak	3.245	3.454	% 6,4
3. Finantza-gastuak	141	201	% 42,5
4. Diru-laguntza arruntak	22	25	% 13,6
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	2.331	2.303	% -1,2
8. Finantza-aktiboen igoera	2.302	1.865	% -19,0
Betearazitakoa guztira	38.181	37.320	% -2,3
Hasierako aurrekontua	39.653	37.585	% -5,2
Betearazpena (%)	96,29	99,29	--

- **Haur eta Lehen Hezkuntza programa**

Jaitsierarik handiena inbertsioen kontu-sailetan, 6. eta 7. kontu-sailetan, gertatu da. 6. kontu-saila aparte aztertzen da 3.2.5. azpiatalean.

Haur eta Lehen Hezkuntza programaren betearazpena, kontu-sailen arabera (mila €tan)

	2010	2011	$\Delta 11/10$
1. Langile-gastuak	511.215	509.635	% -0,3
2. Funtzionamendu-gastuak	111.080	110.698	% -0,3
4. Diru-laguntza arruntak	364.095	363.382	% -0,2
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	61.787	38.447	% -37,8
7. Kapitaleko diru-laguntzak	18.712	14.088	% -24,7
Betearazitakoa guztira	1.066.889	1.036.250	% -2,9
Hasierako aurrekontua	977.730	934.323	% -4,4
Betearazpena (%)	109,1%	110,91%	

Programa horietako aurrekontuen kontu-sailak banandurik irakurtzen baditugu, 2011n programako gastuaren % 69,1 ikastetxe publikoetarako dela onduz geroztatu daiteke, eta % 30,8 itunpeko ikastetxeetara (3.1 eranskina).

Era berean, banaketa horren arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako diru-hornidura % 3,6 murriztu da 2010etik 2011ra. Itunpeko ikastetxeetarako diru-hornidura % 1,3 murriztu da, eta programa osoan jaitziera guztira % 2,9koa izan da.

- **Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa**

Aldaketarik garrantzitsuena inbertsioen eta diru-laguntzen kontu-sailetan izandako igoera izan da, ikastetxeetako teknologia-hornidurarako Eskola 2.0 programaren hedapenari loturik.

Azpi-programei dagokienez, DBHko gastua (% 2,0) handitu egin da aurreko paragrafoan emandako arrazoi berberetatik. Lanbide Heziketako gastua (% -2,4) eta Konpentsaziozko Hezkuntzako (% -2,9), berriz, murriztu egin dira.

Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programetako aurrekontuen betearazpena kontu-sailen eta azpi-programen arabera (mila €tan).

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	533.013	520.017	% -2,4
2. Funtzionamendu-gastuak	77.397	79.482	% 2,7
4. Diru-laguntza arruntak	316.996	316.332	% -0,2
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	28.169	37.817	% 34,2
7. Kapitaleko diru-laguntzak	2.226	4.792	% 115,3
DBH	314.327	320.542	% 2,0
Batxilergoa	352.630	354.175	% 0,4
Lanbide Heziketa	268.769	262.277	% -2,4
Konpentsaziozko Hezkuntza, Lanbide Hastapena ...	22.076	21.444	% -2,9
Betearazitakoa guztira	957.801	958.440	% 0,1
Hasierako aurrekontua	959.851	936.774	% -2,4
Betearazpena (%)	99,8%	102,3%	--

Aurreko programaren azterketan egin dugun bezala, ikastetxeen sailkapena egin da hezkuntza-sareen arabera (3.2.1 eta 3.2.b eranskinak), eta sailkapen horretatik ondorioztatu liteke programa honetako gastuaren % 67,7 ikastetxe publikoetan egin dela, eta % 31,2 itunpeko ikastetxeetan, gainerako % 1,1 banatu gabe geratu delarik.

Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programan ikastetxe publikoentzako diru-hornidura % 0,2 murriztu da 2010etik 2011ra, eta itunpeko ikastetxeentzako, berriz, % 1,1 igo da.

- **Araubide Bereziko Hezkuntza programa**

Kontu-sailen araberrako banaketari dagokionez, aipatu beharrekoa da 2011n 4. eta 7. kontu-sailen parterik handiena Musikene goi mailako musika ikastegirako izan dela.

Azpi-programei dagokienez, hizkuntzen irakaskuntzarako diru-hornidura murriztu egin da (% -2,5). Kirol-irakaskuntzak 2010ean hasi dira aurrekontuetan sartzen.

Araubide Bereziko Hezkuntza programako aurrekontuaren betearazpena kontu-sailen arabera (mila €tan)

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	34.305	33.537	% -2,2
2. Funtzionamendu-gastuak	3.873	3.974	% 2,6
4. Diru-laguntza arruntak	717	1.021	% 42,4
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	21.763	21.974	% 1,0
7. Kapitaleko diru-laguntzak		240	--
Arte irakaskuntzak (arte, musika)	35.157	35.418	% 0,7
Hizkuntzen irakaskuntza	24.348	23.731	% -2,5
Teknika eta kirol-irakaskuntzak	1.152	1.600	% 38,9
Betearazitakoa guztira	60.658	60.750	% 0,2
Hasierako aurrekontua	57.832	56.991	% -1,5
Betearazpena (%)	% 104,9	% 106,6	

• **Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programa**

Programako aurrekontua % 2,2 igo da, aurreko urtean murriztu zen arren (% -7,5), lehen aipatu dugun bezala. Igoera batez ere 1. eta 2. kontu-sailetan gertatu da. 4. kontu-saila, ia osoa, itunpeko ikastetxeei berrikuntza planetarako eta irakasleen prestakuntzarako emandako laguntzek osatzen dute.

Azpi-programetako banaketan, laguntza zerbitzuentzako diru-hornikuntza igo egin da (% 6,9), baina irakasleen prestakuntzarako murriztu egin da (% -1,8).

Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programako aurrekontuaren betearazpena kontu-sailen arabera (mila €tan)

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	29.073	29.971	% 3,1
2. Funtzionamendu-gastuak	3.047	3.751	% 23,1
4. Diru-laguntza arruntak	5.082	5.085	% 0,1
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	540	526	% -2,6
7. Kapitaleko diru-laguntzak	738	0	% -100,0
Irakasleen prestakuntza	6.148	5.297	% -13,8
Laguntza zerbitzuak (IVEI eta Berritzeguneak)	30.503	32.596	% 6,9
Berrikuntzaren eta kalitatearen sustapena	1.828	1.441	% -21,2
Betearazitakoa guztira	38.479	39.333	% 2,2
Hasierako aurrekontua	46.791	50.355	% 7,6
Betearazpena (%)	% 82,2	% 105,6	

- **Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programa**

Banaketa-kontzeptu nagusietan murrizketa programako batez bestekotik hurbil mantentzen da (% -2,0).

Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programako aurrekontuaren betearazpena kontu-sailen eta azpi-programen arabera (mila €tan)

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	36.375	35.760	% -1,7
2. Funtzionamendu-gastuak	1.966	1.841	% -6,4
4. Diru-laguntza arruntak	3.959	3.819	% -3,5
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	309	336	% 8,7
Etengabeko Ikaskuntza	4.833	4.634	% -4,2
Helduen Hezkuntza (HH)	37.775	37.121	% -1,7
Betearazitakoa guztira	42.609	41.755	% -2,0
Hasierako aurrekontua	38.828	39.533	% 1,8
Betearazpena (%)	% 109,7	% 105,62	

- **Hezkuntza Sustapena programa**

Hezkuntza Sustapena programako aurrekontuak hamar milioi euroko murrizketa izan du (% 8,1); murrizketaren atalik handiena (zortzi milioi) unibertsitateko diru-laguntzak dira, diru-laguntzen eta laguntzen azpi-programaren barnean.

Hezkuntza Sustapena programako aurrekontuaren betearazpena kontu-sailen eta azpi-programen arabera (mila €tan)

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	14.117	14.192	% 0,5
2. Funtzionamendu-gastuak	24.787	25.293	% 2,0
4. Diru-laguntza arruntak	88.591	77.735	% -12,2
Garraioa eta jantokia	40.897	42.535	% 4,0
Diru-laguntzak eta laguntzak	84.963	72.979	% -14,1
Jardueren sustapena (Guraso elk.)	1.635	1.706	% 4,3
Betearazitakoa guztira	127.496	117.220	% -8,1
Hasierako aurrekontua	172.297	177.160	% 2,9
Betearazpena (%)	% 74,0	% 66,2	

Sailak ikastetxeetako jantokiei emandako finantzaketa osoa kontuan hartzen badugu, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako funtzionamendu-gastuen kontu-sailean sartuta dagoen 32 milioiko diru-kopuru bat erantsi beharko litzateke.

Beste alde batetik, Hezkuntza Sustapena programatik unibertsitateko irakaskuntzari dagokion zenbatekoa kentzen badugu, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan 2009-10 eta 2010-11 ikasturteetan diru-laguntzetarako (deialdi guztiak

barne), jantoki zerbitzuetarako eta eskola-garraiorako emandako laguntzak honako hauek dira:

Diru-laguntzatarako, jantokietarako eta eskola-garraiorako aurrekontuen betearazpena. 2009-10 eta 2010-11 ikasturteen arteko bilakaera (mila €tan)

	2009-10	2010-11	Δ 11/10
Unibertsitatez kanpoko eskola-garraioa	25.508	25.574	% 0,3
Unibertsitatez kanpoko etapetarako diru-laguntzak (jantokirakoak barne)	47.256	50.436	% 6,7
Ikastetxe publikoetako jantokien finantzaketa	38.952	32.169	% -17,4

Ikastetxe publikoetako jantokien finantzaketak izan duen ia zazpi milioiko murrizketa familiek ordaindu beharreko ordain-sariaren igoerari loturik dago.

Guraso elkarreentzako laguntzei dagokien azpi-programen atal nagusietan ere murrizketa bat izan da.

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzak (mila €tan)

	2009-10	2010-11	Δ 11/10
Elkarreentzako federazioak (publikoak eta itunpekoak)	623	579	% -7,1
Elkarreentzako eskolaz kanpoko jarduerak (publikoak eta itunpekoak)	831	781	% -6,0
Irakaskuntza kooperatiben eskolaz kanpoko jarduerak	43	53	% 23,3

- **Euskalduntze programa**

Programa honen finantzaketak beharrezko joera mantentzen du (% 11,9 gutxiago 2011n), batez ere Irale programan (% -14,2), bai langile-gastuei dagokien atalean (% -11,5) baita 4. kontu-saileko diru-laguntzei dagokien atalean ere (% -18,1). Horren arrazoia euskalduntzeko geratzen diren irakasleen kopuruaren jaitsiera nabarmena da.

Euskalduntze programako aurrekontuaren betearazpena kontu-sailen eta azpi-programen arabera (mila €tan)

	2010	2011	Δ 11/10
1. Langile-gastuak	14.967	13.249	% -11,5
2. Funtzionamendu-gastuak	2.618	2.854	% 9,0
4. Diru-laguntza arruntak	9.755	7.989	% -18,1
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioa	28	39	% 39,3
Irale	19.671	16.876	% -14,2
EGA/EIMA	1.701	856	% -49,7
Nolega	5.550	5.936	% 6,9
Glotodidaktika/EGB	447	454	% 1,6
Betearazitakoa guztira	27.369	24.122	% -11,9
Hasierako aurrekontua	48.918	48.447	% -1,0
Betearazpena (%)	% 55,9	% 49,8	--

4. kontu-sailari dagozkion kontzeptu nagusiak irakasleen liberazioa, hizkuntza-normalkuntzako proiektuak eta euskaltegiak dira.

Euskalduntze programako 4. kontu-sailari dagozkion kontzeptu nagusien betearazpena (mila €tan).

	2010	2011	Δ 11/10
-Itunpeko ikastetxeetako Irale ordezkapenak	3.616	3.009	% -16,8
-Itunpeko ikastetxeetako normalkuntza proiektuak	2.210	1.739	% -21,3

EGA/EIMA azpi-programa erdira murriztu da, eta ikastetxe guztientzako hizkuntzaren normalkuntzarako Nolega azpi-programa % 6,9 hazi da.

3.2.5. Ikastetxe publikoetako inbertsioa (6. kontu-saila)

Aurrekontuen analisi honen hasieran aipatu den bezala, ikastetxe publikoetako inbertsioei dagokien kontu-sailak, ikerketa kontu-sailarekin batera, izan du doiterik handiena. Kontu-saila eraikuntzek eta hornikuntzek osatzen dute.

Eraikuntzen atalean murrizketa orokorra (% -13,2) izan da, baina batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan (% -18,9).

Hornidurari dagokionez, transferentzia bat egon da Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara, Eskola 2.0 programa gero eta gehiago zabaltzearen ondorioz. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek euren hornikuntzetarako aurrekontuaren hiru laurden galdu dute

Ikastetxe publikoetako inbertsioa, aurrekontuaren 6. kontu-sailaren banaketa bere bi kontzeptuen eta bi programa nagusien arabera (mila €tan)

		2010	2011	Δ11/10
Eraikuntzak	Haur eta Lehen Hezkuntza	40.993	33.226	% -18,9
	Bigarren Hezk., Konpens. Hezk. eta LH	17.047	16.730	% -1,9
	Gainerako programak	204	614	% 201,0
Eraikuntzak guztira		58.244	50.570	% -13,2
Hornikuntzak	Haur eta Lehen Hezkuntza	20.794	5.221	% -74,9
	Bigarren Hezk., Konpens. Hezk. eta LH	11.123	21.088	% 89,6
	Gainerako programak	5.302	3.622	% 12,3
Hornikuntzak guztira		37.219	29.931	% -19,6
Betearazpena inbertsioetan (%)		95.463	80.501	% -15,7
Hasierako aurrekontua		112.131	81.957	% -26,9
Betearazpena (%)		% 84,4	% 98,2	

- **Udalen ekarpenak**

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaz gain, udalek zenbait lan txiki gauzatzeko aurrekontuaren % 40 ekartzen dute Udalaguntza programaren barnean, gainerakoa Sailak ekartzen duelarik. 2011n % 11ko murrizketa egon da, eta programa 2012an gehiago murriztu da udalen aurrekontuak betearazteko zailtasunei ondorioz.

Sailak eta udalek elkarrekin finantzatutako lan txikiak

	2010	2011	$\Delta 11/10$
EHAako ebazpenaren data	2010/12/17	11/12/29	--
Udal kopurua	100	91	% -9,0
Ikastetxe kopurua	183	175	% -4,4
Lan kopurua	336	326	% -3,0
Sailaren ekarpena	11.586	10.305	% -11,1
Udalen ekarpena	7.724	6.869	% -11,1

3.2.6. Ikastetxe pribatuekiko ituna

Sare pribatuaren finantziarioa batez ere hezkuntza-itunen bidez gauzatzen da, kontu-sail batzuk laguntzen edo diru-laguntzen bidez finantzatzen diren arren, hala nola, 0-3 tarte irakasten duten haurreskolak, plantilak osatzen dituzten irakasle bereziak, hornikuntzak, proiektuak, prestakuntza edo inbertsioak.

- **Itunaren modulua**

Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia modulua Eusko Legebiltzarrak urtero onesten dituen Aurrekontu Orokorretan finkatzen da. Ikasgela edo unitate bakoitzaren finantzaketa publikoa honako kontzeptu hauek osatzen dute:

- a) Langile irakasle eta ez-irakasleen gastuak, Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak barne.
- b) Funtzionamendu-gastuak.
- c) Mantentze eta zaintze gastu arruntak.
- d) Inbertsio errealak berritzea.

Aurreko txostenean aipatzen zen 3/2010 legearen ondorioz izan zen murrizketa gauzatu ondoren, modulua zenbatekoak ez du ia aldaketarik izan 2010-2012 aldian.

Ekonomia moduluaren bilakaera ikasgela edo unitate bakoitzeko. 2010-2012 bilakaera (€tan)

	2010*	2011	2012	Δ 11/10	Δ 12/11
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	62.621	62.684	62.688	% 0,1	% 0,0
Lehen Hezkuntza	65.635	65.706	65.710	% 0,1	% 0,0
DBH (Lehen zikloa)	83.145	83.349	83.353	% 0,2	% 0,0
DBH (Bigarren zikloa)	102.231	101.296	101.296	% -0,9	% 0,0
LOGSE Batxilergoa	104.993	104.008	104.008	% -0,9	% 0,0

(*) 3/2010 Legearen eraginez, % 1,9ko murrizketa aplikatzen da 2010eko hasierako moduluarekiko

• **Itunpeko ikastetxeetako ikasgela kopuruaren bilakaera**

Azken bi ikasturteotan zehar, 2009-10 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera, Lehen Hezkuntzan itunpeko ikasgelen kopurua (86) nabarmenki handitu da, baina Lanbide Heziketan (23) eta Haur Hezkuntzan (10) kopurua jaitsi egin da.

Bigarren aldaketa nagusia itun osoa Batxilergoko itunpeko ikastetxe guztietara hedatzea izan da. Azken bi ikasturteon laburpen gisa, itunpeko unitateen guztizko kopurua 41 unitatez handitu da, itun partziala zuten 342 ikasgelek orain itun osoa dutelarik.

Itunpeko ikasgelen kopuruaren bilakaera 2009-10 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera, modulu motaren arabera.

	2009-10		2010-11		2011-12		Δ 2 ikasturtetan	
	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.
Haur Hezkuntza	1.293	0	1.278	0	1.283	0	-10	0
Lehen Hezkuntza	2.424	0	2.471	0	2.510	0	86	0
Hezkuntza Berezia (Lehen H., irekiak)	220	0	218	0	216	0	-4	0
Hezkuntza Berezia (Lehen H., itxiak)	108	0	112	0	114	0	6	0
DBH 1. zikloa	808	0	813	0	815	0	7	0
DBH 2. zikloa	816	0	802	0	809	0	-7	0
Hezkuntza Berezia (Bigarren H., irekiak)	215	0	214	0	214	0	-1	0
Batxilergoa	241	321	398	157	552	0	311	-321
Lanbide Heziketa Erdiko Maila	45	198	43	193	43	187	-2	-11
Lanbide Heziketa Goi Maila	96	337	95	334	94	327	-2	-10
Hezkuntza Berezia (Lanbide Hez., itxiak)	18	0	19	0	20	0	2	0
HLPP	65	0	63	0	62	0	-3	0
Itunpeko ikasgelen kopurua guztira	6.349	856	6.526	684	6.732	514	383	-342

• **Finantzaketari buruzko eztabaida hezkuntza-komunitatean**

Beste atal batzuetan aipatu den bezala, aspaldion bizi garen krisialdi ekonomikoa egoeraren arabera izan beharrean, egituraren arabera izateko

itxura du, eta bere ondorioek euskal hezkuntza-sistemaren giltza-alderdi batzuk arriskuan jar litzakete eta sistemaren beraren jasagarritasunari eragin.

Gizartearen eta hezkuntzaren sektore guztietan eragin nabarmena duen krisi-egoera honetan, itunpeko hezkuntza-sarearen egituraren finantzaketak eztabaida bat sortu du euskal hezkuntza-komunitatean txosten honek aztertzen dituen urteetan, batez ere Kristau Eskolak bultzaturik, baina beste zenbait hezkuntza-elkarteren laguntzaz.

2011ko abenduaren 12an Kristau Eskola elkarteko ordezkariak Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza eta Kultura Batzordearen aurrean azaldu ziren, eta aipatu elkarteak 2012ko martxoaren 26an "Akordioa jomuga" izeneko sinposioa antolatu zuen, "gogoeta eta eztabaida irekitzeko asmo nabarmenarekin, benetako akordia gauzatzeko aldera".

Prozesu haren ondorioz, Eusko Legebiltzarrak, 2012ko ekainaren 14an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Euzko Abertzaleak, Euskal Talde Popularra, Aralar eta Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeek egindako legez besteko proposamena onestea, "euskal hezkuntza sistemaren azterlan objektibo eta gardena egiteko adierazle baliagarrien sorta finkatuko duen lantaldea sortzekoa".

Legebiltzarrerako proposamenaren arrazoibidean aipatzen da "euskal hezkuntza sistemako zenbait elkartek eta agentek hezkuntza-akordio baten beharra adierazi dutela behin baino gehiagotan, euskal hezkuntzaren eremuari egonkortasuna, jasagarritasuna eta emaitza hobek emateko, eremua osatzen duten bi hezkuntza-sareen elkarlanaren bidez".

Onetsitako legez besteko proposamenak honela dio:

- "1. Eusko Legebiltzarrak erabaki du lantaldea sortzea Hezkuntza Batzordean, euskal hezkuntza-sistemari buruzko azterlan objektibo eta gardena egiteko erabili beharreko adierazle sorta finka dezan hilabeteko epean, konponbide adostuak, jasagarriak eta iraunkorrak ekarriko dituen akordio zabal bat lortze aldera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lantaldearen lana amaitzen denetik aurrera hilabete biko epean azterlan hori burutu eta aurkez dezala Hezkuntza Batzordean, legebiltzar-taldeek dagozkion ekarpenak egin ditzaten".

Akordioak hauteskundeetarako deialdiagatik garatu ez ziren arren, eztabaidak, zalantzarik gabe, bizirik dirau Euskadiko gizartearen eta hezkuntza-komunitatearen baitan.

Gainerako bi programetan bi hezkuntza-sareek gastu-esleipen ezberdina dute. Sistema osoaren kudeaketaz arduratzen den eta Ikuskaritza zerbitzua eskaintzen duen Egitura eta Laguntza programan, gastuaren bi heren hezkuntza-sare publikoari esleitzen zaio, Administrazioarengandik kudeaketa-bolumen handiagoa eskatzen baitu. Laugarren programan, Hezkuntza Sustapena, 3.3 eranskinean bi hezkuntza-sareei eragiten dieten gastu-partidak bereizten dira, bereziki dirulaguntzak. Hortik ondorioztatzen da programa horretako gastuaren % 79 ikastetxe publikoentzat dela.

Sailaren sei programetan betearazitako aurrekontuaren banaketa hezkuntza-sareetan eta gastu komunetan (zenbatespena). 2011. urtea.

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Itunpeko ikastetxeak</i>		<i>Gastu komunak</i>	
Egitura eta Laguntza	24.880	% 66,6	12.440	% 33,3	0	% 0,0
Haur eta Lehen Hezkuntza	716.166	% 69,1	319.552	% 30,8	532	% 0,1
Bigarren H., Konpents. H. eta Lanbide H.	649.156	% 67,7	299.122	% 31,2	10.162	% 1,1
Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Pr.	0	% 0,0	0	% 0,0	39.333	% 100,0
Hezkuntza Sustapena*	76.165	% 79,2	20.034	% 20,8	0	% 0,0
Euskalduntzea	0	% 0,0	0	% 0,0	24.122	% 100,0
Sei programak guztira*	1.466.367	% 66,9	651.148	% 29,7	74.149	% 3,4

(*) *Hezkuntza Sustapena programatik, eta era berean guztizko kopurutik, unibertsitateko dirulaguntzak (20,931 milioi euro) kendu dira.*

Sei programetan batera betearazitako aurrekontuaren eta bi programa nagusietan —Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa— betearazitakoaren artean ez dago alde handirik. Gastu komunei dagokien % 3,4 behin birbanatu ondoren, unibertsitatez kanpoko etapetan Sailaren aurrekontuaren banaketa ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan % 68,6 eta % 31,4 dira hurrenez hurren, hamarren gutxiko errorearekin.

3.3.2. EUSTATen gastuen estatistika

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) ikastetxe pribatuetako eta ikastetxe publikoetako diru-sarreraren eta gastuen bi urteko serieak argitaratzen ditu, hurrenkera horretan. Azkena 2009koa izan da, eta oso baliagarria da gastua gastu motaren arabera eta etapen arabera nola banatzen den erakusteko eta ikasleko eta gelako irakaskuntzako gastuaren adierazlea finkatzeko.

Hain zuzen ere, guztizko gastua hiru kategoriatan banatzeak unibertsitate aurreko etapen sistemaren barruan bereizteko aukera eskaintzen du, unibertsitatea eta arte-irakaskuntzak alde batera utzirik.

Irakaskuntzako guztizko gastuaren banaketa hezkuntza-sareetan, hezkuntza-etapen arabera (mila €tan). 2009. urtea

	<i>Ikastetxe guztiak</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Ikastetxe pribatuak</i>
Unibertsitate aurreko etapak	2.430.851	1.525.095	905.756
Goi mailako irakaskuntza	580.463	440.542	139.921
Arte-irakaskuntzak	100.486	74.245	26.241
Guztira	3.111.800	2.039.882	1.071.918

Konparazioaren xedea diren unibertsitate aurreko irakaskuntzetan irakaskuntzako gastua kapitaleko gastuetatik eta jarduera eta zerbitzu osagarrietako gastuetatik bereizi da. 2009. urtean irakaskuntzako gastua ikastetxe publikoetako gastu osoaren % 81,6 izan da, eta ikastetxe pribatuetako gastu osoaren % 84,5. Bestalde, langile-gastuak, hurrenez hurren, gastu osoaren % 72 eta % 75 direla ikus daiteke, handiagoak, beraz, ikastetxe publikoen kasuan.

Gastu osoaren banaketa hezkuntza-sareetan gastu motaren arabera (€). Unibertsitate aurreko irakasmilak. 2009. urtea.

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Ikastetxe pribatuak</i>	
Gastu osoa	1.525.095	% 100,00	905.756	100,0%
• Gastu arrunta	1.375.014	% 90,2	858.435	94,8%
o Irakaskuntzako gastua	1.244.085	% 81,6	765.045	84,5%
- Langile-gastua	1.136.091	% 74,5	653.911	72,2%
- Gastu orokorrak	107.994	% 7,1	111.042	12,3%
- Amortizazio-gastuak	0	% 0,0	0	0,0%
o Jarduera osagarrietako gastua	12.011	% 0,8	10.915	1,2%
o Zerbitzu osagarrietako gastuak	118.918	% 7,8	82.475	9,1%
• Kapitaleko gastua	150.081	% 9,8	47.321	5,2%

Irakaskuntzako gastuari gagozkiozkiolarik, unitateko gastua konparatzen badugu, hezkuntza-sareen arteko aldea Bigarren Hezkuntzan Haur Hezkuntzan (% -19) eta Lehen Hezkuntzan (% -8) baino handiagoa dela ikus dezakegu —itunpeko ikastetxeetako ikastetxe publikoetako baino % 35 eta % 42 txikiagoa—.

Irakaskuntzako gastua unitateko eta ikasleko hezkuntza-etapen eta hezkuntza-sareen arabera (€). 2009. urtea. EUSTAT

Etapak	Unitateko			Ikasleko		
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Aldea (%)	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Aldea (%)
Haur Hezkuntza	88.935	71.913	-19%	5.674	3.873	-32%
Lehen Hezkuntza	93.486	86.276	-8%	6.101	4.203	-31%
DBH	154.587	101.112	-35%	9.946	5.223	-47%
Helduen Hezkuntza arautua	29.356	52.131	78%	1.461	3.054	109%
Batxilergoa	198.909	125.615	-37%	8.258	5.523	-33%
Lanbide Heziketa	170.724	99.117	-42%	12.224	5.912	-52%
Unibertsitate aurreko etapetako batez bestekoa (HHI gabe)	118.529	89.332	-25%	7.478	4.589	-39%
Unibertsitate aurreko etapetako batez bestekoa (HHI arautua barne)	107.097	89.226	-17%	6.695	4.586	-32%

(*) *Ikus batez bestekoaren kalkuluaren garapena 3.4 eranskinean*

Era berean, ikasleko gastuetan hezkuntza-sareen arteko aldea unitateko gastuetan baino handiagoa da, salbuespen bakarra Batxilergoa izanik. Bi aldagai horien arteko aldearen arrazoa ikasle/gela ratioa da. Ikastetxe pribatuetan ratioa handiagoa izan ohi denez, ikasleko gastua txikiagoa izaten da.

Irakaskuntzako gastuak gastu osoaren ehuneko zenbat hartzen duen kontuan hartzen badugu (ikus aurreko taula), ikasleko gastu osoa kalkula dezakegu hezkuntza-sare bakoitzean:

Ikasleko gastu osoa unibertsitatez kanpoko etapetan hezkuntza-sarearen arabera (€). 2009. urtea

	Ikastetxe publikoak			Ikastetxe pribatuak	
	HHI barne	HHI gabe			
Irakaskuntzako gastua	6.695	7.478	% 81,6	4.589	84,5%
Gastu osoa	8.205	9.164	% 100,0	5.431	100,0%

Beraz, Eustaten ikastetxeetako gastuaren estatistikatik ondorioztatu daiteke unibertsitate aurreko etapetan 2009. urterako ikasleko gastu osoa *ikastetxe publikoetan 9.164 eurokoa* izan dela (HHI arautua sartu gabe) eta *itunpeko ikastetxeetan 5.431 eurokoa*, hezkuntza-sistema osoko batez besteko haztatua 7.287 eurokoa izan delarik. Alde hori azaltzen duten faktoreak 3.3.3 puntuan aztertzen dira.

- **Ikasleko gastu osoaren konparazioa**

ELGAREN *Education at a Glance (2012)* izeneko txostenak ikasleko gastu osoaren konparazioa egiten du aztertu dugun urterako (2009) herrialdeen artean hezkuntza-etapen arabera (3.5 eranskina). Txostenean egiten den etapen sailkapena eta Eustatek egiten duena ez datoz bat, eta beraz konparazioa Euskadiren kasuan Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara mugatzen da.

Adierazlea finkatzeko hurbilketa bat egin behar da, ikasleko gastu osoaren atal batek —irakaskuntzako gastuetan sartzen ez denak, batez ere jantoki eta garraio zerbitzu osagarriak— pisu ezberdina duela hezkuntza-etapa bakoitzean. Hurbilketak % 1eko gehieneko errorea izango luke ondorengo taulako datuekiko. Gastu osoaren balio absolutuak dolarretan adierazirik daude. Euskadiren kasuan, bereziki aipatzen da Helduen Hezkuntza ez dela sartzen, adierazlearen balioa jaitsaraziko bailuke.

Euskadiren aldeko finantzaketa-diferentziala ikasleko gastu orokorraren adierazlean Lehen Hezkuntzan eta DBHn. 2009. urtea (balio absolutuak dolarretan). ELGA, Eustat eta Eskola Kontseiluko datuak.

	<i>Lehen Hezkuntza</i>		<i>DBH</i>	
	<i>Ikasleko gastu osoa (\$)</i>	<i>Euskadiren aldeko diferentziala (g.g.b.)</i>	<i>Ikasleko gastu osoa (\$)</i>	<i>Euskadiren aldeko diferentziala (g.g.b.)</i>
Espainia	7.446	18%	9.484	32%
Europa (21)	7.762	13%	9.369	34%
Euskadi (HHI gabe)	8.777	--	12.540	--

Ikasleko gastu osoa Lehen Hezkuntzan, gutxi gora behera, Europako batez bestekoa baino % 13 handiagoa da. DBHren kasuan aldea % 34era igo da. Espainiako datuekin konparatzen dugunean ere, DBHn aldea handiagoa da. Alde hori azaltzen duten bi faktoreen artean, egitura-faktorarik nagusia aniztasunari erantzuna emateko baliabideak —curriculum ezberdinak eratzea eta bikoizketak kasu— bereziki DBHn biltzea da. Neurri horien helburua graduatu kopurua igozea eta eskola-uzte goiztiarra jaitea da, eta Kontseiluak behin baino gehiagotan eskatu du berariazko baliabide horiek hasierako etapetara aurreratu daitezkeen, eskola-porrota hasierako zantzuetatik prebenitu ahal izateko.

- **Adierazlea gaurkotzea**

Aurreko analisisian aipatu den 2009. urtean hezkuntzako gastuak gailurra izan zuen, bai termino absolutuetan bai termino erlatiboetan. Beraz, interesgarria litzateke aztertzen ari garen adierazle kuantitatiboaren ondorengo garapenaren aurreikuspena egitea, lehen adierazle erlatiboarekin egin zen bezala.

Hori dela eta, ikasleko gastu osoa zatiki bat da: hezkuntzako gastu osoa zati ikasle kopuru osoa. Ikasle kopurua ezaguna da, baina gastu osoari dagokionez, Sailak 2010ean eta 2011n betearazitako aurrekontuen bilakaerari buruz dagoen informazioa mugatua da, eta horren ondorioz errore-tarte bat egongo da.

Ikasle kopurua % 7,1 hazi da hiru urte horietan. Gastu orokorrerako diru-sarrerei dagokienez, Sailaren aurrekontua % 7,5 murriztu da, baina guztira % 20 osatzen duten gainerako osagaien —bata pribatua, bestea publikoa— bilakaera ez dugu ezagutzen.

Sailaren aurrekontuaren eta ikasle kopuruaren bilakaera 2009tik 2012ra.

	2009. urtea / 2008-09 ikasturt.	2012. urtea* / 2011-12 ikasturt.	Δ 3 urte / 3 ikasturte
Sailaren urteko aurrekontua (milioi €)	2.860	2.645	% -7,5
Unibertsitate aurreko etapetako ikasle kopurua	324.509	347.656	% 7,1

(*)*hasierako aurrekontua*

Sailaren % 7,5eko balioa abiapuntu bezala harturik, gastu osoaren murrizketa % 7 eta % 8 artean zenbatetsiz, ikasleen garapenaren faktorearekin elkaturik, ikasleko gastu osoak % 13tik % 14ra bitarteko murrizketa izan du. 2009an, bi hezkuntza-sareen artean, unibertsitate aurreko etapetan ikasleko batez besteko gastu osoa 7.287 eurokoa bazen, 2012an 6.270 eta 6.340 euroren artekoa litzateke¹⁷.

Adierazle horretan hezkuntza-sareen arteko aldea murriztu egin da azkenaldi honetan, sare publikoko ikasle kopuruaren igoera (% 9,9) sare pribatuko ikasleen kopuruarena (% 4,4) baino handiagoa izan baita. Gainera, aurrekontuek 2010etik 2011ra izan duten bilakaeraren analitiko (3.1 eta 3.2 eranskinak) ondorioztatzen da ikastetxe publikoetan murrizketa handiagoa izan dela, hurrengo atalean azaltzen den bezala.

3.3.3. Bi hezkuntza-sareetako gastuen arteko aldea azaltzen duten faktore nagusien analisia

2009an unibertsitate aurreko irakaskuntzetan, HHI sartu gabe, ikasleko gastu osoa 9.164 eurokoa izan zen ikastetxe publikoetan eta 5.431 eurokoa ikastetxe pribatuetan; konparaketarako oinarri bezala ikastetxe publikoetako gastua harturik, ikastetxe pribatuetako gastua % 40,7 txikiagoa izan zen.

Ondoren, aurreko atalean aipatutako ikasle kopuruaren bilakaeraren eraginez, aldea 3,1 puntu murriztu da.

Bestalde, hezkuntza-sareetako aurrekontuek 2010etik 2011ra izan duten bilakaerak, gastu osora zabalduz, 1,2 puntuko jaitsiera ekarri du diferentzial horretan. Hezkuntza-sareak konparatzen dituen aldagai horren bilakaeraren argitan aurreikus daiteke gainerako bi aldiatarako (2009-2010 eta 2011-2012) joera hori mantenduko dela, ikastetxe pribatuetarako diru publikoaren osagai nagusia den hezkuntza-ituna bere hartan mantentzen baita, baina aurrekontu orokorra murriztu egiten baita, 3.3.1 eta 3.3.2 puntuetan azaldu den bezala.

Ondorioz, aldagai horren bilakaeran eta gastu osoaren gainerako osagai txikietan oinarriturik, 2012. urtean adierazle horretan hezkuntza-sareen arteko aldea % 33 eta % 36 artekoa dela kalkulatu daiteke, konparaziorako oinarri bezala sare publikoko balioa harturik.

¹⁷ Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI) ez da sartzen

Ikastetxe publikoetako hezkuntza-zerbitzuen kostua handiagoa izaten da egitura eta antolamendu arrazoiengatik eta bertan ikasten duten ikasleen behar bereziengatik. Jarraian deskribatzen diren faktoreek azaltzen dute kostu handiago hori. 7 faktore identifikatu dira, a)tik g)ra ordenaturik, eta 14 kontzeptu edo azpi-faktoretan banatu dira. Gainera, beste bi faktore identifikatu dira; horietako batek (h) ez du eraginik sortzen, eta azkena (g), aurrekoek ez bezala, ikastetxe pribatuetako gastua handituko lukeena, zaila da egokitzen eta kuantifikatzen. 3.6 eranskinetako taulan zerrenda bat aurkezten da hiru kategoriatan sailkatuz: egiturari dagozkion faktoreak, plantilei dagozkienak eta baliabideei dagozkienak.

Ondoren, antzemandako kostu-aldeetan duten eraginaren arabera ordenatu dira. Kontseiluak ez du haietariko bakoitzaren eraginaren kuantifikazioa egin nahi, honelako analisia ondorengo garapenerako, zehazpenerako eta egunerapenerako baliagarria izan daitekeelakoan.

a) Ikasle/gela ratioa

Kuantifikazioari dagokionez, aztertutako adierazlean dauden aldeak azaltzeko faktorerik garrantzitsuenak da. Hezkuntza-sistema osoan batez besteko ikasle/gela ratioa 19,5koa da, eta sare pribatuko ratioaren (21,3) eta sare publikoko ratioaren (18,1) arteko aldea 3,2koa da.

Ikasle/gela ratioko 3,2 puntuko diferentzia horren ondorioz, ikasleko gastua handiagoa da sare publikoan.

Ikasle/gela ratioa Lehen Hezkuntzan eta DBHn, hezkuntza-sarearen arabera. 2011-12 ikasturtea

	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Itunpeko ikastetxeak</i>	<i>Ikastetxe guztiak</i>	<i>Ratioen arteko aldea (pribatua-publikoa)</i>
Haur Hezkuntza	15,9	18,5	17,0	2,6
Lehen Hezkuntza	18,7	23,4	20,8	4,7
DBH	18,6	22,3	20,4	3,7
Batxilergoa	26,2	23,9	25,1	-2,3
Lanbide Heziketa	17,6	18,6	18,0	1,0
Unibertsitate aurreko etapetako batez bestekoa (HHI gabe)	18,1	21,3	19,5	3,2

Orain ratioen arteko aldea kontuan hartzen badugu, baliorik handienak derrigorrezko hezkuntza-etapetan hartzen ditu: 4,7 Lehen Hezkuntzan eta 3,7 DBHn. Batxilergoan, berriz, joera alderantzizkoa da, eta ikasle/gela ratioa ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino 2,3 puntu handiagoa da.

Derrigorrezko hezkuntza-etapetan, bai bi hezkuntza-sareetako batez besteko ratioaren balioa, bai hezkuntza-sareetako balioen arteko aldea, modu ezberdinean banatzen dira eskualde eta eskola-guneen arabera, 3.7 (Lehen Hezkuntza) eta 3.8 (DBH) eranskinetan ikus daitekeen bezala.

Analisirako *Lehen Hezkuntza* hautatu da, alderik handienak etapa horretan gertatzen baitira. Batez besteko ratioa 11. mapan azaltzen da eta hezkuntza-sareetako ratioen arteko aldea, 12. mapan.

Ikastetxe guztietako ikasle/gela *batez besteko ratioari* (20,8) dagokionez, baliorik handienak hiriguneetan gertatzen direla ikus daiteke, batez ere hiru hiriburuetan eta Bilboren eta Donostiaren inguruneetan. Ratioa 22 ikasle/gela baino handiagoa da Abandon (23,9), Txorierrin (23,8), Vitoria-Hegoekialdean (22,9), Bidasoan (22,8), Amorebietan (22,6) eta Begoñan (22,3). Ratioaren baliorik txikienak, berriz, landa inguruneetan gertatzen dira, biztanleria sakabanaturik dagoen inguruneetan. Ratioa 18 ikasle/gela baino txikiagoa da Arabako mendietan (13,3), Arabako Errioxan (14,6), Basurtu-Zorrotzan (15,2), Igorren (15,9), Mendebaldeko Araban (16,3) eta Amurrion (17,5).

Ikasle/gela ratioaren banaketa geografikoa ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatuen kopurua eskola-gune bakoitzean konparatzen badira (4. mapa, 1. atala), biztanleriaren dentsitate handia duten eskualdeetan, gehienetan, itunpeko ikastetxeak ugariagoak izaten direla ikusten da.

Itunpeko ikastetxeen artean, Lehen Hezkuntzan ikasle/gela ratioaren batez besteko balioa 25 baino handiagoa da hamabi eskualdetan, 3.7 eranskinean azaltzen den bezala; haietako zortzi Bizkaian daude —Bilboko lau barruti, Sestao, Barakaldo, Mungia eta Txorierrin—, bi Gipuzkoan —Bidasoa eta Eibar—, eta bi Araban —Vitoria-Gasteizeko bi barruti—.

Ikastetxe publikoetan, ikasle/gela ratioaren batez besteko balioa 20 baino handiagoa da zortzi eskualdetan; bost Gipuzkoan —Bidasoa, Lasartealde, Hernani, Eibar eta Urola Erdia—, Vitoria-Gasteizeko bi barruti, eta Amorebieta.


Ikastetxe pribatuetako eta publikoetako ratioen arteko aldeari dagokionez (12. mapa), batez besteko balioa 4,7 da, eta alderik handienak Bilbo Handiaren eskualdean eta inguruko eskualdeetan gertatzen dira. Alderik handienak dituzten hamaika eskola-guneak Bizkaian daude, nabarietak Txurdinaga-Otxarkoaga (9,0), Abanto (8,1) eta Mungia (8,0).

b) Irakasleen eskola-ordu kopuruen arteko aldea Bigarren Hezkuntzan


Eraginaren garrantziaren arabera, bigarren faktorea da, aurrekoa baino garrantzi txikiagokoa. Haur eta Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako irakasleen eskola-orduen kopurua (23 ordu astean) ia berdina bada ere, Bigarren Hezkuntzan ikastetxe publikoetako irakasleek 17 edo 18 eskola-ordu izaten dute astean, eta itunpeko ikastetxeetan 21 edo 22 eskola-ordu.

Hiru edo lau eskola-orduko alde hori da hezkuntza-sareen arteko aldeak adierazle horretan Bigarren Hezkuntzan Haur eta Lehen Hezkuntzan baino askoz handiagoak izateko arrazoirik nagusiena.

11. mapa. Ikasle/gela ratioa Lehen Hezkuntzan eskola-guneen arabera. 2011-12 ikasturtea



12. mapa.Ikaskle/gela ratioa Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza-sareen arteko aldea (pribatua - publikoa) eskola-guneen arabera. 2011-12 ikasturtea



c) Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen kopurua eta dirulaguntzadun ikasleen kopurua bi hezkuntza-sareetan

c1) Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleei erantzuna ematen dieten espezialisten kuantifikazioa 1. atalean egin da; irakasle espezialista multzorik ugariena Pedagogia Terapeutikokoak (PTE) eta Entzumena eta Hizkuntzakoak (ALE) dira, Hizkuntza indartzekoak (PRL), eta Bigarren Hezkuntzan curriculum ezberdineko ikastaldeen ardura duten irakasleak.

Multzo horiei aipatutako gainerako espezialistak erantsi behar zaizkie: Itsuen Baliabidetegia (IBT), logopedak, Berritzeguneetako talde multiprofesionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, osasun-hezkuntzako zentroak, errefortzu eta laguntza programak (PROA) eta hezkuntza-errefortzuko proiektuak (PRE).

Aipatutako egoeretan horrelako baliabideak esleitzeko irizpideak antzerakoak izaten dira bi hezkuntza-sareetan, eta haien banaketaren analisiak (1.3 eta 1.4 puntuak) erakusten du hezkuntza-sare publikoan kasu gehiago biltzen direla, eta horrek ikasleko gastu orokorraren adierazleari eragiten diola.

c2) Beste alde batetik, dirulaguntzadun ikasleak hezkuntza-sareetan nola banaturik dauden 1.3.2 puntuan eta 3.3 eranskinean jasotzen da, eta hezkuntza-sare publikoan ugariagoak izaten direla erakusten du, batez ere jantokirako dirulaguntzen atalean.

d) Irakasleen lan-baldintzak eta funtzionamendu-baldintzak

Hiru azpi-faktore identifikatu ditugu:

d1) Hezkuntza-sare publikoko irakasleen kostua handiago egiten duen faktore bat irakasleen batez besteko adina da, antzintasunaren osagaien islatzen dena.

d2) Ordezkapenen kostua handiagoa izaten da sare publikoan, Euskadiko herri administrazioetako batez besteko kostua baino txikiagoa den arren. Azken urteotan bi neurri hartu dira ordezkapenen tasa murrizteari begira: irakasleen soldata-estalduraren murrizketa bajaran dagoen bitartean eta Administrazioak ikastetxeei egiten dien ordezkoen hornidura murriztagoa.

d3) Soldataren auziari dagokionez, hezkuntza-sare publikoko soldatak apur bat handiagoak izaten dira. Duela zenbait urte % 5eko aldea aipatu zen. Orainsuago, irakasle funtzionarioei 3/2010 Legearen eraginez aplikatu zitzaizkien soldata-murrizketa itunpeko ikastetxeetako irakasleei ez zaie aplikatu, eta beraz aipatutako aldea desagertu edo murriztu egingo litzateke.

e) Irakasle/gela ratioa sakabanaketa geografikoaren eta curriculumaren hedaduraren arabera

Bi azpi-faktore aipa daitezke:

e1) Herri txikietan ikastetxe publikoak bakarrik daudenean ikastetxe horiek ikasle kopuru txikikoak izaten dira eta kostuak, berriz, handiagoak izaten dira. Auzi horren inguruan, 2008-2010 txostenean "Hezkuntza-eskaintza eta udalaren tamaina" izeneko ikerlan bat gauzatu zen (1.2.4 puntua). Ikastetxe txikietan bi faktorek eragiten diote gastuari: ikasle/gela ratioa, aurretiaz sistema osorako aztertutakoa, eta beste faktore bat, irakasle/gela ratio handiagoa, gutxieneko irakasle-hornidura bete behar delako. Tankera horretako ereduazko ikastetxeak Eskola Txikiak izango lirateke Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta berariazko DBHko ikastetxeak Bigarren Hezkuntzan.

e2) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan hautazko eta aukerako irakasgaien eskaintza zabalagoa izaten da itunpeko ikastetxeetan baino.

f) Garraio eta jantoki zerbitzu osagarrietako gastua eta bestelako baliabide materialak ikastetxe publikoetan

f1) 3.3.2 puntuan aipatzen den bezala, garraio eta jantoki zerbitzuetako gastua handiagoa izaten da ikastetxe publikoetan (118,9 milioi) ikastetxe pribatuetan (82,5 milioi) baino.

f2) Beste era bateko gastuei dagokienez, hornidurarako programa batzuk ikastetxe publikoentzat bakarrik dira, testuliburuaren doakotasuna kasu.

g) Plantilako beste baliabide batzuk, askotariko eskakizunekoak

Hiru egoera bereiz daitezke:

g1) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, ikasle/gela ratioan baldintza batzuk betetzen badira, eskola-saio batzuk bikoiztu egin daitezke.

g2) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan jantokiaz arduratzen den irakasle bat edo erdi egon daiteke, erabiltzaile kopuruaren arabera, eta beste ikastetxe batzuetan liburutegiko arduradun bat ere izaten da.

g3) Beste alde batetik, ikastetxeetako beste lanpostu batzuei gagozkielarik, eskakizunak eta kostuak handiagoak izaten dira hezkuntza-sare publikoan. Hartara, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ez dago bulegaririk (ezta ere 200 ikasle baino gutxiagoko DBHko ikastetxeetan), eta bulegarien ordez administrazio-kudeaketaren Arduradunaren lanpostua eratu da, ikastetxeko irakasle batek betetzen duena.

